

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ministerio Fiskala espainiar ordenamendu juridikoan

Katixa Etxebarria Estankona

**EUSKARA ETA ELEANIZTASUNeko
ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA**

**Liburu honek UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren
dirulaguntza jaso du**

MINISTERIO FISKALA
ESPAINIAR
ORDENAMENDU
JURIDIKOAN

Katixa Etxebarria Estankona

LABURDURAK.

BJLO	Botere Judizialaren Lege Organikoa
BJKN.....	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
EFN	Estatuaren Fiskal Nagusia
EK	Espainiako Konstituzioa
HDLO	Herriaren Defendatzailearen Lege Organikoa
KALO	Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa
KP	Kode Penala
LO	Lege Organikoa
MF	Ministerio Fiskala
MFEO	Ministerio Fiskalaren Estatutu Orokorra
Or.	Orrialdea
PKL	Prozedura Kriminalaren Legea

1. KAPITULUA. AURREKARI HISTORIKOAK

1.1. Hasierako kontuak

1.2. Ministerio Fiskalaren jatorria

1.3. Ministerio Fiskalaren eboluzioa

1.3.1. XIX. mendean zehar

1.3.1.1. Sustatzaile Fiskalaren sorrera

1.3.1.2. 1870eko LOa: organikoki kidego moduan finkatutako karrera fiskalaren sorrera

1.3.2. XX. mendean zehar egindako aldaketak

1.3.2.1. 1926ko Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa eta hura garatzen duen 1927ko Arau Organikoa

1.3.2.2. 1931ko Errepublikako Konstituzioa. MF independentziaz hornitzeko saioa

1.3.2.3. Francoren erregimenean MF arautzea. 1967ko Estatuko Lege Organikoa eta 1969ko MFren Arau Organikoa

1.4. Ministerio Fiskalaren garapen historikoaren ezaugarri nagusiak

2. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALA 1978KO ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN

2.1. Ministerio Fiskalaren oinarria: EKren 124 art.

2.2. EKren 124. artikularen garapena: 1981eko Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa

2.3. 1981eko Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoaren erreformak

2.3.1. Martxoaren 24ko 5/1988 Legea

2.3.2. Apirilaren 24ko 10/1995 Legea

2.3.3. Abenduaren 22ko 9/2000 Legea, Justizia Administrazioa bizkortzeko premiazko neurriei buruzkoa

2.3.4. Abenduaren 28ko 12/2000 Legea

2.3.5. Maiatzaren 26ko 14/2003 Legea

2.3.6. Abenduaren 23ko 19/2003 LO

2.3.7. Abenduaren 28ko 1/2004 LO, genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriak arautzen dituena

2.3.8. Apirilaren 26ko 2/2006 Legea

2.3.9. Urriaren 9ko 24/2007 Legea

2.4. Ondorioak

3. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN IZAERA

3.1. Ministerio Fiskalaren izaera EK eta MFEOn ikuspuntutik

3.2. Ministerio Fiskalaren autonomia

3.3. Ministerio Fiskalaren harremana estatuaren gainerako botereekiko

3.3.1. Botere Exekutiboarekiko menpekotasuna

3.3.2. Botere Legegilearekiko harremana

3.3.3. Botere Judizialarekiko harremana: integrazioa

3.4. Ondorioak

4. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALA ERAENTZEN DUTEN PRINTZIPIOAK

4.1. MF eraentzen duten konstituzio-printzipioak

4.2. Printzipio funtzionalak. Hasierako kontuak

4.2.1 Legezkotasun-printzipioa

4.2.1.1. Legezkotasunaren definizioa

4.2.1.2. Legezkotasun-printzipioaren adierazpenak MFEOn

4.2.2. Inpartzialtasun-printzipioa

4.2.2.1. Inpartzialtasun-printzipioaren definizioa

4.2.2.2. Inpartzialtasun-printzipioaren adierazpenak MFEOn

4.3. Printzipio organikoak

4.3.1. Batasun-jarduera

4.3.2. Menpekotasun hierarkikoa

4.3.2.1. Kanpoko menpekotasuna

4.3.2.2. Barruko menpekotasuna

5. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN ANTOLAKETA. ESTATUAREN FISKAL NAGUSIA

- 5.1. MFren organoak
- 5.2. Estatuaren fiskal nagusia
 - 5.2.1. Hasierako kontuak
 - 5.2.2. Izendapena eta kargutik kentzea
 - 5.2.3. Karguaren iraupena eta kargutik kentzeko zioak
 - 5.2.4. Ahalmenak eta funtzioak
 - 5.2.5. Estatuaren Fiskaltza Nagusian integratutako organoak
 - 5.2.5.1. Ikuskaritza Fiskala
 - 5.2.5.2. Idazkaritza Teknikoa
 - 5.2.5.3. Laguntza Unitatea
- 5.3. Autonomia-erkidegoen fiskal nagusiei eta fiskalburuei aipamen berezia
 - 5.3.1. Autonomia-erkidegoen fiskal nagusiak
 - 5.3.1.1. Izendapena
 - 5.3.1.2. Funtzioak
 - 5.3.2. Fiskalburuak
 - 5.3.2.1. Izendapena
 - 5.3.2.2. Kargualdiaren iraupena
 - 5.3.2.3. Kargutik kentzea
 - 5.3.2.4. Ahalmenak eta funtzioak

6. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN ANTOLAKETA. ORGANO KOLEGIATUAK

- 6.1. Kontseilu Fiskala
 - 6.1.1. Hasierako kontuak
 - 6.1.2. Osaera
 - 6.1.3. Funtzioak
- 6.2. Salako Fiskalen Batzarra
 - 6.2.1. Osaera
 - 6.2.2. Funtzioak
- 6.3. Autonomia-erkidegoetako Fiskal Nagusien Batzarrak

7. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN ANTOLAKETA. FISKALTZAK

7.1. Auzitegi Gorenaren Fiskaltza

7.2. Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltza, Kontu Auzitegiaren Fiskaltza eta Entzutegi Nazionalaren Fiskaltza

7.3. Fiskaltza Bereziak

7.3.1. Drogen Aurkako Fiskaltza Berezia

7.3.2. Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltza Berezia

7.4. Fiskaltza Juridiko Militarra

7.5. Saileko Fiskaltzak

7.6. Fiskaltzen Batzarrak

8. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN EGITEKOAK, FUNTZIOAK ETA AHALMENAK

8.1. MFren egitekoak

8.1.1. Legezketasunaren babesa

8.1.2. Herritarren eskubideen babesa

8.1.3. Legeak zaindutako interes publikoaren babesa

8.1.4. Auzitegien independentzia begiratzea

8.2. MFren funtzio generikoak

8.3. MFren ahalmenak

8.4. Prozesu penalaren aurreko MFren ahalmenak

8.5. MFren organo batzuen funtzio bereziak

8.5.1. Fiskaltza Berezien funtzioak

8.5.1.1. Drogen Aurkako Fiskaltza Bereziaren funtzioak

8.5.1.2. Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltza Bereziaren funtzioak

8.5.2. Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren fiskal berezien funtzioak

8.5.2.1. Emakumearen aurkako indarkeriaren fiskalaren funtzioak

8.5.2.2. Lurralde-antolamendu eta ondare historiko, ingurumen eta baso-sute delituen aurkako fiskalaren funtzioak

8.5.2.3. Salako fiskal espezialisten funtzioak

8.5.3. Botere Judizialaren antolakuntzatik kanpo dauden organoen Fiskaltzen funtzioak

8.5.3.1. Konstituzio Auzitegiaren Fiskaltzaren funtzioak

8.5.3.2. Kontu Auzitegiaren Fiskaltzaren funtzioak

9. MINISTERIO FISKALAREN ESTATUTU PERTSONALA

9.1. Karrera fiskala eta hura osatzen duten fiskalen kategoriak

9.2. Kategorien igoera

9.3. Lantokien hornikuntza

9.4. Karrera fiskalean sartzea

9.5. Egoera administratiboak

9.6. MFren kideen eskubideak eta betebeharrak

9.6.1. Betebeharrak

9.6.1.1. Karguari fideltasuna

9.6.1.2. Lantoki ofizialeko herri berean bizilekua izateko betebeharra

9.6.1.3. Isiltasun-betebeharra

9.6.1.4. Nagusiekiko obedientzia eta informazio-betebeharra

9.6.2. Eskubideak

9.6.2.1. Kargurako eta karreraren promoziorako eskubidea

9.6.2.2. Baimenak eta lizentziak

9.6.2.3. Ordaintzeko eskubidea

9.6.2.4. Elkartzeko eskubidea

9.6.2.5. Immunitatea

9.7. Bateriaezintasunak eta galarazpenak

9.8. MFren erantzukizuna

9.8.1. Erantzukizun zibila eta penala

9.8.1.1. Erantzukizun penala

9.8.1.2. Erantzukizun zibila

9.8.2. Diziplina-erantzukizuna

9.8.2.1. Falta motak

9.8.2.2. Zigorrak

9.8.2.3. Falten preskripzioa

9.8.2.4. Diziplina-erantzukizuna ebazteko organo eskudunak

9.8.2.5. Helegiteak

9.8.2.6. Zigortzeko prozedura

9.8.2.7. Indargabetzea eta birgaitzea

BIBLIOGRAFIA

1. KAPITULUA. AURREKARI HISTORIKOAK

1.1. Hasierako kontuak. 1.2 MFren jatorria. 1.3. MFren eboluzioa. 1.3.1. XIX. mendean zehar. 1.3.1.1. Sustatzaile Fiskalaren sorrera. 1.3.1.2. 1870eko LOa: organikoki kidego moduan finkatutako karrera fiskalaren sorrera. 1.3.2. XX. mendean zehar egindako aldaketak. 1.3.2.1. 1962ko Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa eta hura garatzen duen 1927ko otsailaren 28ko Arau Organikoa. 1.3.2.2. 1931ko Errepublikako Konstituzioa. MF independentziaz hornitzeko saioa 1.3.2.3. Francoren erregimenean MF arautzea. 1967ko Estatuko Lege Organikoa eta 1969ko MFren Arau Organikoa. 1.4. Garapen historikoaren ezaugarri nagusiak.

1.1. Hasierako kontuak

Aurrekariak alde batera utzi gabe, esan genezake Ministerio Fiskala presente dagoela Erdi Arotik Justizia Administrazioan. Hasieran, *prokuradore* eta *sustatzaile fiskal* modura izendatzen zen figura hori; hari zegozkion Erregearen ondarea defendatzea, konkistatutako lurraldeetan legezkotasuna mantentzea, eta akzio eta akusazio penala egikaritzea.

Estatuaren gainerako botereekin zuen harremana dela eta, historikoki Ministerio Fiskala Botere Exekutiboarekin lotzen da. Baina, hasierako menpekotasun-harremanetik eboluzioa egon da, eta gero eta nabarmenagoa da deslotze hori.

Ministerio Fiskalaren menpekotasuna gainditzeko lehenengo pausoa 1931ko Konstituzioan eman zen. Konstituzioaren 104. artikulua honela zioen: Ministerio Fiskalak "...legeak zehazki betearaztea eta gizartearen interesa zainduko ditu" eta "...kidego bakarra osatuko du eta Justizia Administrazioaren independentziaren moduko bermeak izango ditu". Hala eta guztiz ere, aurreikuspen hori ez zen legearen bitartez garatu, eta Ministerio Fiskalak 1926ko Estatutuak araututakoa izaten jarraitu zuen. Estatutu horrek Ministerio Fiskala Botere Exekutiboaren menpe ezartzen zuen; horrela, gobernuak zuzeneko aginduak ematen ahal zizkion eta fiskalak izendatzeko eta ordezkatzeko ahalmena zuen.

1978ko Konstituzioak menpekotasun hori apurtu zuen (edo, gutxienez, apurtzen saiatu zen). Horretarako, VI. tituluaren —*Botere Judizialaz*— barruan arautu zuen Ministerio Fiskala. Mantentzen den menpekotasunaren zeinuetariko bat da estatuaren fiskal nagusiaren izendapena: Erregeak izendatzen du, gobernuaren proposamenean eta BJKN-n entzunda —(EKren 124.4 art.). Ministerio Fiskala eraentzen duten printzipioei dagokienez, Konstituzioak dio hark bere eginkizunak betetzen dituela, jarduera-batasun eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioei jarraituz eta, edozein kasutan, legezketasun- eta inpartzialtasun-printzipioei atxikita.

1981. urtean, egun indarrean dagoen Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa onartu zenean, gobernuarekiko menpekotasunaren ideiarekin jarraitu zen. Izan ere, MFEOren 2. artikulua arabera, Ministerio Fiskala autonomia funtzionalez integratzen da Botere Judizialean; era berean, 7. artikulua arabera eta inpartzialtasun-printzipioari dagokionez, objektibotasun eta independentzia osoz jardungo du dagozkion interesen babesean.

1.2. Ministerio Fiskalaren jatorria

XVIII. mendearen lehenengo erdian, fiskalek justizia-sustatzaile moduan jarduten zuten batez ere edo, beste hitz batzuetan esanda, politika borbonikoaren instrumentu ziren. Baina, 1740. urtetik aurrera, fiskalak dira Erregearen interesen zuzeneko ordezkariak Entzutegetan; ondare-materiak, militarrek eta ordena jurisdikzionalarenak zaintzen dituzte. Beraz, esan daiteke, justiziaren sustatzaile hutsak baino, gobernuko gaietan eskudunak direla; hau da, Justizia Administrazioarekin zerikusia duten funtzioez gain, funtzio politikoak ere badituzte.

Cadizeko Gorteetan aurkitu daiteke Ministerio Publiko modernoaren lehenengo pausoa. Horren adibide dira 1811ko Auzi Zibil eta Kriminaletarako Arauaren Proiektua eta 1812ko urriaren 9ko Entzutegeti eta Epaitegien Araua. Horietan aurreikusten zen epaiketa penaletan fiskala entzun egin behar zela, bai alderdi akusatzailea egonda ere bai epaiketa zibiletan auzi publikoa ukituz gero ere. Horrela, Ministerio Publikoaren funtzionario bana ezarri zen auzitegi bakoitzean; guztiak zeuden nagusi hierarkiko beraren menpe.

1.3. Ministerio Fiskalaren eboluzioa

1.3.1. XIX. mendean zehar

1.3.1.1. Sustatzaile fiskalaren sorrera.

XIX. mendean zehar, MFn garrantzizko aldaketa ekarri zuen lehenengo araua izan zen 1835eko irailaren 26ko Justizia Administrazioarako behin-behineko Araua: banaketa judizial berria zuten Barrutiko Epaitegiak ezarri zituen. Arau horrek berekin ekarri zuen Barrutiko Epaitegietan sustatzaile fiskalak sortzea ere.

Aipatutako Arauaren 101. artikulua honela definitzen zuen sustatzaile fiskala: *kausa publikoaren eta errege-jurisdikzio arruntaren babesleak eta gizartea kaltetzen duten delituen jazarpena eta zigorketa sustatzeaz arduratzen direnak.*

Sustatzaile fiskalak parte hartu behar zuen delitu publikoen epaiketa guztietan, akusatzaile partikularra egonda ere¹. Izan ere, figura horrek gaur egungo fiskalak dituen funtzioen antzekoak zituen; haien artean hauek nabarmendu daitezke:

- Ofizioz jazar daitezkeen delituen —hots, delitu publikoen— prozesuetan akusazio publikoa
- Fiskoren interesak babestea
- Kausa publikoaren negozioak babestea
- Errege-jurisdikzio arrunta babestea
- Auzitegien funtzionamendu egokia ikuskatzea

Fiskaltza gobernuaren menpe zegoen; izan ere hark izendatzen eta kentzen zituen kargutik fiskalak. Guztiz hierarkikoki eratuta zegoen².

¹ Horren inguruan, 1835eko irailaren 26ko Justizia Administrazioarako Behin-behineko Arauaren 51. artikulua 15. erregelak honela zioen: *Publiko izateagatik, ofizioz jazar diezaiokeen delituari buruzko auzi kriminal guztietan epaitegiaren sustatzaile fiskala alderdia izango da, nahiz eta akusatzaile edo kereilari partikularra egon. Delitu pribatuei buruzkoetan ez zaio entzungo, moduren batean kausa publikoari edo errege-jurisdikzio arruntari interesatzen zaionean izan ezik.*

Une hartan agerian uzten ziren fiskalak zuen menpekotasuna eta inpartzialtasuna legezketasun- eta inpartzialtasun-printzipioekiko; gaur egungo Konstituzioaren 124. artikulua erregulazioaren aurrekari argiak dira.

Urte batzuk geroago, 1844ko apirilaren 26ko Errege Dekretuaren bitartez batasun eta menpekotasun funtzionalaren printzipioak saru ziren, baina 1858. urtera arte ez zen izan Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoaren onarpenik. 1858ko MFEOk, lehen adierazitako funtzioak aldatu gabe, antolaketa-hierarkia eta jarduera-batasuna nabarmendu zituen.

1.3.1.2. 1870eko LOa: organikoki kidego moduan finkatutako karrera fiskalaren sorrera

1870eko irailaren 15eko Botere Judizialaren Antolamenduari buruzko Behin-behineko Legeak berriz antolatu zuen epaile eta fiskalen arteko desberdintasunean oinarrituta azken horien benetako estatutua.

Aipatutako legea indarrean izan zen gaur egungo Botere Judizialaren Legea onartu arte. Une hartatik aurrera izan zen Botere Judizialek bereizita dagoen karrera fiskal independentearen hasiera. Lege horren 763 eta 854 bitarteko artikuluek Ministerio Fiskalaren benetako Estatutu Organikoa aurreikusten zuten: oposizioen bitartez karrera fiskalean sartzeko sistema, planta, izendapena, banantzea eta kargutik kentzea, erantzukizuna, betebeharrak, batasun- eta menpekotasun-printzipioak, errefusatzea... Aurreikusita ez zegoenari zegokionez, legeak epaile eta magistratuen erregulaziora bidaltzen zuen.

Aurreko legeek aurreikusitako funtzioak mantendu egin zituen. Ildo horretatik, Conde-Pumpidok³ nabarmentzen du fiskalari zegokion legezketasunaren babesa auzitegien antolamendu eta funtzionamendura mugatzen zela.

² 1835eko irailaren 26ko Justizia Administrazioarako Behin-behineko Erregelamenduaren 105. art.: *Sustatzaile fiskalak egokia den Entzutegiaren fiskalen agindu eta zuzendaritzaren menpe egongo dira...*

³ Ikus CONDE-PUMPIDO FERREIRO, C., *El Ministerio Fiscal*, Aranzadi, Iruña, 1999, 33 or.

Gobernuaren menpekotasunari dagokionez, fiskaltzak Botere Judizialaren bozeramaile eta ordezkari izaten jarraitzen zuen auzitegien aurrean⁴. Era berean, gobernuarekiko menpekotasun-printzipioa indartu egin zen⁵.

Aipatutako legeak batasun- eta hierarkia-printzipioak ere azpimarratzen zituen. Ildo horretatik, fiskal bakoitzak goiko hierarkikoak emandako instrukzioak bete behar zituen eta, kontrako kasuan, (hau da, aginduak bete ezean) goikoak beheko fiskala ordezkatu ahal zuen.

Legeak fiskalen mugikortasuna aurreikusten zuen, karguaren betebeharretan oinarrituta. Ikuspuntu horretatik, fiskala botere publikoaren ordezkari izanik, legeak ahalbidetzen zuen kargutik kentzea eta lekualdatzea gobernu aldatzearekin batera⁶.

1882. urtean aldaketak izan ziren karrera fiskalean. 1882ko urriaren 14ko Lege Osagarri Organikoak karrera fiskal bakarra sortu zuen epaile eta fiskalentzat. Antolamenduaren ikuspuntutik, Auzitegi Gorenean fiskal bat eta Entzutegi bakoitzean beste bana esleitzen ziren. Kasu guztietan, teniente fiskal bat eta zehazten zen abokatu fiskalen kopurua gehitzen ziren, eta udalerrietako epaitegi bakoitzean udalerriko fiskal bat. Sustatzaile fiskalak ere bertan behera uzten ziren; horiek lehen auzialdiko epaitegietan jarduten zutenenez, udal-fiskal letratuak izendatzen ziren.

1886ko martxoaren 16ko Errege Dekretuak estatuaren abokatuen kidegoari ogasun eta estatuaren ordezkaritza eta babesa esleitu zizkion. Beraz, fiskalek gizartearen ordezkaritza eta akzio publikoaren egikaritzean jarduten zuten.

Amaitzeko, 1882ko Prozedura Kriminaleko Legeak jasotzen zituen fiskalaren legezketasun-printzipioa eta akzio penala egikaritu beharra, baldin eta delitu izan daitekeen egitatea gauzatzearen arrazoizko seinaleak badaude.

⁴ 1870eko irailaren 15eko Botere Judizialaren Antolamenduari buruzko Behin-behineko Legearen 763. artikulua dioenaren arabera, fiskalak badu “gobernuaren ordezkaritza Botere Judizialarekin dituen harremanetan”.

⁵ 841. artikulua honela dio: *Auzitegi Gorenaren fiskala izango da Monarkia osoaren Ministerio Fiskalaren buru, eta Grazia eta Justizia Ministerioaren menpe egongo da zuzenean.* 829. artikulua, berriz, honela dio: *Gobenuak askatasunez lekualda ditzake Ministerio Fiskalaren funtzionarioak.*

⁶ 820 art.: *Gobenuak askatasunez banandu ditzake Auzitegi Gorenaren fiskala eta Entzutegien fiskalak.*

1.3.2. XX. mendean zehar izandako aldaketak

1.3.2.1. 1926ko Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa eta hura garatzen duen 1927ko Arau Organikoa

1926ko ekainaren 21eko Errege Dekretuak onartutako Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoak, eta hura garatzen zuen 1927ko otsailaren 28ko Arau Organikoak une horretara arte emandako xedapenak batzea eta sailkatzea baino ez zuen egin. Horrek ez zituen Ministerio Fiskalaren eraketa eta funtzioak aldatu.

Arautze horren hainbat ezaugarri komenta daitezke. Batetik, MFk auzitegietan gobernuaren ordezkari izaten jarraitzen zuen. Era berean, batasun eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioak jasotzen ziren. Izan ere, Justizia Ministroaren proposamenean, Ministroen Kontseiluak izendatzen zuen Auzitegi Gorenaren fiskala. Bera zen MFren buru eta Justizia Ministerioaren menpe zegoen; horregatik hartzen zituen egokitzat aginduak —ofizioz, edo Justizia Ministerioak eskatuta— edo ematen zituen zirkular nahiz instrukzioak batasun-jarduera babesteko. Aldi berean, fiskalek emandako agindu eta instrukzioak bete beharko zituzten, ados ez egonda ere.

Beste aldetik, arautze berriak jasotzen ziren, MFren legezketasun-jardueraren printzipioa aldarrikatzen zen, karrera judiziala eta fiskala banantzen ziren, eta Kontseilu Fiskala sortu zen. Azken horri hainbat funtzio esleitzen zitzaizkion: igoerei buruz informatzea; erantzukizun diziplinarioa aztertzea; gobernuaren, Justizia Ministroaren, Auzitegi Gorenaren fiskalburuaren kontsultak bideratzea, eta abar. Auzitegi Gorenaren fiskala zuen buru organo horrek.

1.3.2.2. 1931ko Errepublikako Konstituzioa. MF independentziaz hornitzeko saioa

Orain arte aztertutako arauen ezaugarri nagusia MFren gobernuarekiko menpekotasuna izan da. Ikus dezagun II. Errepublikan onartutako Konstituzioak egoera aldatzen duen.

1931ko Konstituzioa saiatu zen MFk Botere Judizialarekiko izandako menpekotasuna apurtzen. Horretarako, 104. artikulua honako hau adierazten zuen: *Ministerio Fiskalak legeak zehatz betetzea eta gizarte-interesa zainduko ditu. Kidego bakarra osatuko du eta Justizia Administrazioaren moduko independentziaren bermeak izango ditu.* Ildo beretik, 97. artikulua zioen Errepublikaren fiskal nagusia MFren ordezkari eta goiko hierarkiko zela. Hura proposatzen zion Auzitegi Gorenaren presidenteak Justizia Ministroari, Gobernu Sala eta aholkulari juridikoekin batera.

Beste alde batetik, estatutu bakarra arautzen zuen epaile, magistratu eta fiskalentzat.

Dena dela, aipatutako arau bakar batek ere ez zuen benetako birtualtasunik lortu, 1926ko Estatutu Organikoak indarrean jarraitu zuelako.

1.3.2.3. Francoren erregimenean MF arautzea. 1967ko Estatuko Lege Organikoa eta 1969ko MFren Arau Organikoa

Hasiera batean Ministerio Fiskala 1926ko Estatutu Organikoaren arabera eraentzen zen arren, instituzio hori ukitzen zuten hainbat lege onartu ziren: 1948ko abenduaren 23ko Legea eta 1967ko Estatuko Lege Organikoa (Legearen 35. artikulua, konkretuki). Lehenengoak aurreikusten zuen karrera fiskal eta judizialean sartzeko oposizio bakarra. Bigarrenak, berriz, Ministerio Fiskalaren izaera zehazten zuen. Aipatutako legearen 35. artikulua adierazten zuen MF zela gobernuaren komunikazio-organoa⁷. Izan ere, adierazpen hau *–(Gobernu eta Justizia Auzitegien arteko komunikazio-organoa)* oso kritikatu izan zen, ez baitzen argitzen komunikazio hori zertan zetzan.

1969. urteko otsailaren 27ko 437/1969 Dekretuak Ministerio Fiskalaren Arau Organikoa onartu zuen. Arau horren lerro nagusiak aztertu baino lehen, nabarmendu beharra dago gaur egun indarrean dagoela. MFEO onartzen duen 50/1981 Legearen Amaierako Xedapenak 1926ko MFEO ezeztatzen du, baina, lege horri aurka egiten ez

⁷ 35 art.: *Ministerio Fiskalaren, Gobernu eta Justizia Auzitegien arteko komunikazio-organoaren, zeregina da, Legeak zaindutako interes publikoen babesean, justiziaren ekintza sustatzea, ordena juridikoa eta gizarte-interesa asetzen saiatzea Epaitegi eta Auzitegien aurrean. Ministerio Fiskalari emandako funtzioak bere organoen bitartez gauzatuko dira, eta horiek batasun eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera antolatuko dira.*

dien kontuetan, 1969ko Araua indarrean dago. Gainera, MFEoren azken aldaketa jaso duen 24/2007 Legeak ez du ukitu xedapen hori.

Otsailaren 27ko Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoak, 437/1969 Dekretuak onartutakoak, Gobernu eta Justizia Auzitegien arteko komunikazio-organo moduan eratzen zuen MF. Arauak adierazten du menpekotasun hierarkikoaren printzipioaren arabera egituratzen dela eta argi uzten du gobernuaren menpekota dela; izan ere, gobernuak askatasunez hautatzen du fiskal nagusia 24. artikulua zehaztutako baldintzak betetzen dituzten artean eta, gainera, karrera fiskalaren kideen kargutik kentzea erabakitzen da, Justizia Ministroaren proposamen-dekretuaren bitartez.

Arauak MFren funtzionamendu eta antolaketari buruzko hainbat alde arautzen ditu. 92. artikulua estatuaren fiskal nagusiari eta fiskalburuei esleitzen die beren menpekoek egindako kontsultak (auzi zehatzei buruzkoak) erabakitzea. Auzi berean, fiskal batzuek parte hartzen dutela kontuan hartuta eta batasun-jardueraren printzipioa bermatzeko, ofizialki egindako eskaerek eta emandako iritziek behartzen dute etorkizunean funtzionarioa irizpide berei jarraitzera –(94.2 artikulua). Irizpide hori aldatu ahal izateko fiskalburuari kontsultatu beharko zaio. Ildo horretatik, 116. artikulua akusazio-idazkien proiektuen fiskalburuaren oniritzia, ikuskatzea eta zuzenketa jasotzen ditu.

Arauaren 108. artikulua xedatzen du fiskalburuek zerbitzuak antolatuko dituztela eta lanaren banaketaz arduratuko direla. Horrez gain, saiatuko dira banaketa hori bidezkoa izaten eta, horregatik, egoki deritzen fiskalari esleitzen ahal diote gai bat, nahiz eta berez hari ez egokitu.

Fiskalburuek, gainera, auziak bideratu eta garrantzia handiagoko epaiketetara joan beharko dute (kontuan harturik egokia den zigorraren larritasuna, gizarte-alarma, ordena publikorako arriskua, eta abar) (109. art.).

1.4. Ministerio Fiskalaren garapen historikoaren ezaugarri nagusiak

Orain arte aipatutako xedapenak aztertzen baditugu, MFren ezaugarri hauek ondoriozta daitezke:

- a) Gobernuarekiko menpekotasuna. Aurreko lerroetan argi utzi da MFk gobernuaren menpe jardun duela urte askoan (gogora dezagun bai 1967ko Estatuko Lege Organikoak, bai 1969ko MFEOk *Gobernu eta Justizia Auzitegien arteko komunikazio-organo* moduan definitzen dutela). Eta horrek MFren instrumentalizazio politikoa dakar, Botere Exekutiboak esku hartzea posible delarik. Hainbat kasutan, gobernuak MF erabili du estatuaren interes politikoak asetzeko.
- b) Batasun- eta hierarkia-printzipioen menpe antolatzen da.
- c) MFren funtziorik garrantzitsuena da akusazio publikoa aurrera eramatea prozesu penalean, prozesu penal horren izaera akusatzaile formala izanik. Instrukzioko epailearen esku-hartzea oinarrizkoa da sumarioko fasean; beraz, prozesu penalean hasieratik eman ziztaion fiskalari sumarioa ikuskatzeko funtzioa. Fase horretan, fiskalek instrukzioko epaileek delitu publikoengatik egindako sumarioak ikuskatzen dituzte, gauzatu ez diren eginbideak eskatzen dituzte, eta baita sumarioaren amaiera ere. Funtzio formalak ditu, praktikoak baino gehiago; horrek ez du prozesua zuzentzen.
- d) Ministerio Fiskalaren kideak karrerako funtzionarioak dira, baina judikaturarekin oso lotetsita daude.

2. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALA 1978KO ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN

2.1. Ministerio Fiskalaren oinarria: EKren 124. art. 2.2. EKren 124. artikulua garapena: 1981eko Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa. 2.3. 1981eko Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoaren erreformak. 2.3.1. Martxoaren 24ko 5/1988 Legea. 2.3.2. Apirilaren 24ko 10/1995 Legea. 2.3.3. Abenduaren 22ko 9/2000 Legea, Justizia Administrazioa bizkortzeko premiazko neurriei buruzkoa. 2.3.4. Abenduaren 28ko 12/2000 Legea. 2.3.5. Maiatzaren 26ko 14/2003 Legea. 2.3.6. Abenduaren 23ko 19/2003 LO. 2.3.7. Abenduaren 28ko 1/2004 LO, genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriak arautzen dituena. 2.3.8. Apirilaren 26ko 2/2006 Legea. 2.3.9. Urriaren 9ko 24/2007 Legea. 2.4. Ondorioak.

2.1. Ministerio Fiskalaren oinarria: EKren 124. art.

MFren gaur egungo egoera aztertzen hasteko Konstituzioaren 124. artikulua hartuko dugu oinarri:

EKren 124.1 art.: *Ministerio Fiskalak, beste organo batzuei emandako eginkizunak deusetan galarazi gabe, justiziaren ekintza sustatu behar du, legezkontasun, herritarren eskubide eta legeak zaindutako interes publikoaren babesean, bai ofizioz bai interesatuek eskaturik; orobat, auzitegien independentzia begiratzeko eta horien aurrean gizartearen interesa asetzen saiatu behar du.* BJLOren 541. artikulua, berriz, aurreikusten du Konstituzioaren atal horretan esandakoa, eta MFren egitekoa nabarmentzen du: *legezkontasunaren ordezkari izatea eta legezkontasuna babestea.*

2. atalak honela dio: *Ministerio Fiskalak, organo propioen bitartez, bere funtzioak egikaritzen ditu batasun-jardueraren eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera eta, edozein kasutan, legezkontasun eta inpartzialtasunari lotuta.*

3. atalak, berriz, honela dio: *Legeak arautuko du Ministerio Fiskalaren estatutu organikoa.*

Amaitzeko, 4. atalak honako hau aurreikusten du: *Erregeak izendatuko du estatuaren fiskal nagusia, gobernuaren proposamenean, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari entzun ondoren.*

Konstituzioak MF definitzen du Botere Judizialaren barruko instituzio moduan; Botere Judizialean integratzen da, Konstituzioak esleitutako funtzioak funtzio-autonomiaz betetzeko.

1978ko Konstituzioak Ministerio Fiskalak Botere Judizialarekiko duen hurbiltasuna indartzen du. Horren adierazpena da EK-k VI. titularen (*Botere Judizialaz*) barruan aurreikusten duela MF. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi aurreko tradizioarekin (hau da, MF gobernuaren menpeko izatearekin) apurtzen denik; izan ere, gobernuaren eta MFren arteko lotura hori mantendu egiten da. Gorago ikusi denez, EFN Erregeak izendatzen du gobernuaren proposamenean eta BJKNri entzun baino ez zaio egiten.

2.2. EKren 124. artikularen garapena. 1981eko Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa

Abenduaren 30eko 50/1981 Legeak onartzen du Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa. Lege horrek MFren jarduteko eremua eta funtzioak zabaltzen ditu lau ordena jurisdikzionaletan, legezketasunaren babesle moduan.

MF bakarra da estatu osoan eta irizpide-batasunez jarduten du, batasun-jarduera printzipioaren ondorioz. Izan ere, batasun horri eutsi ahal izateko MFk egitura piramidal eta hierarkikoa dauka, non EFNk aginduak eta instrukzioak ematen ahal baitizkie menpekoei.

Haren izaerari dagokionez (eta lehen adierazi dugunez), MF Botere Judizialari atxikia geratzen da. Beraz, Botere Exekutibotik kanpo uzten da, horrela Ministerio Fiskalaren independentzia eta inpartzialtasuna bermatzeko asmoz, eta gobernu eta

auzitegien arteko komunikazio-organo izateari utziz⁸. Hortik aurrera MF legearen ordezkari izango da, legezkotasun-printzipioaren ondorioz.

Edozein kasutan, MFk bere funtzioak betetzen ditu legezkotasun eta inpartzialtasunaren printzipioen menpe. Horrek independentzia ematen dio estatuaren hiru botereen aurrean. Horiekin duen harremanari dagokionez, hau esan genezake:

- a) Lehenik, eta Botere Judizialaren ikuspuntutik, MF guztiz independentea da (nahiz eta Botere Judizialean funtzionalki integratuta egon).
- b) Bigarrenik, hasieran gobernuaren menpe jarduten duela dirudien arren, ez da horrela gertatzen. Badakigu gobernuak proposatzen duela MFN; hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi gobernuak zuzeneko agindurik ematen ahal diionik. Gobernuak ezin diio EFNri zuzeneko agindurik eman, baizik eta, kasua denean, jakinaraziko dizkio (legeak *interesar* aditza erabiltzen du) egokitzat hartzen dituen akzioak, susta ditzan; EFNk, Salako Fiskalen Kontseilua entzunda, jakinarazitako akzioen egokitasunari buruz erabakiko du. Beraz, gobernuaren iritzia ez da loteslea⁹. Bestalde, horri gehitu behar zaio MFk ofizioz edo interesatuek eskatuta jarduten duela, baina ez gobernuak aginduta. Amaitzeko, eta aurrekoaren harira, Erregeak MFren ordezkaria (EFN) izendatzean estatuaren organo bihurtzen du, eta ez Botere Exekutiboarena.
- c) Azkenik, MFk Botere Legegilearekin dituen harremanak mugatzen dira urteko memoria egitera eta auzi konkretu bati buruzko informazioa emateko bere agerpena eskatzera.

2.3. 1981eko Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoaren erreformak

1981. urtean MFEO onartu zenez geroztik, asko izan dira hura erreformatzeko emandako legeak.

⁸ Dena dela, Konstituzioaren aurreproiektu eta proiektuaren lehenengo idazketan aurreko tradizioari eusten saiatu zen; hau da, MF gobernu eta auzitegien arteko komunikazio-organo moduan eratzen zen.

⁹ Autore batzuen ustez gobernuaren ahalmen hori ezin da gobernuaren injerentzia moduan hartu, “koordinazio- edo kolaborazio-sistema” moduan baino, “estatuko hainbat organoren funtzionamendu armonikorako”. PÓRFILO TRILLO NAVARRO, J., *El fiscal en el nuevo proceso penal. Estatuto Orgánico del Ministerio Fiscal. Reforma 2007*, Comares, Granada, 2008.

2.3.1. Martxoaren 24ko 5/1988 Legea

Lege honek Fiskaltza Berezia sortu zuen legez kontrako droga-trafikoaren prebentzio eta errepresiorako; MFEOren 18 *bis* artikuluan zegoen araututa. Gaur egun 19.3 artikuluan dago araututa Drogen Aurkako Fiskaltza Berezia.

2.3.2. Apirilaren 24ko 10/1995 Legea

Aurrekoak bezala, lege honek ere beste Fiskaltza Berezi bat sortu zuen: Ustelkeriarekin lotutako Delitu Ekonomikoen Errepresiorako Fiskaltza, MFEOren 18 *ter* artikuluan araututakoa.

Fiskaltza Berezi horren funtzioen artean bat ikerketa penalaren eginbideak gauzatzea da (gaur egungo MFEOren 19.4 artikulua araututa). Garrantzi handiko prozesuetan parte hartzen du; hala nola, herri-ogasunaren aurkako prozesuak, kontrabandoak, kanbio-kontrolak, prebarikazioak, informazio pribiligiatuaz abusatzea eta erabiltzea, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, iruzurra eta legearen aurkako ordainarazpena, eragimen-trafikoak, funtzionario-eroskeria, funtzionarioek debekatuta dituzten negozioak, iruzur egitea, zigor daitekeen kaudimen-gabezia, jendaurreko lehiaketa eta enkanteen prezioak aldatzeko prozesuak.

2.3.3. Abenduaren 22ko 9/2000 Legea, Justizia Administrazioa bizkortzeko premiazko neurriei buruzkoa

Lege horren bitartez 1985eko BJLO aldatu zen (42. artikulua, beste batzuren artean), oposizio bakarra ezarriz karrera judizial eta fiskalean sartzeko.

2.3.4. Abenduaren 28ko 12/2000 Legea

2000. urtean MFEO berriz aldatu zen, urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, adingabeen erantzukizun penala arautzen zuenak eskatzen zituen beharrezko aldaketak egin ahal izateko. Horren ondorioz, adingabeen atalak sortu ziren Fiskaltzen barruan.

2.3.5. Maiatzaren 26ko 14/2003 Legea

Aipatutako araua 2001eko maiatzaren 28ko Justizia Erreformatarako Estatu-Itunaren ondorioetako bat izan zen. MFEOren garrantzizko erreforma ekarri zuen. Ildo horretatik, MFk prozesuan parte hartzea arautu zuen, agerpenaren bitartez, idatziz edo teknologia-baliabideen bitartez –(MFEOren 3. art.). Beste funtzio bat ere esleitu zitzaion MFri: biktimen babes prozesala zaintzea, laguntza eta benetako asistentzia lortzeko aurreikusitako baliabideak sustatuz –(MFEOren 3.10 art.).

Arau berriak sortu ziren MFren prozesuaren aurreko jarduerari buruz. Izan ere, sei hilabeteko gehienezko epea (luzagarria) ezarri zen, prozesu penalaren aurreko MFren ikerketa-eginbideen arau berri horien artean –(MFEOren 5. art.).

Horretaz gain, EFNk Gorte Orokorren aurrean urteko memoria aurkeztu beharra arautu zen –(MFEOren 9. art.).

EFNri zuzeneko laguntza emateko laguntza-unitatea sortu zen –(MFEOren 13. art.). Unitate horrek laguntza teknikoa ematen dio EFNri, hainbat materiaren inguruan: informatika nahiz estatistikari buruzko kontuetan, eta abar.

Kontseilu Fiskalaren osaera berria zehaztu zen. Hamabi kidez osatu zen: haietariko hiru natoak —EFN, Auzitegi Gorenaren presidentea eta fiskal ikuskatzailea—, eta karrera fiskalaren bederatzi kide demokratikoki lau urterako hautatuak. Funtzio berriak esleitu zitzaizkion: meritu eta diziplina espedienteak erabakitzea, esaterako (MFEOren 14. art.).

Era berean, Burutzaren Ordezkarria sortu zen –(MFEOren 22 art.). Gainera, Fiskaltza Batzordeei beste batzuk gehitu zitzaizkien: atalekoak, Burutza Ordezkariak, Justizia Auzitegi Nagusietako fiskalburuena, eta ez-ohikoak –(MFEOren 24. art.).

Izendapen askez beteko ziren postuen kopurua handitu zen (hau da, gobernuaren izendapenaren bitartez, EFNren alde aurreko txostena emanda). Horrekin batera gehitzen ziren Justizia Auzitegi Nagusien teniente fiskalak eta fiskalburua lehenengo kategoriakoa duten organo guztietako plantilla osatzen duten fiskalak –(MFEOren 36. art.).

Fiskalburuen karguaren bost urteko iraupena ezarri zen –(MFEOren 41. art.), eta diziplinazko erregimen berria arautu zen –(MFEOren 62. eta 67. art.).

Amaitzeko, MFEO garatzen duen araua onartzeko sei hilabeteko epea ezarri zen.

2.3.6. Abenduaren 23ko 19/2003 LO

2003. urtean bigarren aldaketa bat egin zen. Orduko hartan 2. xedapen gehigarria sartu zen, MFren informazio-sistema eta komunikazio elektronikoen sare integratua arautu zuena. EFNk kudeatzen ditu horiek.

2.3.7. Abenduaren 28ko 1/2004 LO, genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriak arautzen dituen.

Lege honen bitartez zehaztu ziren Salako Fiskal Ordezkarien funtzioak, emakumearen aurkako indarkeriari dagokionez. Burutzaren fiskal delegatuei esleitzen zaizkie genero-indarkeria, ingurumen eta espetxeratuen zaintzari buruzko zuzentze- eta koordinazio-funtzioak.

Aldi berean, legeak berak aldatu zuen 1985eko BJLO, eta 3. xedapen gehigarria sartu zuen, Auzitegi Gorenaren fiskal emerituak arautzeko.

2.3.8. Apirilaren 26ko 2/2006 Legea

Honek azaroaren 21eko 43/2003 Legea, mendiena, aldatu zuen. Aldi berean, MFEOren 18.1 artikulua ere aldatu zuen. Hala nola, Justizia Auzitegi Nagusi eta Probintzia Auzitegien fiskaltza bakoitzean adingabeen, emakumearen aurkako indarkeriaren, ingurumenaren atal eta lurraldearen ordenazioen, ondare publikoen, baliabide naturalen, flora, fauna, etxabere, eta baso-suteei buruzko delituetan espezializatuak. Salako Fiskal Ordezkarien funtzioak zehaztu ziren.

2.3.9. Urriaren 9ko 24/2007 Legea

2007. urtean egindako erreformak MFren eraketa organiko eta lurraldeko berria aurreikusten du; horrela sortzen ditu fiskal-dekanoak, autonomia-erkidegoko fiskal nagusiak, Probintzia eta Saileko Fiskaltzak, atal espezializatuak, Lurraldeko Fiskaltzak, fiskal nagusien batzordeak, Koordinazio Batzordea eta Atal Batzordea.

Bestalde, estatuko fiskal nagusiari dagokionez, lau urteko legezko epea amaitu baino lehen kargu-uztearen zioak zehazten dira: eskaera propio, legezko bateraezintasuna edo galarazpena, karguan jarduteko ezgaitasuna edo gaitasunik gabe uzten duen gaixotasuna, funtzioak ez-betetze larria edo errepikatua, eta izendatu zuen gobernuaren ahamaitzea.

2.3.10. Ondorioa

Ikusi dugunez, aldaketa asko egin dira 1981. urtean MFEO arautu zenetik; hala eta guztiz ere, gaur egun indarrean dago 1969ko MFren Arau Organikoa, estatutuaren kontra ez dagoenari dagokionez. Aipatutako Arau Organikoa Konstituzioaren aurrekoa da eta gobernuaren menpeko MF arautzen du; ez du zerikusirik EKren 124. artikulua eta 1981eko MFEOk jasotzen dutenarekin. Izan ere, MFEOren 1. amaierako xedapenak ahalmena ematen zion gobernuari lege hori garatuko zuen araua onartzeko (Justizia Ministroaren proposamenean).

Horrez gain, 14/2003 Legeak ere araua onartzeko sei hilabeteko epe bat aurreikusi bazuen ere, oraindik ez da gauz

3. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN IZAERA

3.1. Ministerio Fiskalaren izaera EKren eta MFEOren ikuspuntutik. 3.2. Ministerio Fiskalaren autonomia. 3.3. Ministerio Fiskalaren harremana estatuaren gainerako botereekiko. 3.3.1. Botere Exekutiboarekiko menpekotasuna. 3.3.2. Botere Legegilearekiko harremana. 3.3.3. Botere Judizialarekiko harremana: integrazioa. 3.4. Ondorioak.

3.1. Ministerio Fiskalaren izaera EK eta MFEOren ikuspuntutik

Aurreko lerroetan ikusi dugunez, 1978ko Konstituzioa onartu aurretik MFk zuzeneko menpekotasuna zuen Justizia Ministerioarekiko, eta gobernuak instrukzioak zuzentzen ahal zizkion. 1978. urtean konstituziogileak MFren hiru modeloren artean hautatu behar zuen:

- Aurreko garaiaren modeloa. MF Botere Exekutiboaren menpe zegoen. Izan ere, horixe zen 1969ko MFEOk eta hura garatzen zuen arauak osatu zuten modeloa. Kontuan hartu behar da gaur egun oraindik indarrean dagoela arau hori – (1981eko MFEOren kontra ez dagoenari dagokionez); arau berririk ez da oraindik onartu.
- Modelo parlamentarioa. Kasu honetan Gorte Orokorrek izendatu beharko lukete EFN. Beraz, modelo honetan MF erantzule izango litzateke parlamentuaren aurrean. Horrela, indartuta geratuko litzateke MFk duen legezketasunaren babesaren funtzioa.
- Botere Judizialaren barruan integratuta dagoen MFren modeloa. Modelo honetan MF bananduta dago Botere Exekutibotik. Gobernuak ezin dio MFri instrukziorik eman.

Hiru horien artean Konstituzioak –(MF bere *Botere Judizialaz* VI. tituluaren barruan aurreikustean) hirugarrena bereganatzen duela dirudien arren, ez dago esaterik MF Botere Judizialaren barruan guztiz integratuta dagoenik. Gero ikusiko dugunez, MFk ez du apurtu historikoki Botere Exekutiboarekin lotzen zuen harremana; mugak ez daude

guztiz zehaztuta. Beste hitz batzuetan, MF ez dago gobernutik guztiz bananduta. Beraz, azkenean, hautatuko modeloa anbigua izan dela esan daiteke, hain zuzen ere, trantsizio politikoaren ondorio.

Nabarmentzekoa da MF ez dela Botere Judizialaren partaide eta, berez, ezin dela hartu eratutako boteretzat. Ez dugu ahaztu behar MFri ez dagokiola ahalmen juridikzionalik. Lan honetan zehar aztertzen diren MFren estatutu pertsonala eta funtzioak aintzat harturik, esan genezake haren izaera lotuta dagoela Botere Exekutiboarekin eta interes orokorrak babestearekin. Izan ere, gobernuak berak zehazten du zein diren interes orokor horiek (ikus EKren 97. art.). Argi dago interes orokorrak legearen arabera zehazten direla, baina, dena dela, horrek jarduteko tarte zabala ematen dio gobernuari interes orokorarentzat onena dena zehaztu ahal izateko. Ildo horretatik, MF agertzen da kasuz kasu interes orokorrak defendatzeko. Beraz, baieztatu genezake MFk izaera politikoa duela, azken finean, Justizia Ministerioaren bitartez gobernuaren menpe jarduten duelako.

Ikuspuntu horretatik, kontuan hartu beharko genuke MFEOk 8 eta 11 bitarteko artikuluetan aurreikusten duena –(artikulu horietan zehazten da Ministerio Fiskalak botere publikoekin duen harremana). MFk auzitegietara eramaten ditu gobernuari aurkeztutako arazoak eta nahiak; beste hitz batzuetan esanda, gobernuaren bitarteko moduan jarduten du.

Beraz, ez dauka zentzurik MFren independentziari buruz hitz egiteak. MFk gobernuaren aginduak jasotzen ditu, eta zehaztu daitezke agindu horien legezkotasuna bermatzeko bideak –(ildo horretan, MFEOren 8.2, 11., 25. eta 27. art.). Ministerio Fiskala jarduteko independentea dela esango bagenu, aldi berean onartuko genuke interes publikoa kasuz kasu zehazten dela funtzionario administratibo baten bitartez.

Hala eta guztiz ere, gauza bat da gobernuak Ministerio Fiskalaren jarduera zehaztea eta, beste bat, MF interes alderdikoekin erabiltzea. Izan ere, EFNk estatuarena izan behar du, eta ez boterea duen alderdiarena. Baina, zoritxarrez, azken bolada honetan ez da horrela gertatu eta, horren ondorioz, fiskala independentzia eta Botere Judizialaren barruan sartzea aldarrikatzen hasi da.

3.2. Ministerio Fiskalaren autonomia

24/2007 Legearen ondorioz MFEOren 2. artikulua aurreikusten du MF *pertsonalitate juridiko propioa duen garrantzi konstituzionaleko organoa* dela. Hau da, MFEOk berak esleitzen dio MFren *pertsonalitate juridiko propioa*.

Ildo horretatik, aintzatespen hori oso garrantzitsu gerta daiteke. MFri *pertsonalitate juridikoa* aintzatestea lehengo pausoa izan daiteke, hark garrantzi sozial handiko kasuetan parte hartu ahal izateko, haustea gertatu aurretik: urbanismo, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa, besteak beste, publizitate eta kontratazioaren baldintza orokorren kasuetan.

MFk hiritarren interesak eta eskubideak babesten baditu, ulertzekoa litzateke, prozesu penaletan jarduteaz gain (non funtziorik garrantzitsuenak burutzen baititu), hark gizarte- eta legegintza-kontuetan parte hartzea; bai udal-korporazio mailan, bai autonomia-erkidegoen Gobernu Kontseilu eta Legebiltzarraren mailan. Horrela, MFk ahalmena izango balu kontu horietan parte hartzeko, saihestu egingo lirateke hiritarren eskubideak edo interesak kaltetzen dituzten egintzak eta xedapenak, prozesu penala hasten den unera arte itxaron beharrean. MFren alde aurreko parte-hartzea aintzatetsita, hainbat delituri aurrea hartuko litzaioke; adibidez, gizartean ondorio larriak izan ditzakeen lur-zoruaren berkalifikazio batean, prebarikazio-delitua saihas liteke proposamena, erabaki baino lehen, MFri helaraziz.

3.3. Ministerio Fiskalaren harremana estatuaren gainerako botereekiko

Aurreko lerroetan adierazi dugunez, MF konstituzio-organoa da. Izan ere, izaera juridiko horrek baldintzatzen ditu MFren legezko araudia, eraketa, funtzioak eta funtzionamendua.

Konstituzioa onartzeko unean, MFren zehaztasuna saihestu eta irtenbide adostu bat bilatu zen; horrela, ez zen baldintzatu alde aurretik EKren 124.3 artikulua estatutu eta arauaren bitartez ondorengo garapena.

Beraz, azter dezagun MFk gainerako botereekin duen harremana, gero haren eraketa, funtzioak eta funtzionamendua ulertu ahal izateko.

3.3.1. Botere Exekutiboarekiko harremana

Ukaezina da Botere Exekutiboarekiko MFk duen menpekotasuna. Baina menpekotasun hori hainbat eratan jartzen da agerian: alde batetik, era absolutuan, zuzenean, eta, bestetik, zeharka. Ikus ditzagun horren adierazpenak.

1978ko Konstituzioa onartu arte, MFk zuzeneko menpekotasuna zuen Justizia Ministerioarekiko. Menpekotasuna zuen instituzio demokratikoen zilegitasunean eta erantzukizunaren eskaeran. Izan ere, politika kriminalaren erantzulea Botere Exekutiboa denez, bera izango da legitimatua MFren jarduera zuzentzeko ere. Beraz, MF konstituzio-organo bihurtzen da, baina gobernuaren politika kriminala bideratu ahal izateko; hau da, gobernuaren politika kriminalaren instrumentua da.

Dena dela, gaur egun guztiz gaingaituta dago teoria hori, eta autore gehienek diote Botere Exekutiboarekiko harremana beharrezkoa bada ere, horrek ez duela murriztu behar bere inpartzialtasuna.

Argi dago beharrezko dela Botere Exekutiboaren eta MFren arteko harremana (esan dugunez, gobernuaren politika kriminala betearazteko bidea da). Are gehiago, 1978ko Konstituzioak menpekotasun hori onartzen du haren 124.4 artikularen bitartez¹⁰. Horrek dioenaren arabera, Erregeak izendatzen du EFN, gobernuaren proposamenean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia entzun ondoren¹¹ (haren iritzia ez da loteslea). Horrek esan nahi du EFNren bitartez egiten dela MFren eta Botere Exekutiboaren arteko lotura.

¹⁰ EKren 124.4 art.: *Erregeak izendatuko du estatuaren fiskal nagusia, gobernuaren proposamenean, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusia entzun ondoren. Ildo horretatik, ikus MFEoren 29.1 art.*

¹¹ Hemen kontuan hartu behar da EFN izendatzeko Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrari entzutea beharrezkoa bada ere, hori ez dela gertatzen kargutik kentzerakoan. Hori ere gobernuaren askatasunaren beste adierazgarri bat da.

Baina hori ez da Botere Exekutiboarekin duen lotura bakarra. Gaur egun gobernua MFri agindurik eman ezin badio ere, EFNri jakinarazten ahal dio (*interesatu* aditza erabiltzen da) interes publikoa, defentsarako akzio egokiak egikaritzeko¹². Era berean, autonomia-erkidegoetako gobernu-organismoek ere *eskatu* ahal dute autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiaren jarduera¹³. Kasu horretan, EFNri jakinaraziko zaio eta egokia dena erabakiko du, Salako Fiskalen Batzordea entzun ondoren.

Bestalde, gobernua askatasunez ken dezake kargutik organo bakoitzaren fiskalburua, EFNren proposamenaren arabera. Era berean, autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiak ere proposatu ahal izango dio EFNri gobernua bere lurralde-eremuko organoen fiskalburuak kargutik kentzea¹⁴. Azken aukera hori da 24/2007 Legeak egindako erreformaren ondorioa.

Baina non oinarritzen da Botere Judizialak EFNren eta gainerako goi-karguen gainean duen kontrola? Autore batzuen ustez (menpekotasunaren ideari eusten diotenen ustez), diskrezionaltasun hori ideia honetan oinarritzen da: konfiantzako karguak izatea, eta gobernuak izatea zuzeneko erantzulea MFren jarduerak arazoak dakartzan kasuetan. Erantzukizun hori Diputatuen Kongresuaren aurrean araztu beharko litzateke. Baina, ez dugu ahaztu behar gobernuak duela gehiengo parlamentuan.

1981eko MFEO onartu baino lehen, Justizia Ministerioak zuzeneko aginduak eta instrukzioak ematen ahal zizkion MFri; horretaz gain, jasotako agindu edo instrukzioekin bat ez bazetorren, fiskala kargutik kendu zitekeen. Beraz, une hartan ulertzekoa zen MFren menpekotasuna. Baina 1978ko Konstituzioa onartu ondoren (lehen esan dugunez) gobernuak ezin zien fiskalei agindurik bidali, gobernuak *eskatu* baino ezin zuen egin.

¹² MFEOren 8.1 art.: *Gobernuak estatuaren fiskal nagusiari interesatu ahal izango dio, auzitegien aurrean interes publikoaren defentsarako jarduera egokiak egikaritzea.*

¹³ MFEOren 11.1 art.: *Bere eskumen-eremuaren barruan eta autonomia-erkidegoetako gobernu-organismoek interes publikoaren babesean Ministerio Fiskalaren jarduera interesatzen dutenean, Justizia Ministerioari jakinarazita, autonomia-erkidegoaren fiskal nagusiari zuzenduko zaizkie; estatuaren fiskal nagusiari jakinaraziko diote, eta hark, Salako Fiskalen Batzordea entzun ondoren, egokia dena erabakiko du, edozein kasutan legezkoasun-printzipioaren menpe.*

¹⁴ MFEOren 41.5 art.: *...organo bakoitzaren fiskalburuak [...] gobernuak kendu ahal izango ditu kargutik, estatuaren fiskal nagusiaren proposamenera; aldeztu aurretik entzun beharko ditu, ordea, Kontseilu Fiskala eta interesatua eta, bere kasuan, baita autonomia-erkidegoaren fiskal nagusia ere. Autonomia-erkidegoaren fiskal nagusiek ere proposatu ahal izango diote estatuaren fiskal nagusiari beren lurralde-eremuko fiskalburuak gobernuaren kargutik kentzea.*

Konstituzioaren aurreko MFren menpekotasuna eta instrumentalizazioa gero eta txikiagoa bada ere, gaur egun oraindik politikak eragin handia du MFk izendatzean eta kargutik kentzean. Izan ere, orain arte –(2007ko erreforma egin arte) gobernuan zegoen alderdi politikoak askatasun osoz erabaki ahal izan du EFNk kargutik kentzea, eta horiek gobernuaren aldaketarekin batera edo MFren jardueraren desadostasunagatik gauzatu dira. Gauza bera gertatu da karrera fiskalaren goi-mailako karguekin.

Aurreko kapituluan adierazi dugunez, MFEO aldatzen duen 24/2007 Legeak, lau urteko legezko epea amaitu baino lehen, EFN kargutik kentzearen zioak jasotzen ditu: a) eskaera propioa; b) legezko bateraezintasuna eta galarazpenak; c) karguan jarduteko gaitasunik gabe uzten duen ezgaitasun edo gaixotasuna; d) funtzioak ez-betetze larria edo errepikatua; e) kargurako proposatu zuen gobernua amaitzea. Baina azken zioari dagokionez izan ezik, beste kasu guztietan Ministroen Kontseiluak balioetsiko du. Horrek (hainbat autoreren ustez) oportunitatea eta egokitasun politikoa ekar ditzake, apreziazio edo balioespen hori gobernuak berak erabaki dezakeelako inoren proposamenik gabe (a) zioa denean izan ezik).

Ikuspuntu horretatik, EFN eta goi-mailako kargu fiskalak izendatzeko eta kargutik kentzeko irizpide arautuak eta Kontseilu Fiskalaren txostenaren lotura¹⁵ arautuko balira, MFren inpartzialtasuna indartuko litzateke eta, era berean, orain arte mantendu den MFren Botere Judizialarekiko menpekotasuna apurtuko edo, gutxienez, murriztuko litzateke.

3.3.2. Botere Legegilearekiko menpekotasuna

Autore batzuek¹⁶ MFren Botere Legegilearekiko menpekotasunaren egokitasunari eusten diote; MFk akzio penala egikaritu ahal izateko zuzeneko legitimitatea ematen diola argudiatzen dute. Gorte Nagusiak izanik herri-ordezkapen organoa, horrek ematen

¹⁵ Kontuan hartu behar dugu Kontseilu Fiskala karrera fiskalaren kideak ordezkatzen dituen organo demokratikoa dela.

¹⁶ Haien artean, MARCHENA GÓMEZ, M., eta ROIG BUSTOS, L. Ikus MARCHENA GÓMEZ, M., *El Ministerio Fiscal: su pasado y su futuro*, Marcial Pons, Madril, 1992, 185 or. eta ROIG BUSTOS, L., “Por fin un Fiscal del estado de designación parlamentaria”, *Revista de Jueces para la Democracia*, 18 zk., 1993ko urtarrila, 25 or.

dio MFri prozesuetan jarduteko zuzeneko ahalmena. MFk legezketasun-printzipioaren menpe jarduten du¹⁷, eta legezketasuna babestea da bere jardueraren helburua; baina printzipio hori indartzeko, legezketasunaren iturriak (hau da, Botere Legegileak) EFNren izendapenean parte hartu beharko luke¹⁸. Beste hitz batzuetan esanda, horrela, MFren Botere Legegilearekiko menpekotasuna arrazoituta egongo litzateke eta horren instrumentalizazio politikoa saihestuko litzateke.

Gaur egun, Botere Legegilearekiko harremanaren adierazpenak aurki daitezke, bai 1978ko Konstituzioan bai MFEOn:

- a) Hasteko, EFNk urteko memoria aurkezten dio gobernuari, eta horren kopia bat Gorte Nagusiei eta Botere Judizialari. Memoria horretan hainbat datu jasotzen dira: jarduera, kriminalitatearen eboluzioa, zuzendu beharreko hutsuneak, justiziaren erreformak proposatzea, eta abar. Beraz, ulertzekoa da Botere Legegilearen aurrean horrelako memoria bat aurkeztu behar izatea; azken finean, txostenean justizia hobetzeko erreformen proposamenak jasotzen badira, bera izango da erreforma horiek eta beharrezko aurrekontuak onartzen dituenak.
- b) Bestalde, EKren 76. artikulua arautzen ditu ikerketa-batzorde parlamentarioak. Batzorde horien bitartez lortutako emaitzak MFri jakinarazten ahal zaizkio, egokiak diren akzioak auzitegien aurrean egikaritu ahal izateko.

3.3.3. Botere Judizialarekiko harremana: integrazioa.

MFk Botere Judizialarekin duen harremanari buruz mintzatzen hasi ahal izateko, kontuan hartu behar dugu MFEOn 2. artikulua: *Ministerio Fiskala pertsonalitate juridiko propioa duen garrantzizko konstituzio-organoa da, Botere Judizialean integratua funtzio-autonomiaz; organo propioen bitartez egikaritzen du bere egitekoa, batasun-jarduera eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera eta, edozein kasutan, legezketasun eta inpartzialtasunarekin lotuta.*

¹⁷ Kontuan hartu EKren 124.2, 9.1 eta 3. art.

¹⁸ Horrela defendatzen du (beste autore batzuen artean) MARCHENAK. Ikus MARCHENA GÓMEZ, M., *El Ministerio Fiscal: su pasado...op.cit.*, 194 or.

Artikulu horrek Botere Judizialaren barruan MFren integrazioa aintzatesten du: *Botere Judizialean funtzio-autonomiaz integratuta*. Baina horretaz gain, badaude MFren araudiaren barruan haren integrazioaren adierazpentzat har litezkeenak¹⁹:

- a) Hasteko, MFk Justizia Administrazioan jarduten du, egokiak diren akzioak egikaritzuz auzitegien aurrean. MFk justiziaren ekintza sustatu behar du, legezketasun, herritarren eskubide eta legeak babestutako interes publikoaren babesean; orobat, auzitegien independentzia eta haien aurrean gizartearen interesa zaindu behar ditu²⁰.
- b) Konstituzioaren barruan duen kokapenak berak ere integrazioa adierazten du: MF Konstituzioaren VI. tituluaren (*Botere Judizialaz*) barruan dago jasota. Ildo berekoa da MFEoren 2. artikulua, MFren integrazioa indartzen duena; izan ere, 24/2007 Legearen erreformak integrazio horri eusten dio. BJLOk, bere aldetik, EKren 124. artikulua adierazpen berdina egiten du.
- c) Epaileek eta magistratuek bezala²¹, fiskalek ere legezketasun eta inpartzialtasun printzipioen menpe jarduten dute. Gainera, MFEoren 7. artikulua gehitzen du MFk objektibotasunez eta independentziaz jarduten duela (epaile eta magistratuen antzera). MFk auzitegien aurrean babesten ditu legezketasuna, herritarren eskubideak eta legeak zaindutako interes publikoa; horregatik, batzuetan, *magistratura eskatzaile* deritza MFri. Inpartzialtasunaren ikuspuntutik, MF prozesuko alderdi huts bat baino gehiago da; lehen esan dugunez, legezketasuna babesten du, baina objektibotasunez eta independentziaz. MF, prozesuan aritzen denean, ez dabil interes partikularren eskean, interes publikoaren eske baino. Autoreek bereizi egiten dute epaile eta magistratuen jarduera fiskalaren jardueratik: epaile eta magistratuek *magistratura erabakitzalea* osatzen dute; fiskalek, aitzitik, *magistratura eskatzaile*²². Baina MFren jarduera ez da mugatzen prozesuan alderdi moduan jardutera; baizik eta batzuetan txostenak aurkezten ditu, beste batzuetan entzun

¹⁹ PÓRFILO TRILLO NAVARROk Botere Judizialaren barruan MFa integratzearen argudioak adierazten ditu. PÓRFILO TRILLO NAVARRO, J., *El fiscal en el nuevo proceso penal*, Comares, Granada, 2008, 37-42.

²⁰ Gaur egun, MFren egitekoen artean ez da aurreikusten Botere Exekutiboaren interesa defendatzea auzitegien aurrean, ezta ogasun publikoarena ere. Gaur egun ezin da esan MFa gobernuaren komunikazio-organoa denik auzitegiaren aurrean.

²¹ Horrela adierazten dute EKren 117.1 eta BJLOren 1. artikuluek.

²² PÓRFILO TRILLO NAVARRO, J., *El fiscal en el nuevo...*, op cit., 39 or.

- egin behar zaio (prozesuan adingabeen, ezgaituen eskubideak ukitzen direnean, eta abar).
- d) Era berean, oposizio bakarra aurreikusten da karrera judizialean eta fiskalean sartzeko –(BJLOren 306. eta MFEOren 42. art.). BJLOk karrera fiskal eta judizialean sartzeko baterako oposizioa aurreikusten du, gai-zerrenda eta ariketa berak dituen. Bi karreraren arteko desberdintasun bakarra formazioari buruzkoa litzateke: epaileek Eskola Judizialean egiten dute, eta fiskalek Ikasketa Juridikoen Zentroan.
 - e) Ohore, kategoria eta ordainsariei dagokienez, fiskalak parekatuta daude epaile eta magistratuekin –(MFEOren 33. art.).
 - f) Karrera fiskalaren kideen egoera administratiboak ere parekatuta daude epaile eta magistratuenekin –(MFEOren 47. art.), baimen eta lizentzien erregimena karrera judizialarenean oinarrituta dago –(MFEOren 52. art.), eta diziplinazko erantzukizuna BJLOk epaile eta magistratuentzat araututakoa aplikatzen da modu osagarrian –(MFEOren 60 art.).
 - g) Botere Exekutiboak ezin dio MFri zuzeneko instrukziorik eman, baizik eta interes publikoaren babesean haren jarduera *eskatu* auzitegien aurrean (MFEOren 8.1 art.).

3.4. Ondorioak

MFk historikoki Botere Exekutiboarekiko izan duen menpekotasunarekin apurtzeko 1978ko Konstituzioak pauso sendoak eman dituen arren, gaur egun oraindik ezin da esan MF organo guztiz independentea denik. Menpekotasun historiko horren aztarnak badira oraindik: Botere Exekutiboak diskrezionaltasunez izendatzen ditu eta kargutik kentzen EFNren eta MFren erantzukizuneko karguak. Horren arriskua izan liteke gobernuak bere helburu politikoak lortzeko erabiltzea.

Bestalde, Konstituzioak MF VI. tituluaren (*Botere Judizialaz*) barruan arautzean, epaile eta magistratuen antzeko estatusa esleitzen zaio, baina pertsonalitate juridiko propioa duen garrantzizko konstituzio-organoa dela nabarmenduz.

MF menpekotasun hierarkikoaren printzipioaren arabera antolatzen da, batasun-jarduera mantendu ahal izateko.

Bere funtzioa da hiritarren eskubideak eta gizarte-interesa babestea. Horiek inpartzialtasun- eta legezketasun-printzipioen menpe betetzen ditu. Dena dela, hainbatetan zalantzan jartzen da MFk inpartzialtasunez jardutea, Botere Exekutiboarekin duen harremana dela eta.

4. KAPITULUA: MINISTERIO FISKALA ERAENTZEN DUTEN PRINTZIOAK

4.1. MF eraentzen duten konstituzio-printzipioak. 4.2. Printzipio funtzionalak. Hasierako kontuak. 4.2.1 Legezketasun-printzipioa. 4.2.1.1. Legezketasunaren definizioa. 4.2.1.2. Legezketasun-printzipioaren adierazpenak MFEOn. 4.2.2. Inpartzialtasun-printzipioa. 4.2.2.1. Inpartzialtasun-printzipioaren definizioa. 4.2.2.2. Inpartzialtasun-printzipioaren adierazpenak MFEOn. 4.3. Printzipio organikoak. 4.3.1. Batasun-jarduera. 4.3.2. Menpekotasun hierarkikoa. 4.3.2.1. Kanpoko menpekotasuna. 4.3.2.2. Barruko menpekotasuna.

4.1. Ministerio Fiskala eraentzen duten konstituzio-printzipioak

MFk Konstituzioak zehaztutako printzipioen arabera antolatzen eta jarduten du. Printzipio horiek EKren 124.2 artikulua aitutzen ditu: *Ministerio Fiskalak, organo propioen bitartez, bere funtzioak egikaritzen ditu batasun-jarduera eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera eta, edozein kasutan, legezketasun eta inpartzialtasunari lotuta.*

Beraz, lau dira MFren jarduera eraentzen duten printzipioak: batetik, legezketasuna, inpartzialtasuna (printzipio funtzionalak) eta, bestetik, batasun-jarduera eta menpekotasun hierarkikoa (printzipio organikoak).

Haietarik bi goi-mailako printzipio moduan agertzen dira: legezketasuna eta inpartzialtasuna. Ildo horretatik, EK-k dio MF, *edozein kasutan*, printzipio horiei lotuta dagoela. Baina ez du gauza bera egiten beste bi printzipioekin.

4.2. Printzipio funtzionalak. Hasierako kontuak

MFren funtzionamendua eraentzen duten printzipioak EKren 124.2 artikulua zehazten ditu: *Ministerio Fiskalak, organo propioen bitartez, bere funtzioak egikaritzen ditu batasun-jarduera eta menpekotasun-hierarkikoaren printzipioen arabera eta, edozein kasutan, legezketasun eta inpartzialtasunari lotuta.* Beraz, bi printzipio dira izaera funtzionala dutenak: *legezketasuna* eta *inpartzialtasuna*.

Aipatutako bi printzipio horiek garatzen dira, hurrenez hurren, MFEOren 6. eta 7. artikuluetan. Haien izaera funtzionala nabarmentzen du, artikuluko horiek bere I. tituluko («Ministerio Fiskala eta bere funtzioak») III. kapituluan sartuta.

Azter ditzagun bi printzipioak, *legezkotasuna* eta *inpartzialtasuna*, banan-banan.

4.2.1. Legezkotasun-printzipioa

4.2.1.1. Legezkotasunaren-printzipioaren definizioa

MFEOren 6.I artikulua legezkoitasun-printzipioa definitzen du: *Legezkoitasun-printzipioaren ondorioz Ministerio Fiskalak Konstituzio, lege eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauen menpe jardungo du, irizpenak emanaz, informatuz eta egikaritzuz; bere kasuan, akzio egokiak egikaritzuz edo modu bidegabean egikaritutakoen aurka eginez jardungo du, legeek agintzen duten neurri eta moduan.*

Eta artikuluko beraren II. paragrafoak honela jarraitzen du: *Fiskalak akzioen egikaritzea edo haren esku utzi den jarduerara desegokitzat hartuz gero, Estatutu honen 27. artikuluan aurreikusitako ahalmenak erabiliko ditu.*

Hasteko, esan dezagun Konstituzioak MFren jardueraren irizpidea arautzeko zituen bi aukeren artean (legezkotasuna edo oportunitatea) lehenengoa aukeratu zuela. Horrek esan nahi du ordenamendu juridikoak eraentzen dituela Ministerio Fiskalaren jarrera prozesalak, akzioen egikaritzea, delituei jazartzeko ekimenak eta, oro har, jarduerak, eta ez daudela fiskalaren erabakiaren edo iritzia menpe.

Baina horrek ez dakar oportunitatea erabat baztertzea ordenamendu juridikotik. Legezkoitasun-printzipioaren arabera oportunitate arautua baino ez da posible, hau da, legeak onartzen duen oportunitatea, eta posible diren kasuak eta kasu bakoitzaren betekizunak zehazten ditu. Beste hitz batzuekin adierazita, batzuetan legeak berak

ematen dio ahalmena MFri akzioak egikaritzeko edo ez egikaritzeko, baina aukera hori erabili beharko du legeak zehaztutako baldintzak eta betekizunak betez²³.

Dena dela, legezketasuna MFren jarduera eraentzen duen printzipioa izateaz gain, horri esleitutako xedeetariko bat ere bada. EKren 124.1 artikulua esanetan, *Ministerio Fiskalak, [...] justiziaren ekintza sustatu behar du, legezketasuna, herritarren eskubideak eta legeak zaindutako interes publikoaren babesean, bai ofizioz bai interesatuek eskaturik; eta, orobat, auzitegien independentzia begiratzen eta horien aurrean gizartearen interesa asetzen saiatu behar du*. BJLOren 541. artikulua, berriz, aurreikusten du Konstituzioaren atal horretan esandakoa, MFren egitekoa nabarmenduz: *legezketasunaren ordezkari izatea eta legezketasuna babestea*.

Beraz, legezketasun-printzipioari dagokionez, bi alde bereiz ditzakegu:

- Legezketasuna, MFren jarduera-irizpide moduan. Haren jarduera eraentzen duen printzipio eta irizpidea da.
- Legezketasuna, MFk esleituta dituen jardueraren xedeetariko baten moduan.

Izan ere, legezketasunaren izaera bikoitz hori da MF gainerako botere publikoetatik bereizten duena. Botere publiko guztiak legearen menpe daude, ordenamendu juridikoa osatzen duten arauen arabera jardun behar dute; baina haien artean dago legea babestea xede duen organo bakarra: MF.

Kontrakoa dirudien arren, inpartzialtasuna ez da menpekotasun-printzipioaren aurkakoa. Kontuan hartu behar dugu estatuaren botere guztiek legezketasun-printzipioaren menpe jardun behar dutela (EKren 9.3 art.); gobernuak eta administrazioak berak, EKren 97 eta 103.1 artikuluen ondorioz, Konstituzioaren eta legeen arabera jarduten dute. Beraz, Ministerio Fiskala aritzen da legearen arabera jarduten duen Botere Exekutiboaren menpe.

²³ Horren adierazpena aurki dezakegu KPren 171.3 artikuluan: *Aurreko paragrafoan azaldutako egitate delitu bat agerrarazteko edo delitu bati buruzko salaketa egiteko mehatxua bada, fiskaltzak erabaki dezake mehatxuaren objektu den delituarengatik ez akusatzea, mehatxua errazago zigortzeko, salbu eta delitu horrek ezarrita duen zigorra bi urte baino gehiagoko espetxealdia denean [...]*. Kasu horretan legeak baimena ematen dio fiskalari akusatzeaz abstenitzeko, delitua mehatxuaren objektu moduan erabili denean.

4.2.1.2. Legezkotasun-printzipioaren adierazpenak MFEOren

MFEOren hainbat manutan legezkotasunaren berariazko aipamenak daude. Ikus ditzagun haietariko batzuk.

Hasteko, estatutuak MFren funtzioak zerrendatzen dituzenean, haietariko bat hau da: *Legezkotasunaren eta interes publiko edo sozialaren defentsan, parte hartzea egoera zibilari buruzko prozesuetan eta Legeak agindutako gainerakoetan* (MFEOren 3.6 art.).

Autonomia-erkidegoetako gobernu-organismoek MFren jardura eskatzen dutenean, Justizia Ministerioari jakinarazita, autonomia-erkidegoaren Fiskal Nagusiari zuzenduko zaizkio. Azken horrek, Salako Fiskalen Batzarrari entzun ondoren, egokia dena erabakiko du, baina, *edozein kasutan, legezkotasun-printzipioarekin bat*.

Baina legezkotasun-printzipioaren adierazpen edo ondorio garrantzitsuen MFEOren 6.II artikuluan bertan dago jasota. Honela adierazten du: *Fiskalak desagokitzat jotzen badu akzioen egikaritzea edo haren esku utzi zaion jardura, Estatutu honen 27. artikuluan aurreikusitako ahalmenak erabiliko ditu*. Beraz, desadostasunaren kasuan, fiskalak MFEOren 27. artikulua ildotik jo beharko du. Baina zertan dira aipatutako artikuluan aurreikusitako ahalmenak? Azter dezagun.

Fiskalak legez kontrakotzat edo beste edozein zioengatik bidegabekotzat hartzen duen agindu edo instrukzio bat jasotzen duenean, hala jakinaraziko dio bere fiskalburuari arrazoitutako txosten baten bitartez,. Baina agindua edo instrukzioa hark eman bazuen, eta alegatutako arrazoiak ontzat hartzen ez baditu, arazoa Fiskaltzaren Batzarrari aurkeztuko dio, eta hark iritzia eman ondoren, behin betikoz erabakiko du aldatzea edo berrestea. Agindua edo instrukzioa nagusi batengana jotzea izanez gero, hari aurkeztuko dio txostena, eta hark alegatutako arrazoiak onartzen ez baditu, aurreko kasuan bezala erabakiko du, alde aurretik Fiskaltzaren Batzarrari entzun ondoren. Eta, amaitzeko, instrukzioa edo agindua EFNk eman bazuen, hark erabakiko du Salako Fiskalen Batzarrari entzun ondoren.

Nagusi hierarkikoak aginduak edo instrukzioak berresten baditu, idazki arrazoitu baten bitartez egingo du, horiek betetzeak ekar litzakeen erantzukizunetik libre dagoela berariaz adieraziz, edo beste fiskal bati esleituko dio auzia.

Beraz, hauxe da fiskalei dagokien ahalmen horren oinarria: agindu edo instrukzioaren legez kontrakotasuna edo beste zio batengatiko desegokitasuna (adibidez, prozesu penalean zigorraren eskaerarekiko desadostasuna, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta). Agindu edo instrukzioa legez kontrakoa izanez gero, fiskalak mekanismo hori erabili behar luke, bere jardura eraentzen duen legezko tasun-printzipioaren ondorioz. Bigarren kasuak (hots, beste zio batengatik agindu edo instrukzioarekin ados ez egotea) inpartzialtasunarekin izango luke zerikusia.

4.2.2. Inpartzialtasun-printzipioa

4.2.2.1. Inpartzialtasun-printzipioaren definizioa

MFEOren 7. artikulua garatzen du EKren 124.2 artikulua aurreikuspena, MFren inpartzialtasunari buruzkoa. Aipatutako artikulua honela dio: *Inpartzialtasunaren printzipioaren ondorioz, Ministerio Fiskalak objektibitate eta independentzia osoz jardungo du bere esku utzitako interesen defentsan.*

Ministerio Fiskalak, dagozkion interesen arabera, objektibotasuna eta inpartzialtasuna gordez jardungo du. Baina printzipio horretan bi alderdi bereiz daitezke: batetik, alderdi objektiboa eta, bestetik, alderdi subjektiboa.

a) Inpartzialtasunaren alderdi objektiboa

Inpartzialtasuna legezko tasun-printzipioarekin lotuta dago. Esan genezake legezko tasunetik ondorioztatzen dela inpartzialtasuna. Hau da, MFk jarduten duenean, legea (ordenamendu juridikoa) baino ez du kontuan hartuko; esleitutako funtzioak betetzen dituen legezko irizpideen arabera egingo du.

Horregatik, prozesu penalean MFren interesek ez dute izan behar inputatu edo akusatuaren aurkakoak. MFk (epaile edo auzitegien moduan) egia materiala bilatu behar du; beraz, subjektu pasiboa kondenatzeko froga nahikorik izan ezean, ez du akzio penala egikarrituko, baizik eta absoluzioa eskatuko. Beste hitz batzuetan esanda, MFk, kasu batzuetan, akusazioa aurkeztuko du prozesu penalaren subjektu pasiboaren aurka, baina, beste kasu batzuetan, akusatuaren defentsan jardungo du ziorik gabe. Eta horrela adierazten du MFEOren 6. artikulua, dioenean MFk jardungo duela *akzio egokiak egikaritzuz edo modu bidegabean egikaritutakoen aurka eginez, legeek agintzen duten neurri eta moduan*. Era berean, MFEOren 3.4 artikulua honako funtzio hau esleitzen dio: delitu eta falten ondoriozko akzio penal eta zibilak egikaritzea eta, egokia denean, beste batzuek egikaritutakoen aurka egitea.

b) Inpartzialtasunaren alderdi subjektiboa

Inpartzialtasuna MFren betebeharra da. Horrek esan nahi du MFk neutraltasunez jokatu behar duela, irizpide eta ideologia pertsonalak erabat baztertuz. Legea aplikatu behar du objektibotasunez. Baina horretan arazoak agertzen dira: nola bateratzen dira kontraesanekoak izan daitezkeen bi elementu? Alde batetik, MF postulazio prozesaleko organoa d.; MFk inpartziala izan behar du; inpartzialtasunez, objektibotasunez edo neutraltasunez jardun behar du; baina, bestaldetik, MF prozesuko alderdia da²⁴. Dena dela, MFk prozesuan dituen funtzioak ez dira alderdia izatera mugatzen (hurrengo kapituluaz aztertuko ditugu); beraz, MF ezin da hartu alderdi huts moduan. Egia da prozesuan zehar MFk duen jarrerak alderdi-izaera duela, baina gainerako alderdiek ez bezala, berak parte hartzen du EK-k esleitutako eginkizunak betetzeko.

Hainbat egilek zalantzan jartzen dute MFren inpartzialtasuna; gogora dezagun men egiten diela menpekotasun hierarkikoari eta jarduera-batasun printzipioei. Beraz, nola bateratzen dira printzipio desberdin horiek? Galderari erantzuteko bereizketa bat egin beharra dago: inpartzialtasunak neutraltasunez jardutea dakar, alderdi bakar baten alde egin gabe edo alderdi bakar bat aukeratu gabe²⁵.

²⁴ PKL bera alderdi moduan mintzatzen da MFz hainbat artikulutan.

²⁵ Ikus MONTERO AROCA, J., GOMEZ COLOMER, J-L., MONTON REDONDO, A., BARONA VILAR, S., *Derecho Jurisdiccional I. Parte General*, Tirant lo Blanch, Bartzelona, 2008, 205 or.

Baina, interes ezari dagokionez, bi elementu bereizi behar dira: interesik ezaren alderdi objektiboa eta interesik ezaren alderdi subjektiboa. Interesik eza subjektiboak esan nahi du erabaki bat hartzean legea bakarrik aplikatzea, hainbat arrazoiengatik – (ahaidetasuna, laguntasuna, afinitatea edo ideologia politikoa, besteak beste) alderdi baten alde egitea saihestuz. Beraz, Botere Judizialak eta Ministerio Fiskalak interes subjektiborik ezaz jarduten dute.

Interes objektiborik ezari dagokionez, horrek esan nahi du erabaki behar den objektua ez zaiola axola organo erabakitzaileari. Hemen daude, hain zuzen ere, desberdintasunak: MFk jarduten duenean helburu bat izanik egiten du, gizartearen interesak zaintzen ditu. Horrela, Ministerio Fiskalak ez du interes objektiborik ezaz jarduten, baizik eta *harreman propioan* egiten du; hau da, fiskala alderdia da parte hartzen duen prozesuetan eta inoiz ez da izango hirugarren inpartziala. Epaileek, ordea, besteren kontuetan jarduten dute, hau da, interes objektiborik ezaz jarduten dute; hirugarren inpartzialak dira.

4.2.2.2. Inpartzialtasun-printzipioaren adierazpenak MFEOren.

MFEOren III. tituluko VI. kapituluak MFren kideen bateraezintasun- eta galarazpen-sistema aurreikusten du. Horren bitartez saiatzen da inpartzialtasuna lortzen eta, horrekin batera, hirugarren interesen aurrean independentzia lortzen.

a) Abstentzioa

Inpartzialtasuna bermatzeko abstentzioa aurreikusten da –(MFEOren 28. art.). MFren kideak ezin dira errefusatu, baina abstenitu beharra dute. Fiskalek parte hartzeari uko egingo diote auzi edo kausetan, baldin eta, BJLOk epaile eta magistratuentzat aurreikusitako zio batzuk ukitzen dituztenean, haiei aplikatu badakieke .

Legeak nabarmentzen du BJLOk epaile eta magistratuentzat aurreikusitako partzialtasun-zioek fiskalei aplikatzeko modukoak izan behar dutela; hau da, ez zaizkie BJLOren 219. artikuluen zio guztiak aplikatzen, haietariko bakoitza epaile edo

magistratuei soilik aplika dakiekkelako (fiskal edo instruktore moduan auzian jardun izana, adibidez. BJLOren 219.6 eta 11. art.).

Baina zer egin dezakete alderdiek, fiskalek abstenitu beharra izanda ere, horrela egiten ez badute? Epaile eta magistratuen kasuan abstenitu beharra betetzen ez bada, prozesuko alderdiek errefusatzeko aukera izango dute; baina zer gertatzen da fiskalen kasuan? Lehen adierazi dugunez, ez dago fiskalak errefusatzetik, baina MFEOren 28. artikulua xedatzen du aipatutako auzi edo kausetan parte hartzen duten alderdiek fiskalaren nagusi hierarkikoarengana jo dezaketela, prozesuan hark parte ez hartzea eskatzeko.

EFNren kasuan, Salako Fiskalen Batzarrak erabakiko du, eta Auzitegi Gorenaren teniente fiskala izango da buru.

Aurreko erabakien aurka ez dago helegitea aurkezterik.

Abstenitu beharra ez betetzearen ondorioz sortutako erantzukizuna aztertuko dugu. Abstenitzeko egoera batean izanik, prozesuan parte hartzeari uko egiten ez dion fiskalak diziplina-erantzukizuna izango du falta oso larria (MFEOren 62.8 art.), edo falta larria betetzeagatik (egitatearen intentzioa, horren garrantzia Justizia Administrazioarako eta funtzio fiskalaren dignitateak jasandako kaltea kontuan hartuta; MFEOren 63.11 art.).

Amaitzeko, aipatu behar dugu PKLren 96 eta 99 bitarteko artikuluek MFren abstentzioaren erregimena aurreikusten dutela prozesu penalerako. Artikulu horiek zehazten dute abstentzioaren kasuan zein fiskalek ordezkatu beharko duten, ordezkatua izan behar denaren arabera.

b) Bateriaezintasun-zioak

Fiskalaren kargua bateraezina da (MFEOren 57. art.):

- Epaile edo magistratuaren karguarekin
- Beste edozein jurisdikzioarekin, eta arbitraje-jardueran nahiz organoetan parte hartzearekin

- Herri-hautaketaren edozein kargurekin edo estatu, autonomia-erkidego, probintzia eta gainerako toki-erakundeen izendapen politikoarekin
- Estatuaren Administrazioak, Gorte Orokorrek, Errege-etxeak, autonomia-erkidegoek, probintziek, udalerriek ordaindutako enplegu, kargu edo lanbide ororekin
- Ordaindutako enplegu, kargu edo lanbide ororekin. Salbuespen dira irakaskuntza edo ikerketa juridikoa, ekoizpen edo sorkuntza literario, artistiko, zientifiko edo tekniko eta horietatik etorritako argitalpenak, nagusi hierarkikoari behar bezala jakinaraziz gero, administrazio publikoen zerbitzupeko pertsonalaren bateraezintasunari buruzko legeriaren arabera.
- Abokatutzan jardutearekin (fiskalaren, ezkontidearen edo antzeko afektibitate-harremanarengatik modu egonkorrean lotutako pertsonaren, guraso-agintepean dituen seme-alaben nahiz tutoretzapean dituen pertsonen kontu pertsonaletarako denean izan ezik), prokuradoretzarekin, eta edozein motatako aholkularitza juridikoarekin, ordainduta izan edo ez.
- Edozein merkataritza-jarduerarekin, zuzenekoa edo beste pertsona baten bitartekoa izan. Ondasun propioengatik lortutako produktuen transformazioa eta salmenta salbuesten da. Eragiketa horiek posible dira, baina publikora zabalik dagoen saltegirik gabe.
- Zuzendari, gerente, administratzaile, kontseilari, eta bazkide kolektiboaren funtzioekin, edo sozietate edo merkataritzako edozein generoko enpresa publiko edo pribatuetan zuzeneko parte-hartzea dakarren beste edozein funtzioarekin.

c) Galarazpenak

Aurreko kasuan bezala, MFEOren 58. eta 59. artikuluetan aurreikusitako galarazpen-erregimenaren bitartez, fiskalen inpartzialtasuna bermatzen da.

MFren kideek ezin izango dute beren karguetan jardun (MFEOren 58. art.)²⁶:

- Fiskaltzetan non horren lurralde-mugape barruko herri batean beren ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremanarengatik modu egonkorrean lotutako pertsonak

²⁶ Artikulu horrek jasotzen ditu BJLOren 389. artikulua epaile eta magistratuentzat aurreikusten dituen antzeko bateraezintasun-zioak.

jarduera industrial edo merkataritzakoa burutzen badu, funtzioa inpartzialki betetzea galarazten baitio, kontseilu fiskalaren iritziz.

- Ahaideek, baldin eta haien artean zuzeneko menpekotasun hierarkikoa badago (odolkidetasun nahiz ezkontza-ahaidetasuneko bigarren-mailaren barruan, edo ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremanarengatik modu egonkorrean lotutako pertsonak karrera fiskalaren karguan jarduten duen fiskaltza berean). Baina nola ulertu behar da menpekotasun hierarkikoa zuzenekoa dela? MFEOren 58.2 artikulua I eta II paragrafoek erantzuten diote galderari. Zuzeneko menpekotasun hierarkikotzat hartuko da, Fiskaltzaren fiskalburua, teniente fiskala eta atal bakoitzaren dekanoarekin lotzen duena; eta azken hori atal bakoitzean integratutako fiskalekin lotzen duena ere bai. Era berean, zuzeneko menpekotasun hierarkikoa dagoela ulertuko da, batetik, autonomia-erkidegoaren fiskal nagusiaren eta autonomia-erkidego bereko probintziako fiskalburuen artean eta, bestetik, probintziako fiskalburuaren eta probintzia bereko saileko fiskalburuen artean.
- BJLOk bateraezintasunak aurreikusten dituen karrera judicial eta fiskalaren kideen artean
- Fiskalburu moduan Fiskaltzetan (non ezkontideak nahiz antzeko afektibitate-harremanarengatik modu egonkorrean lotutako pertsonak edo odolkidetasun nahiz ezkontza-ahaidetasuneko bigarren-mailaren barruko ahaide batek abokatu edo prokuradore moduan jardun ohi baitute), bostehun mila baino biztanle gehiagoko lurralde-mugapeak direnean izan ezik, eta egokia den kasuetan abstenitu beharri kalterik egin gabe.
- Amaitzeko, Fiskaltzetan, non haren lurraldean izendapenaren aurreko bi urteetan abokatu edo prokuradore moduan jardun baitute.

Galarazpenei dagokienez, EKren 127.1 artikulua xedatzen du: *Epaileek eta magistratuek, eta baita fiskalek ere, aktiboan dauden bitartean, ezin izango dute beste kargu publiko batzuetan jardun, edo alderdi politiko nahiz sindikatu baten bazkide izan. Legeak zehaztuko ditu epaile, magistratu eta fiskalen elkartze profesionalaren sistemak eta motak.*

Hau da, epaile eta magistratuen gisan, fiskalek ezin dute beste kargu publiko batean jardun edo sindikatu nahiz alderdi politiko baten bazkide izan. Hala ere, horrek ez du

esan nahi askatasunez elkartzeko eskubiderik ez dutenik. Artikuluak legera bidaltzen du –(epaile, magistratu eta) fiskalen elkartze profesionalaren sistemari eta modalitateari dagokienez.

MFEOren 59.²⁷ artikuluak berriz aurreikusten ditu aurreko galarazpenak, baina baita beste batzuk gehitu ere. Horrela, goian aipatutako galarazpenez gain, MFren kideek ezin izango dute:

- Alderdi politiko edo sindikatuen zerbitzuplean enplegurik izan
- Botere, eta funtzionario publikoei edo korporazio ofizialei beren egintzengatik zorionak edo gaitzespenak eman
- Izaera edo ezaugarri ofizialekin ekitaldi edo batzar publikoetan agertu, funtzioetan jardutea egokia ez denean
- Legegintzarako hauteskundeetan (autonomikoetan nahiz tokikoetan) parte hartu, boto pertsonala emateko denean izan ezik

4.3. Printzipio organikoak

Bi dira MFren printzipio organikoak: *batasun-jarduera* eta *menpekotasun hierarkikoa*. Horrela adierazten du EKren 124.2 artikuluak: *Ministerio Fiskalak, organo propioen bitartez, bere funtzioak egikaritzen ditu batasun-jarduera eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera (...)*; eta aurreikuspen bera jasotzen du MFEOren 2. artikuluak.

Aipatutako printzipioek izaera organikoa dute eta MFren funtzionamenduaren oinarri dira. MFEOren II. tituluaren (*MFren organoez eta informatzen duten printzipioez*) I. kapituluak garatzen ditu fiskalen arteko harremanak azaltzean, baina ez du horien definiziorik ematen; legezketasun- eta inpartzialtasun-printzipioekin ez du horrela egiten. Horregatik, hurrengo epigrafeetan aztertuko dugu bi printzipioak estatutuan nola garatzen diren.

²⁷ Aurreko kasuan bezala, artikulu honek jasotzen du BJLOren 395. artikuluak epaile eta magistratuentzat aurreikusitakoaren antzeko galarazpen-erregimena. Izan ere, EKren 127.1 artikuluak galarazpen berak aurreikusten ditu epaile, magistratu eta fiskalentzat.

4.3.1. Batasun-jarduera

Batasun-jarduera printzipioak esan nahi du MFren organo eta kide guztiek irizpide bateratua jarraitu behar dutela, kontu juridiko bakoitzari irtenbide bera emanaz, eta irtenbide desberdinak arbuiatuz²⁸.

Batasun-jarduera hori adierazten da MFren nagusi eta menpekoen arteko harremanetan.

MF bakarra da estatu osorako eta horren burutza estatuko fiskal nagusiak izango du –(MFEOren 22. art.). Izan ere, organo bakoitzaren fiskalburuak ordezkari gisa jarduten du eta gainerako kideek nork bere buruaren eskuordetaz –(MFEOren 22.3 eta 23. art.). Horren ondorioz, irizpideen batasunari eusteko sistemak aurreikusten dira –(MFEOren 24. art.).

MFren barruan beharrezko baliabide bat dago jarduera-batasuna mantendu ahal izateko: menpekotasun hierarkikoa. Arauen aplikazio uniformearen lortzeko irizpide indibidualak alde batera utzirik, fiskalek nagusi hierarkikoak emandako agindu eta instrukzioak bete beharko dituzte. Beraz, menpekotasun hierarkikoa batasun-jardueraren printzipioaren beharrezko osagarria da.

Izan ere, EFNk emandako hainbat instrukziotan haren adierazpenak har daitezke. Ildo horretatik, 11/2005 Instrukzioak adierazten du fiskala badela *ordenamendu juridikoaren interpretazio bateratua lortzeko funtsezko zatia*, baina *aldez aurreko eta batasun-jarduera printzipioaren ad intra artikulazio egokiaren baldintzapean; beharrezko irizpide-batasuna berekin dakarren printzipioa*²⁹.

²⁸ Horrela definitzen du Conde-Pumidok batasun-printzipioa. CONDE-PUMIDO FERREIRO, C., *El Ministerio...* op.cit. 79 or.

²⁹ 1/1987 Instrukzioa zehatzagoa da gai horretan: *EKren 124.2 artikulua, besteak beste, batasun-jarduera eta menpekotasun hierarkikoa mantendu behar diren printzipio moduan jasotzen ditu; eta hori ez du egiten autoritarismo guratsuari emate bezala, baizik eta estatuarentzat garrantzitsua den funtzioaren oinarrian dagoelako: legea ezartzen den lurralde osorako bakarra izatea ez ezik, ahal den neurrian, bere aplikazioa auzitegien epaien menpe dauden auzi konkretuetarako ere izateko, haietan guztietan haren xedapenen interpretazio bateratuaren bitartez.*

MFri esleitzen zaizkion funtzioak dira legezkotasuna babestea, eta gizarte- interesa eta hiritarren eskubideak zaintzea; baina horiek era egokian bete ahal izateko, beharrezkoak dira arauen interpretazioaren irizpide uniformeak, bateratuak. Horrela bakarrik bermatuko da herritar guztientzat legearen aplikazio berdina eta, aldi berean, segurtasun juridikoa. Herritarrek eskubidea dute tratu berdina izateko eta egintzak aldeztatik aurretik zehaztutako eta bateratutako irizpideen arabera balioetsiak izateko; ez dugu ahaztu behar MFk prozesuetan parte hartzen duela akzioak egikaritzuz. Irizpide horiek objektiboak eta independenteak izan behar dute, eta ez MFren kide bakoitzaren subjektibotasunaren menpekoak. Beraz, dependentzia hierarkikoa MFren jarduera bateratua lortzeko baliabide moduan ulertu behar da. MFren jardueraren irizpideak modu kolektiboan eratu behar dira, eta berdinak izan behar dute instituzioaren organo eta kide guztientzat.

Egia esan, legeak esleitutako funtzioak betetzeak beharrezko egiten du irizpideberdintasuna; MFren kideen iritzien desberdintasunak baztertu egin behar dira legearen aplikazio berdina lortzeko. Eta berdintasun hori menpekotasunaren eskutik dator: fiskalek nagusi hierarkikoen emandako instrukzioak eta aginduak bete behar dituzte.

Beste gauza bat da zehaztea 1981eko MFEOk jasotako erregimen hierarkikoa egokia den Zuzenbidearen aplikazio bateratuaren helburua lortzeko³⁰. Egia da legearen interpretazioak edo aplikazioak bakarrik izan behar duela, baina horrek MFren batasuna eta menpekotasuna oinarrituko balu, karrera judiziala ere guztiz hierarkizatuta egon beharko litzateke, eta badakigu independentzia dela epaile eta magistratuen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat. Epaile eta magistratu guztiak independenteak dira ebaspenak emateko. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak (kasazio-helegitearen bitartez emandakoak) berdintasunaren berme mugatua ematen du; berme hori loteslea da, batzuetan antzeko kasuetan kontraesankorrak gerta daitezkeelako. Gainerako jurisprudentziari dagokionez, are nabariagoa da materia berari buruzko irizpide-desberdintasuna.

³⁰ Gai horri buruz ikus LANZAROTE MARTÍNEZ, P., *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal y la reforma de su estatuto orgánico*, La Ley, Madril, 2008, 289-291 or.

Gainera, argi dago MFk duen papera oso mugatua dela ordenamendu juridikoaren ziurtasunean, legearen aplikazioaren berdintasunean; izan ere, estatuaren Fiskaltza Nagusiak ez ditu interpretazio berdinak materia guztietan.

Onartu behar dugu MFren jarduera bateratua irizpide bakar eta berdinen bitartez lortzen dela; ulertzekoa da helburu hori lortzeko MFk egitura hierarkikoa eta piramidala izatea, eta piramide horren gailurrean dagoen buru nagusiak (hau da, EFNk) jarduera-irizpideak zehaztea. Baina Zuzenbidearen interpretazio berdinak ez du eskatzen, agian, erregimen hierarkiko hain zorrotzik.

Amaitzeko, eta gobernuak MFren gainean duen loturaren ikuspuntutik, denboran zehar harreman horri eusteko hainbat argudio eman dira (gobernuak zehazturiko politika kriminalaren irizpideen aplikaziorako bidea, besteak beste) baina gobernuarekiko menpekotasunaren aitzakian ezin da MF gobernuaren helburu politikoetarako bide bihurtu. Ez dira ahaztu behar EK-k berak MFri esleitutako funtzioak: *legezketasun, herritarren eskubide eta legeak babestutako interes publikoaren babesean, justiziaren ekintza sustatzea eta, orobat, auzitegien independentzia begiratzea eta horien aurrean gizartearen interesa asetzen saiatzea.*

Horregatik, hainbat autoreren ustez³¹ beharrezkoak dira MFren menpekotasuna kontrolatzeko bideak, bai barruko bai kanpoko menpekotasunari dagokionez.

4.3.2. Menpekotasun hierarkikoa

Printzipio honek esan nahi du fiskal guztiak bakoitzaren fiskalburuaren eta EFNren menpe daudela. MF eraentzen duten printzipioetatik garatuena da.

Menpekotasun-printzipioari dagokionez bi alderdi bereizi behar ditugu: batetik, kanpoko menpekotasuna (hau da, menpekotasuna gobernuaren aurrean) eta, bestetik, barrukoa (bere eraketari dagokiona)³².

³¹ LANZAROTE MARTÍNEZ, P., *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal...*, op. cit., 291 or.

4.3.2.1. Kanpoko menpekotasuna

Kanpoko menpekotasunari dagokionez, Ministerio Fiskalak gobernuaren menpe jarduten du. EFN hautatzeko sistemak dakar kanpoko menpekotasuna : gobernuak berak izendatzen du eta kargutik kentzen EFN.

Gobernuak askatasunez hautatzen du EFN ildo politiko berdineko juristen artean, MFEOren 29. artikulua betekizunak (aurrerago ikusiko ditugunak) muga bakar izanik. Gainera, EFN kargutik kentzea gobernuaren iritziaren menpe dago; alde horretatik ere 2007ko erreformak ez du apurtu gobernuarekiko menpekotasun historikoa.

EKren 97. artikulua adierazten duenez, gobernu kanpoko eta barruko politikaren gidari da eta, argi dagoenez, hark duen politika kriminalarekin bat datorren jurista bat hautatuko da EFN modura; era berean, kargutik kenduko da gobernuak zehazturiko ildotik aldentzen den unean.

1981eko MFEO onartu baino lehen ez zegoen inolako dudarik gobernuarekiko MFren menpekotasunari buruz: MFk gobernuaren zuzeneko instrukzioen menpe jarduten zuen; Auzitegi Gorenaren fiskala, monarkiaren MFren buru moduan, Grazia eta Justiziako Ministroaren zuzeneko menpekotasunean zegoen, eta hark ematen zizkion instrukzio edo aginduak bete behar zituen (idatzizkoak edo ahozkoak).

Gaur egun, aldiz, menpekotasun hori mozorrotzen edo ezkututzen saiatu da, seguruenera, MFren menpekotasun hierarkikoaren eraketak jaso dituen kritikekin amaitzeko helburuz. 1981eko MFEOren 8. artikulua dioenaren arabera, gobernuak Ministerio Fiskalari *eskatu* dio auzitegien aurrean jarduera egokiak sustatzea interes publikoaren defentsarako. EFNk, Auzitegi Gorenaren Salako Fiskalen Batzarrari entzun ondoren, interesatutako jardueren egokitasun eta birtualtasunari buruz erabakiko du eta

³² Iritzi horren kontra, CONDE-PUMPIDO FERREIRO, C., *El Ministerio...* op. cit. 82 or. Autore horren ustez, menpekotasun hierarkikoaren printzipioak barrukoa baino ezin du izan, MFren organo propioak ukitzen dituena.

haren ebazpena adieraziko dio (MFEoren 8. art.). Hau da, EFN da gobernuak ematen dion agindu edo instrukzioaren egokitasunari buruz erabakitzen duena. Baina argitu beharra dago azken hori ez dela MFren independentziaren adierazpena, aginduaren balioespen juridikoa baino.

Ez dago MFren independentziaz hitz egiterik, MFren burua izendatzeko eta kargutik kentzeko sistema mantentzen den bitartean. 24/2007 Legeak 31. artikuluan kargutik kentzeko zioak aurreikusten dituen arren, gobernuak edozein unetan egin dezake, EFN zehaztutako ildotik aldentzen denean edo modu estalian zioetariko batean oinarritutako erabaki baten bitartez.

Ukaezina da Botere Exekutiboak MFren gainean duen menpekotasuna. Eta hauexek dira horren adierazpenak:

- a) Gobenuak MFren goreneko ordezkariari *eskatu* ahal dio egokitzen hartutako akzioak egikaritzeko.
- b) Gobernuak askatasun osoa du EFNren izendapena proposatzeko eta kargutik kentzea erabakitzeko.
- c) Izendapena konfiantzan eta gobernuaren politikaren ildoarekiko kidetasunean oinarritzen da.
- d) MFren erantzukizuneko karguak gobernuak erabakitzen ditu.

4.3.2.2. Barruko menpekotasuna

Barruko menpekotasunaren ikuspuntutik, esan beharuko genuke MF modu hierarkikoan eratzen dela. EFNk dauka MFren goreneko burutza eta estatu osoan horren ordezkari. Horren ondorioz, estatuko fiskal nagusiak bere menpekoei zerbitzurako egokiak diren aginduak eta instrukzioak ematen ahal die. Agindu edo instrukzioak izan daitezke orokorrak edo zehatzak (hots, auzi konkretuei buruzkoak) edo instituzioaren kontuei buruzkoak. Horretaz gain, MFren zuzendaritza eta ikuskatzea gauzatzen du. Funtzio berdinak izango dituzte fiskalburuek zuzendaritzari eta burutza duten fiskaltzaren pertsonalaren funtzionarioei dagokienez.

Horrek esan nahi du MFren edozein kideri deitu dakiokela haren txostenak zuzenean jasotzeko, eta egokitzat hartutako instrukzioak eman diezazkiokeela. Era berean, bere konfiantzazko fiskal bat izenda dezake gai konkretu batean jarduteko, eta prozesuaren edozein unetan ordezkari dezake zuzeneko nagusiak, (zio oinarrituek eskatuz gero) Kontseilu Fiskalari jakinarazita.

Horrela, estatuko fiskal nagusiak organo bakoitzaren fiskalburuari aginduko dio, hark bere zuzeneko behakoei agintzeko; hala eta guztiz ere, premiako kasuetan zuzenean agindu diezaieke (MFEOren 25. eta 26. art.). Baina zer gerta daiteke menpekora aginduarekin bat ez badator? Estatutu Organikoa irtenbidea bilatzen saiatu den arren –(MFEOren 25. eta 27. artikuluen bitartez), nagusiak beste batengatik ordezkari dezake menpekora –(MFEOren 23 in fine art.).

Bi alderdi horietan ikusi dugunez, gobernuak hautatzen du EFN, eta kargutik ken dezake. Gainera, EFNk gobernuaren instrukzioak jaso ditzake eta hark, aldi berean, instrukzio horiek instituzioaren edozein kideri eman diezazkioke; azken horrek onartu eta bete egin behar ditu. Ondorio moduan esan genezake MF osoa Botere Exekutiboaren menpe dagoela; gobernuak, EFN kontrolatzean, instituzioaren gainerakoa ere kontrolpean mantentzen du.

5. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN ANTOLAKETA. ESTATUAREN FISKAL NAGUSIA

5.1. MFren organoak. 5.2. Estatuaren fiskal nagusia. 5.2.1. Hasierako kontuak. 5.2.2. Izendapena eta kargutik kentzea. 5.2.3. Karguaren iraupena eta kargutik kentzeko zioak. 5.2.4. Ahalmenak eta funtzioak. 5.2.5. Estatuaren Fiskaltza Nagusian integratutako organoak. 5.2.5.1. Ikuskaritza fiskala. 5.2.5.2. Idazkaritza teknikoa. 5.2.5.3. Laguntza-unitatea. 5.3. Autonomia erkidegoen fiskal nagusiei eta fiskal buruei aipamen berezia. 5.3.1. Autonomia erkidegoen fiskal nagusiak. 5.3.1.1. Izendapena. 5.3.1.2. Funtzioak. 5.3.2. Fiskalburuak. 5.3.2.1. Izendapena. 5.3.2.2. Kargualdiaren iraupena. 5.3.2.3. Kargutik kentzea. 5.3.2.4. Ahalmenak eta funtzioak.

5.1. Ministerio Fiskalaren organoak

MFk organo propioen bitartez jarduten du eta batasun-jardueraren printzipioaren menpe. Horrek eskatzen du organo zuzendari bakarra egotea MFren jarduera osorako; horixe da EFN, hain zuzen ere. Ildo horretatik doa MFEoren 22. artikulua, adieraztean MF bakarra dela estatu osorako, eta EFNri burutza nagusia eta ordezkariak esleitzean.

MFEoren 22. art: 1. *Ministerio Fiskala bakarra da estatu osorako.* 2. *Estatuaren fiskal nagusiak Espainia osoan dauka Ministerio Fiskalaren Burutza Nagusia eta bere ordezkariak. Hari dagokio zerbitzurako egokiak diren aginduak eta instrukzioak ematea eta, oro har, Ministerio Fiskalaren zuzendaritza eta ikuskaritza.*

MF estatu-mailan bakarra izan arren, hark dituen funtzioak hainbat organoren bitartez gauzatzen dira. MFEoren 12. artikulua zerrendatzen ditu Ministerio Fiskalaren organoak. Honako hauek dira:

- a) Estatuaren fiskal nagusia
- b) Kontseilu Fiskala
- c) Salako Fiskalen Batzarra
- d) Autonomia-erkidegoetako Fiskal Nagusien Batzarra
- e) Auzitegi Goreneko Fiskaltza

- f) Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltza
- g) Entzutegi Nazionaleko Fiskaltza
- h) Fiskaltza Bereziak
- i) Kontu Auzitegiko Fiskaltza, auzitegi horren Lege Organikoak xedatzen duenaren arabera eraentzen dena
- j) Fiskaltza Juridiko Militarra
- k) Autonomia-erkidegoetako Fiskaltzak
- l) Probintzia Fiskaltzak
- m) Saileko Fiskaltzak

Hor agertzen direnak MFren organo propioak dira; banan-banan aztertzen hasi baino lehen kontu batzuk komentatuko ditugu.

MFren lehenengo organoa EFN da, eta horri laguntzen dioten organo kolegiatuak daude. Honako hauek dira: Kontseilu Fiskala eta Salako Fiskalen Batzarra. Horiei gehitzen zaizkie, nahiz eta aipatutako artikulua sartu ez, Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren Ikuskaritza Fiskala, Idazkaritza Teknikoa eta laguntza-unitatea. Bestalde, autonomia-erkidegoetako Fiskal Nagusien Batzarra ere gehitu beharko genuke, 2007ko erreformak sortu zuena (EFNren zuzendaritzaren menpekoea), estatu-mailan Fiskaltza guztien funtzionamendu eta jardueraren unitatea eta kordinazioa lortzearen.

Aurrekoetz gain, badira MFren beste organo batzuk, MFren eginkizuna jurisdikzio arruntaren hainbat auzitegiaren aurrean gauzatzen dutenak: Fiskaltzak. Honako hauek dira: Auzitegi Goreneko Fiskaltza, Entzutegi Nazionaleko Fiskaltza, Fiskaltza Bereziak, Autonomia Erkidegoetako Fiskaltzak, Probintzia Fiskaltzak eta Saileko Fiskaltzak.

Aipatutako Fiskaltzen artean, Fiskaltza Bereziak EFNren zuzeneko menpekotasunean jarduten dute, eta funtzio berezi edo propioak dituzte. Gainerako Fiskaltzei dagokienez, bat egongo da izendapenaren organo bakoitzean, eta bakoitzaren fiskalburuaren menpe jardungo dute; kasu horretan, EFNrekiko menpekotasuna MFEoren 22.3 artikulua arabera eratzen da. Fiskaltza horiek eskumen osoa izango dute EKren 124.1 eta MFEoren 1. artikuluen eginkizun guztiak betetzeko, eta eskumena izango dute 3. artikulua ahalmenak egikaritzeko.

Fiskaltzen kopurua eta horien plantilla Errege Dekretuaren bitartez zehazten dira, Justizia Ministroaren proposamenean, aldez aurretik EFNren txostena emanda eta Kontseilu Fiskala entzunda.

Fiskaltzen egoitza organoarenarena bera da; bertan jarduten dute. Horren ondorioz, Auzitegi Gorenaren Fiskaltzak, Entzutegi Nazionalarenak eta Fiskaltza Bereziek Madrilen izango dute egoitza, eta estatuaren lurralde osora zabaltzen da haien eskumena (MFEOren 21.1 art.).

Autonomia-erkidegoen eta Probintzia Fiskaltzen kasuan, dagoen leku berean egongo da egoitza-organoa, eta eremu horretan zabalduko dute beren eskumena. Probintzia bakarrera edo batzuetara mugatutako eskumena duten Justizia Auzitegi Nagusien Salak egonez gero, EFNk Justizia Ministroari proposatu ahal izango dio (autonomia-erkidegoaren fiskal nagusiaren proposamenean, eta Kontseilu Fiskala entzun ondoren) egoitza eratzea autonomia-erkidegoaren Fiskaltza Nagusiaren lurraldeko atal batean (MFEOren 21.2. art.).

Probintzia Fiskaltzek Probintzia Entzutegiek duten leku berean izango dute egoitza. Eta beren eskumena probintzia barruan dauden jurisdikzio-organo guztietara heltzen da, MFren beste organo batek eskumena duenean izan ezik. Probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen kasuan, jardueraren tamaina kontuan hartuta, gobernuak (EFNren proposamenean, eta Kontseilu Fiskala eta autonomia-erkidegoaren fiskal nagusia entzun ondoren) erabakitzen ahal izango du autonomia-erkidegoaren Fiskaltzak bere gain hartuko dituen Probintzia Fiskaltzaren funtzioak ere (MFEOren 21.3 art.).

Saileko Fiskaltzek probintzia baino txikiagoa den eremuan jardungo dute. Fiskaltza horren eremuaren zabalera zehazteko aintzat hartuko dira auzien kopurua, jurisdikzio-organoen kopurua edo Probintzia Entzutegiak hiriburua ez den beste leku batean atal bat duen. Kasu horretan Saileko Fiskaltzak probintziako barruti judizial batera edo gehiagotara luzatuko du bere eskumena, eta hura osatzen duten arauak zehaztuko dute egoitzaren kokapena (MFEOren 21.4 art.).

MFren kideek beren fiskaltzaren lurraldeko edozein lekutan jarduten ahal izango dute; hala eta guztiz ere, auzien kopuruak edo konplexutasunak horrela eskatzen dutenean, EFNk (ofizioz edo autonomia-erkidegoaren fiskal nagusiaren proposamenean) agindu dezake fiskaltza zehatz batean fiskal bat edo batzuk bereiztea denboraldi baterako, Kontseilu Fiskala eta ukitutako fiskalburuak entzun ondoren. Eta, era berean, edozein fiskalek estatuko edozein lekutan jardun dezake, EFNren baimena izanik (MFEOn 21.5 art.).

Bukatzeko, MFEOn 12. artikuluan dauden beste organo batzuek jarduten dute jurisdikzio arrunta osatzen ez duten auzitegien aurrean. Horiek dira, alde batetik, Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltza eta Kontu Auzitegiaren Fiskaltza eta, bestetik, Fiskaltza Militarra.

Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzak eta Kontu Auzitegiak eskumen berezia eta propioa dute. Horregatik dute Fiskaltza propioa ere. Egoitza Madrilen dute (organoaren egoitzaren leku berean) eta estatu osora luzatzen dute beren eskumena (MFEOn 21.1 art.).

Fiskaltza Juridiko Militarren kasuan, esan beharra dago legeak jurisdikzio militarra hartzen duela ordena jurisdikzio berezi edo espezializatutzat, eskumen berezia eta propioa duen ordenatzat. Horregatik, kasu horretan ere, Fiskaltza propioa esleitzen dio. Fiskaltza Juridiko Militarrek, MFren partaide den neurrian, haren funtzioak beteko ditu, baina jurisdikzio militarra mugatuko da (ikus. 124.1 art.).

Fiskaltza Togadunaren egoitza Madrilen dago eta estatu osora zabaltzen du bere eskumena. Auzitegi Militar Zentralaren Fiskaltzaren egoitza ere Madrilen dago eta organo horren eta Epaitegi Togadun Militar Zentralaren aurrean jardungo du. Lurraldeko Auzitegi Militarren Fiskaltzek beren egoitza izango dute, Lurraldeko Auzitegi Militarra dagoen tokian, eta haren eremuan beteko dituzte beren funtzioak (MFEOn 21.1 art.).

5.2. Estatuaren fiskal nagusia

5.2.1. Hasierako kontuak

Aurreko orrietan adierazi dugunez, Botere Exekutiboak MFren gainean duen kontrolaren adierazpena da EFN izendatzeko eta kargutik kentzeko sistema. Egia esan, horrek Fiskaltzaren jardueraren inguruko susmoak ekarri ditu berekin, bereziki gobernuaren interesak tartean sartuta egon direnean.

Gizarteak betidanik izan du mesfidantza MFren jardueraren gainean, haren goreneko burua izendatzea gobernuaren aginduekiko menpekotasunarekin lotzean, kontuan hartu gabe haren konstituzio-egitekoak diren legearen men-egite eta inpartzialtasuna. Hau da, gizarteak zuzenean lotzen du EFN gobernuarekin. Eta ideia hori ez da harritzekoa bi kontu hauek aintzat hartuta:

- Hasteko, EFN izendatzearen sistema bera (aurrerago zehaztasunez ikusiko duguna).
- Gobernuak edozein unetan eta inolako ziorik gabe kargutik kentzeko aukera. Gobernuak askatasunez erabakitzen du noiz arte egongo den EFN karguan³³.

Hori ikusita, gizarteak EFN kargu politikoa dela uste du, helburu alderdikoien menpe jarduten duela. Beraz, egoera horren aurrean zein izan daiteke konponbidea? MFren jardueran legezkotasuna eta inpartzialtasuna indartzeko neurriak hartzea, hots, MFri autonomia gehiago ematea.

Hauxe izan da, hain zuzen ere, 24/2007 Legearen xedea. Lege horrek (beste aldaketa batzuen artean) berme berriak gehitzen ditu, EFN izendatzeko eta kargutik kentzeko sistema aldatu gabe:

- a) Gobernuak proposatutako EFN agertzea Kongresuaren Batzorde baten aurrean, Erregeak izendatu baino lehen, eta BJKN entzun ondoren.
- b) Karguaren gehieneko iraupena: lau urtekoa.
- c) Kargutik kentzeko zioak. Aldaketaren ondorioz, gobernuak ezin du ziorik gabe EFN kargutik kendu.

³³ Dena dela, 24/2007 Legeak hainbat aldaketa sartu ditu, gero ikusiko dugunez.

- d) Salako Fiskalen Kontseiluak nahitaez parte hartzea EFNk bere menpekoei instrukzioak ematen dizkienean, gobernuaren kideak ukitzen dituzten edozein auzitan.
- e) Fiskalen abstentzioaren sisteman aldaketak. Gobernuaren kideak ukitzen dituzten auzitan EFN kasutik aldentzeko erabakia hartzen da MFren barruan, Salako Fiskalen Kontseiluan, hain zuzen.

5.2.2. Izendatzea eta kargutik kentzea

Estatuaren fiskal nagusia Erregeak izendatzen du, gobernuaren proposamenean, aldez aurretik Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak entzun ondoren –(EKren 124.4 eta MFEOren 29.1 art.). Prestigioa aintzatetsitako duten eta hamabost urtean baino gehiagoan profesioan aritu diren jurista espainiarren artean hautatzen da.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostena jaso ondoren, gobernuak bere proposamena jakinaraziko dio Diputatuen Kongresuari, Kamararen Batzorde egokiaren aurrean hautatutako pertsona agertzea agindu ahal izateko, kandidatuaren merituak eta egokitasuna balioesteko helburuz –(MFEOren 29.2 art.).

Izendatu ondoren, estatuaren fiskal nagusiak legeak aurreikusitako zina edo promesa egingo du Erregearen aurrean eta kargua hartuko du Auzitegi Gorenaren Osoko Bilkuraren aurrean –(MFEOren 29.3 art.).

Lehen adierazi dugunez, 2007ko MFEOren aldaketaren ondorioz EFN-hautagaia Kongresuaren Batzorde baten aurrean agertu behar da, Erregeak izendatu baino lehen, eta BJKN entzun ondoren. Horrela, gainerako bi botereen (Legegilearen eta Judizialaren) parte hartzea lortzen da, MFren goreneko burua izendatzean. Biei esleitzen zaizkie balioespen-funtzioak, baina inongo lotesle-izaerarik izan gabe.

Orain arte, bi harreman edo kontaktu besterik ez zeuden arauetan aurkitu ahal ziren EFN eta Botere Legegilearen artean: bata, EKren 76. artikuluan jasota eta, bestea, MFEOren 9. eta 10. artikuluetan aurreikusia. Lehenengoari dagokionez, EFNri helaraziko zaizkio Kongresu edo Senatuaren ikerketa-batzordearen emaitzak, egokia

denean, akzioak egikaritzeko. Bigarren harremanari dagokionez, EFNk Gorte Orokorrei urteko memoria aurkeztu behar die, eta Gorte Orokorrekin kolaboratu behar du, edo haiek eskatzen diotenean, haien aurrean agertu.

Baina galdera da: nola balioetsiko da hautagaiaren gaitasuna? Zer galdera egin ahal izango zaizkio Batzordearen aurreko agerpenean? Argi dago balioespena MFEOren 29. artikulua baldintzetara mugatu beharko litzatekeela. Hautagaiak prestigioa aintzatetsitako eta hamabost urtean baino gehiagoan profesioan aritu den jurista izan behar duenez, batzordearen kideek egiaztatu eta kontrolatu beharko dituzte pertsona horren merituak eta bere jardura profesionala. Beraz, agerpen horretan ez legoke egiterik politika edo ideologia pertsonalari buruzko galderarik.

Gorago adierazi dugunez, hautagaia agertuko da BJKN entzun ondoren eta Erregeari proposamen formala egin aurretik. Ildo horretatik, ulertu behar da Batzordearen aurrean agertzea dela izendapenaren prozedura formalaren alde aurreko pausoa; bestela EKren 124. artikulua kontra jo liteke, horrek aurreikusten ez duen izapide bat gehitzen baita.

Botere Judizialaren eta Legegilearen txostenak egin ondoren, gobernuak azken proposamena egingo dio Erregeari, hark izendapena egiteko. Horrela, EFN izendatzen estatuaren hiru botereek parte hartzen dute: Botere Exekutiboak proposamena egiten du, Botere Judizialari –(BJKNren bitartez) entzun egiten zaio eta, amaitzeko, Botere Legegileak (Batzordearen aurreko agerpenean) balioesten du hautagaiaren gaitasuna.

Dena dela, autore batzuen ustez agerpena azalekoa da, Erregeak ez baitu proposamena atzera botatzeko ahalmenik, nahiz eta hautagaia Batzordeak berretsia ez izan³⁴. Bere parte-hartzeak ez du gobernu lotesten; dena dela, horrek ez du esan nahi Botere Legegileak uko egiteak balio politikorik izango ez duenik.

5.2.3. Karguaren iraupena eta kargutik kentzeko zioak

³⁴ Horren inguruan, ikus LANZAROTE MARTÍNEZ, P., *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal...*, op. cit., 391. or.

24/2007 Legea onartu arte, EFNren karguak ez zuen legez zehaztutako gehienezko iraupenik, ezta kargua uzteko zio objektiborik ere. Hauxe izan da, hain zuzen ere, EFNren gainean egon diren alderdikerien susmoetariko bat. Betidanik gobernuaren interesak auziaren tartean sartuta egon direnez, mantendu egiten da EFNren jarduera kargutik kentzearen aukerak baldintzatzen duen ustea³⁵.

24/2007 Legearen ondorioz, MFEOren 31. artikulua honako hauek aurreikusten ditu:

- EFNren agintaldiaren gehienezko iraupena: lau urtekoa. Horrekin batera, artikulua beraren 2. atalean agintaldia berritzeko aukera mugatua.
- Lau urteko agintaldia amaitu baino lehen kargutik kentzeko zioak. Gainera, 3. atalean –(kasu batzuetan) Ministroen Kontseiluak zio horiek balioesteko ahalmena jasotzen da.

EKren 124. artikulua ez du ezer ere aipatzen EFNren karguaren gehienezko iraupenari edo kargutik kentzeari dagokionez; beraz, ikuspuntu horretatik ez dago inolako arazorik legeak egindako erreformarekin. Artikulu horrek izendapena aurreikusten du baina ez kargutik kentzea³⁶.

Azter ditzagun aurreikuspenak, banan-banan.

a) Gehienezko agintaldia

24/2007 Legeak EFNren karguaren gehienezko iraupena zehazten du: lau urte. Epe hori bat dator EFN hautatzen duen gobernuaren agintaldiarekin. Horrek ziurtatzen du kargua ez dela luzatuko gobernuaren agintaldia baino gehiago.

Estatutuaren erreformaren tramitazioan zehar alderdi politikoek bost urteko epea aldarrikatu zuten, estatuko goi-mailako beste kargu batzuetan bezala. Horretarako

³⁵ Izan ere, alderdi politiko eta fiskalen elkarte gehienezko aldarrikapena izan da legeak zehaztea karguaren iraupena eta kargutik kentzeko zioak.

³⁶ LANZAROTE MARTINEZEN ustez, 2007ko erreforma aukera egokia izan zitekeen Botere Judizialaren aurrean EFNren inpartzialtasuna indartzeko. Ikus LANZAROTE MARTÍNEZ, P., *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal...*, op. cit., 395. or.

argudio hau ematen zen: modu horretan agintaldiaren iraupena ez litzaioke legealdiari egokituko, eta EFN izendatu duen gobernuarekin ez litzateke lotuko; era berean, gobernu berriak aurrekoak izendatutako EFNren jarduera balioestea izango luke.

Hala ere, badira bost urteko gehienezko iraupenaren aurkako argudioak ere. Autore batzuen ustez, bost urteko epea Konstituzioaren kontrakoa izan liteke; epe hori legealdia baino luzeagoa izanik, gobernu berriak ezingo luke egikaritu Konstituzioak EFN berria izendatzeko esleitutako ahalmena³⁷.

Esan dugunez, azkenean 24/2007 Legeak lau urteko epea jaso zuen, baina horretaz gain, MFEOren 31. artikulua (2. atalean) gehitzen du amaitu ondoren ez dagoela agintaldia berritzerik, kasu batean izan ezik: bi urte baino gutxiagoan izatea kargua³⁸.

Neurri horrek helburu zehatza dauka: EFNri autonomia handiagoa esleitzea. Horrela, EFNk tarte handiagoa izango du beharrezko erabakiak hartzen jarduteko (nahiz eta horiek gobernu ukitu) bigarren agintaldi baten itxaropenaren menpe jardun gabe.

b) Kargutik kentzeko zioak

24/2007 Legearen erreforma egin aurretik, Botere Exekutiboak askatasun osoz eta ziorik gabe ken zezakeen kargutik EFN. Gaur egun, aldiz, (erreformaren ondorioz) MFEOk kargutik kentzeko zioak aurreikusten ditu 31. artikuluan; dena dela, aztertu beharko genuke arau berriak gobernuaren diskrezionaltasuna benetan desagerrarazten duen ala ez.

EFNren agintaldia amaitu baino lehen, zio hauengatik baino ezin izango da kargutik kendu:

³⁷ Baina beste autore batzuek ere agerian uzten dute bost urteko epearekin ez zaiola gobernu berriari EFN izendatzeko ahalmenik kentzen, hura egikaritzeko aukera atzeratzen baizik. Ikus LANZAROTE MARTÍNEZ, P., *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal...*, op. cit., 397. or.

³⁸ MFEOren 31. artikulua aurreikuspena 9. aldi baterako xedapenarekin osatu behar da. Azken horrek dioenaren arabera, 24/2007 Legea indarrean sartzean EFNk karguan jarraituko du eta 31.1 artikulua zehaztutako zioengatik bakarrik utziko du kargua. Bestalde, aipatutako legea indarrean sartu baino lehen EFNren kargua izan dutenak ez dira baztertzen, eta hautagai moduan proposa ditzake gobernuak.

- Eskaera propioa
- Legeak aurreikusitako bateraezintasun edo galarazpenen batean erortzea
- Karguan jarduteko ezgaitasun edo gaitasunik gabe uzten duen gaixotasuna
- Funtzioak ez-betetze larria edo errepikatua
- Izendatu zuen gobernuaren amaitzea

Lehenengo lau zioak Ministroen Kontseiluak aintzatetsiko ditu. Beraz, nabarmendu beharke gure gobernuak berak balioesten duela EFNren funtzioak ez-betetze larria edo errepikatua; hau da, gobernuak askatasunez balioesten ditu noiz eta zein zioengatik gertatu den funtzioak ez betetzea. Kargutik kentzeko zioak tasatuak izanda ere, erreforma egin ondoren mantendu egiten da gobernuaren diskrezionaltasuna; izan ere, berak erabakitzen du zein diren EFN kargutik kentzeko egoerak.

Erreforma egin aurretik EFN kargutik kentzeko ziorik aurreikusten ez zuenez, ez zegoen gobernuaren jokaera auzitegien bitartez kontrolatzerik. Baina erreforma egin ondoren, kargutik kentzeko legezko zioak jasotzeak posible egiten du Ministroen Kontseiluaren erabakiak jurisdikzioak kontrolatzea. Legeak aurreikusten ditu EFN kargutik kentzeko zioak, gobernuak kontuan hartu beharreko zio tasatuak; beraz, administrazioarekiko auzi-jurisdikzioak kontrolatu dezake EFN kargutik aldentzeko gobernuaren erabakia³⁹. Hau da, EFN kargutik kentzeko gobernuaren erabakia aurkara liteke administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean⁴⁰.

Kasu horretan, legebiltzarrak ez du inolako ahalmenik EFN kargutik kentzea erabakitzeko, nahiz eta Konstituzioaren ikuspuntutik posible izan.

Gaur egun, erreformaren ondorioz ez da eskatzen BJKNren entzunaldirik EFN kargutik kentzeko. Baliteke haren parte-hartzeak prozeduraren objektibotasuna indartzea.

³⁹ Horren inguruan hainbat epai aurki daitezke; besteak beste, AGren 1997ko apirilaren 4koa eta 2005eko abenduaren 2koa.

⁴⁰ Gobenuak EFN kargutik kentzeko erabakia jurisdikzioak kontrolatzeko aukerari buruz, ikus LANZAROTE MARTÍNEZ, P., *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal...*, op. cit., 405-409 or.

Amaitzeko, eta ondorio moduan, esan behar da mantendu egiten dela EFNren gobernuarekiko menpekotasuna, erreformaren helburua kontrakoa izan den arren. Aurrerapena izan da agintaldiaren gehienezko iraupena eta kargutik kentzeko zioak aurreikustea, baina ez da amaitu gobernuak EFNren borondatea hertsatzeko arriskua.

5.2.4. Ahalmenak eta funtzioak

a) Ministerio Fiskalaren Burutza Nagusia

Hasteko, EFNk Ministerio Fiskalaren Burutza Nagusia eta bere ordezkariak dauka estatu osoan (MFEOren 22.2 art.). Gainera, Auzitegi Goreneko Fiskaltzaren burua da (MFEOren 17. art.).

b) Estatuko Fiskaltza Nagusiaren zuzendaritza

Aurreko funtzioarekin lotuta, EFNk Estatuko Fiskaltza Nagusia zuzentzen du; azken hori osatzen dute Ikuskaritza Fiskalak, Idazkaritza Teknikoak, Laguntza-unitateak eta pertsonalean zehaztutako Salako fiskalek (MFEOren 13 art.).

EFN Ministerio Fiskalaren goreneko burua izanik, Ministerio Fiskalaren edozein kide izenda dezake arazo jakin batean jarduteko (hasieran dagokion fiskala ez den bat), baldin eta prozesuaren berezitasunek fiskal zehatz baten parte-hartzea gomendatzen badute. Baldintza bakarria Kontseilu Fiskalaren alde aurreko entzunaldia da.

c) Hainbat organoren presidentzia

Salako Fiskalen Batzordearen eta Kontseilu Fiskalaren batzarren buru da (MFEOren 14. eta 15. art.). Aldi berean, autonomia-erkidegoetako Fiskal Nagusien Batzarren buru ere bada. Autonomia-erkidegoetako Fiskal Nagusien Batzarra (MFEOren 12. art.) 24/2007 Legearen ondorioz sortutako organoa da, eta fiskal nagusiek, Auzitegi Goreneko teniente fiskalak eta Idazkaritza Teknikoaren fiskalburuak (idazkariak)

osatzen dute. Helburua honako hau da: estatu osoaren fiskaltza guztien jarduerabatasuna eta funtzionamenduaren koordinazioa lortzea. Batzar horretara dei daiteke Ministerio Fiskalaren edozein kide, aztertuko diren gaiak kontuan hartuta (MFEOren 16. art.).

d) Lantokiak zehaztea

Idazkaritza Teknikoaren lantokiak zehaztea dagokio (Laguntza-unitarearen fiskalak sartuta daude 24/2007 Legearen ondorioz). Horiek EFNk berak ordezkatzeko dituzuzenean eta, horrekin batera, kargua utziko dute; dena dela, EFNk berriz izenda ditzake (MFEOren 36.3 art.).

Era berean, Fiskaltzen Atalen fiskal-dekanoak izendatzen ditu, egokia den fiskalburuaren proposamenean. Fiskaltza Berezien fiskal ordezkarien izendapena ere badagokio (MFEOren 19.5 art.).

e) Izendapenak eta igoserak proposatzea

Gobernuari proposatzen dizkio hainbat karguren izendapenak eta igoserak, Kontseilu Fiskalaren alde aurreko txostena emanda, eta egokia den autonomia-erkidegoko fiskal nagusia entzunda, haren lurralde-eremuaren barruko karguan izanez gero (MFEOren 13.1 II art.).

f) Aginduak eta instrukzioak ematea

Ministerio Fiskalaren kide guztiei eman diezazkieke aginduak eta instrukzioak. Agindu eta instrukzio horiek hainbat motatakoak izan daitezke: Ministerio Fiskalari dagokion funtzioak betetzeari buruzkoak, eraketari buruzkoak, barruko funtzionamenduari buruzkoak, kontu orokorreari dagokienez eta baita auzi konkretuei dagokienez ere. Azken kasu horretan, EFNk agindu zuzenak eta zehatzak ematen ahal dizkio fiskal konkretu bati.

Ikus daitekeenez, EFNri dagokio instrukzio orokorrak eta instrukzio zehatzak ematea. Alde batetik, instrukzio orokorrak ematen ditu interpretazio juridikoari buruzko irizpideak zehazteko (izaera loteslea izango dutenak) eta, horrela, estatu mailan jarduera-batasuna lortzeko; eta, beste aldetik, Ministerio Fiskalaren edozein kideri instrukzio edo agindu zehatzak zuzentzen ahal dizkio kasu konkretu bati dagokionez, eta horrek prozesuaren garapena baldintzatu ahal izango du, auziaz arduratzen ari den fiskalaren iritzia kontuan hartu gabe. Izan ere, ildo horretatik MFEOren 25. artikulua aurreikusten du MFren kideek EFNri jakinaraziko dizkiotela beren eginkizunari buruzko egitateak, garrantzia dela eta ezagutu behar dituenak. Aginduak, instrukzioak eta komunikazioak nagusi hierarkikoaren bitartez egingo dira, kasuaren urgentzia dela eta zuzenean egin behar denean izan ezik; azken kasu horretan geroko jakinarazpena egingo zaio.

Antzeko funtzioak dituzte autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek beren eremuko fiskalburuei dagokienez.

Ez dago inolako arazorik emandako instrukzioak orokorrak direnean (legearen interpretazio bateratua behar duten kontu doktrinalak edo antolaketa-kontuak, besteak beste) horiek publikoak baitira; arazoa agertzen da instrukzio horiek bereziak badira edo auzi jakin baterako ematen badira. Azken kasu horretan, zalantzak sor daitezke MFren jardueraren neutraltasunari buruz, batez ere ondorio politikoa izan dezaketen kasuak epaitzen direnean. Zalantza horiek desagerrarazteko, MFEOren 25. artikulua jasotzen du, EFNren instrukzioak gobernuaren kideren bat ukitzen duenean, alde aurretik Salako Fiskalen Batzarrari entzun beharko diola –(24/2007 Legearen ondorioz sartutako aurreikuspena). Horrelako kasuetan, EFNk Fiskalen Batzarrari deituko beharko dio, non eman beharreko instrukzioa edo agindua eztabaidatuko baita. Horrela bermatzen da MFren parte-hartzearen gardentasuna eta inpartzialtasuna, gobernuaren kideak sartuta dauden kasu jakin batean.

g) Funtzioak eskuordetzea

EFNk bereak diren funtzio batzuk Salako fiskalak eskuorde ditzake. Horrela, Salako fiskal eskuordetu horiek beteko dituzte eskuordetze-ekintzaren barruan dauden funtzioak; dena dela, aldatzen ahalko dira eta beren funtzioak amaituko dira EFN kargutik kentzearekin batera. Eskuordetze-ekintzak funtzioen mugak zehazten ditu, eta horien barruan daude honako hauek: egokitzat hartzen dituzten zirkularrak eta instrukzioak EFNri proposatzea, fiskal espezialistak formatzeko irizpideak zehazten parte hartzea, eta Fiskaltzen jarduera koordinatzea estatu-mailan, lurralde-organoen fiskalburu bakoitzaren ahalmenei kalterik egin gabe (MFEOren 22.3 art.).

h) Txostenak jasotzea eta instrukzioak ematea

EFNk Ministerio Fiskalaren edozein kideri dei diezaioke haren txostenak jasotzeko eta egokiak diren txostenak emateko, fiskalburu bakoitzari helaraziz. Era berean, Ministerio Fiskaleko edozein izenda dezake gai jakin batean jarduteko edozein jurisdikzio organoren aurrean, non Ministerio Fiskalak parte hartzeko legitimazioa baitu, Kontseilu Fiskala entzunda (MFEOren 26. art.).

i) Diziplina-ahalmena

EFNren diziplina-ahalmenaren ikuspuntutik, honako hau dagokio: lana eta soldata kentzearen zigorra ezartzea, zerbitzutik banantzearen zigorra proposatzea Justizia Ministerioari, Kontseilu Fiskalaren alde aurreko txostena emanda (MFEOren 67.1 eta 2. art.).

5.2.5. Estatuaren fiskal nagusiar laguntzeko organoak

Lehen adierazi dugunez, EFNk zuzentzen du estatuko Fiskaltza Nagusia, eta horren barruan hiru organo daude: Ikuskaritza Fiskala, Idazkaritza Teknikoa eta Laguntza-unitatea (hari laguntza ematen diotenak).

5.2.5.1. Ikuskaritza Fiskala

Fiskalburu inspektorearen zuzendaritzaren menpe, Ikuskaritza Fiskala osatzen dute teniente fiskal inspektore batek eta plantillan zehazten diren inspektore fiskalek.

MFren barruko funtzioak betetzen ditu, besteak beste, organoen funtzionamenduaren eta karrera fiskalaren kideen jardura funtzionarialaren gobernua, zainketa eta kontrola. Dena dela, estatutuak ez ditu bere funtzioak zehaztasunez arautzen eta arauak esaten duenera bidaltzen du (eta araua oraindik onartzeko dago).

MFEoren 13.2 artikulua dioenez, bere funtzioak EFNk eskuordetuta betetzen ditu arauak adierazten duen moduan, Fiskaltza bakoitzaren fiskalburuak bere menpekoei dagokienez dituzten ikuskatze-funtzioei kalterik egin gabe. Bere aldetik, autonomia-erkidegoaren fiskal nagusiak eskumena izango du bere lurraldearen barruan ikuskaritza arrunterako.

Organo horren barruan Balioespen Atal Iraunkorra eratuko da, fiskalen meritu eta gaitasunari buruzko datu guztiak zentralizatzeko, izendapen diskrezionalen proposamenak Kontseilu Fiskalari informatzearren.

5.2.5.2. Idazkaritza Teknikoa

Organo horrek ere funtzio teknikoak betetzen ditu. Zuzendaritzaren menpeko fiskalburu batek, teniente fiskal batek eta plantillan zehazten diren fiskalek osatuko dute (MFEoren 13.3 art.).

Prestatze-lanak egiten ditu materietan, eta horietan Salako Fiskalen Batzarrari laguntzea dagokio EFNri; egokitzat hartutako ikasketak, ikerketak eta txostenak ere egiten ditu.

Bestalde, parte hartuko du karrera fiskalaren kideen formazioaren planifikazioan, eta hori ikasketa juridikoen eskumena da.

Amaitzeko, beste organo batzuei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, bere gain hartuko ditu nazioarteko kooperazio judizialean MFri esleitzen zaizkion funtzioak.

5.2.5.3. Laguntza-unitatea

Fiskalburu baten zuzendaritzaren menpe egongo da eta plantillak zehazten dituen fiskalek osatuko dute organo hau.

Estatuko Fiskaltza Nagusiari hainbat gaitan laguntzea da bere funtzioa:

- Ordezkaritza instituzionala eta botere publikoekiko harremanak
- Komunikazioa, komunikabideekiko harremanak eta herritarrentzako arretaren kudeaketa
- MFren antolakuntza eta funtzionamenduaren beharrei buruzko proposamenak balioestea eta aztertzea, estatistika, pertsonal, baliabide material, informazio eta dokumentazio materietan
- Eta, oro har, EFN, Kontseilu Fiskal eta Salako Fiskalen Batzarrarentzako laguntza-funtzioak

Funtzio horiek betetzeko estatuaren Administrazio Orokorraren eta Justizia Administrazioaren funtzionarioak Laguntza-unitateari atxikitze aukera ematen du MFEOren 13.4 artikulua.

5.3. Autonomia-erkidegoen fiskal nagusiei eta fiskalburuei aipamen berezia

MFEOren 12.1 artikulua ez ditu jasotzen autonomia-erkidegoen fiskal nagusiak eta fiskalburuak MFren organo propio moduan; bi organo horien kontu batzuk aztertuko ditugu.

5.3.1. Autonomia-erkidegoen fiskal nagusiak

Autonomia-erkidegoko fiskal nagusiak⁴¹ MFren ordezkariak dauka autonomia-erkidegoaren barruan, eta Ministerio Fiskalaren zuzendaritza du eremu horretan.

5.3.1.1. Izendapena

Bere izendapenaren prozedura EFNrenaren antzekoa da. Ildo horretatik, Autonomia Estatutuek Justizia Kontseilua aurreikusten dutenean, entzun egin beharko zaio, derrigorrez, gobernua autonomia-erkidegoko fiskal nagusia izendatu baino lehen. Organo horrek txostena aurkeztu ondoren, legebiltzar autonomikoari jakinaraziko zaio hautagaiaren proposamena, proposatutako pertsonaren agerpena agintzeko Ganberaren Batzordearen aurrean. Hark balioetsiko ditu hautagaiaren meritua eta gaitasuna.

5.3.1.2. Funtzioak

MFEoren 22.4 artikulua adierazten duenez, *Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek, beren Fiskaltza zuzentzeaz gain, dagokien autonomia-erkidegoko eremu osoan jardungo dute, horretan bere egiten dutelarik Ministerio Fiskalaren ordezkariak eta burutza, EFNren esleipenei kalterik egin gabe*. Horren ondorioz, manu horrek jarraitzen du esanez autonomia-erkidegoko fiskal nagusiei dagozkiena:

- Beren lurraldeko fiskalburuen Batzarren buru izatea
- MFEoren 11., 21., 25. eta 26. artikuluetan EFNri esleitutako funtzioetan jardutea
- EFNk bere gain uzten dituen funtzioak
- Diziplina-materiari buruzko funtzioak

Bestalde, MFEoren 11.2 artikulua beste hainbat funtzio esleitzen dizkie autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiei. Haiek *beren lurralde-eremuko Fiskaltzen jarduerari buruzko urteroko memoria egiten dute, eta EFNri aurkezten diote*. Era berean, memoria horren kopia bana helaraziko diete gobernuari, Justizia Kontseiluari

⁴¹ 24/2207 Legearen ondorioz, autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiak ordezkariak du Justizia Auzitegien fiskala.

eta erkidegoko Legebiltzarrari. Amaitzeko, manu berak hau gehitzen du: *Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiak elkarlanean arituko dira autonomia-erkidegoko Legebiltzarrarekin [...] EFNren eta Gorte Orokorren arteko harremanetarako aurreikusitako egoera eta baldintza berdinetan.*

5.3.2. Fiskalburuak

Fiskaltzak fiskalburuaren menpe daude, eta harekin batera egongo dira teniente fiskala eta plantillak zehazten dituzten fiskalak ere.

5.3.2.1. Izendapena

Gorago adierazi dugunez, ukaezina da gobernuaren esku-sartzea karrera fiskalaren goi-mailako karguak izendatzeko. Horren adierazpena da MFEOren 36.1 artikuluaurreikuspena. Manu horrek dioenaren arabera, horrela izendatzen dira fiskalburuak. Izendapen horiek EFNk proposatzen ditu (MFEOren 13. artikulua adierazten duen moduan), Kontseilu Fiskalak alde aurreko txostena emanda. Hark ematen du hautagaien gaitasunari buruzko iritzia.

Hala ere, artikulua berak aurreikusten du EFNk berak izendatuko duela eta kargutik kenduko Idazkaritza Teknikoaren fiskalburua. Horrek EFNrekin batera utziko du kargua; dena dela, funtzioetan jarraituko du EFN berria karguetan ordezkatur berretsia izan arte (MFEOren 36.3 art.).

EFNk Kontseilu Fiskalari jakinaraziko dizkio izendapen horiek eta Idazkaritza Teknikoaren fiskalbururako hautagaiaren lehenengo kategoriarako igoera, gobernuari proposamena helarazi baino lehen. MFEOren 36.3 artikulua berariaz jasotzen du hemen ez dela aplikatzen 13. artikulua aurreikusitakoa.

5.3.2.2. Kargualdiaren iraupena

Bost urterako izendatzen dira fiskalburuak. Epe horren barruan, EFNren proposamenean, gobernuak askatasunez ken ditzake kargutik, aldez aurretik Kontseilu Fiskalari eta interesatuari entzun ondoren (MFEOren 41. art.)⁴².

Bost urterako izendatuko dira Auzitegi Goreneko teniente fiskala, estatutuaren 20. eta 35.1 k) artikuluen Salako fiskalak eta lehenengo mailako gainerako fiskalburuak. Epea amaitu ondoren kargua utziko dute, burutza horretarako berriz izendatzen direnean izan ezik iraupen berdineko segidako denboraldietarako. Legezko epea amaitu ondoren, berretsiak edo beste burutza baterako izendatuak ez badira, Auzitegi Goreneko Fiskaltzara edo lehenengo mailako burua duten edozein Fiskaltzari atxikita geratuko dira, baina, edozein kasutan, beren mailari eutsiko diote (MFEOren 41.1 art.). Erregimen bera aplikatzen zaio Idazkaritza Teknikoaren fiskalburuari (MFEOren 41.2 art.).

Bigarren kategoriako fiskalburuak ere bost urterako izendatuko dira; eta horiekin batera, lehenengo kategoriako burua duten Fiskaltzetako teniente fiskalak eta autonomia-erkidegoetako Fiskaltzen teniente fiskalak. Epea amaitutakoan kargua utziko dute, kargu horretarako iraupen berdineko segidako denboraldietarako berriz izendatzen direnean izan ezik (MFEOren 41.3 art.).

Bigarren kategoriako fiskalburuak eta aurreko paragrafoan aipatutako teniente fiskalak atxikita geratuko zaizkie burutza izan duten Fiskaltzari edo kargurako izendatu zirenean zerbitzuak ematen zituzten Fiskaltzei (karguetan ordezkatuak edo kargutik kenduak izan ondoren, edo EFNk onartutako uko egitearen kasuan), haien aukerak eta behin betiko postua lortu arte (MFEOren 41.4 art.).

MFEO aldatu zuen 14/2003 Legeak bost urteko epealdia arautu zuen Ministerio Fiskalaren funtzionamendurako erantzukizun berezia duten karguetarako⁴³ eta, ildo beretik, 24/2007 Legeak denboraldiko agintaldiaren erregimena aplikatu die autonomia-

⁴² Hemen gehitu behar da fiskalburuak ere kargutik kentzen ahal direla diziplina-espeditatea dela eta, falta larri edo oso larriengatik zigortzen direnean (MFEOren 66. art.).

⁴³ Uste izan zen aurreko egoera bateraezina zela karrera judizialaren kargu batzuekin gertatzen zenarekin. Gogora dezagun behin-behinekoak direla Auzitegi Goreneko Salako, Entzutegi Nazionaleko, Justizia Auzitegi Nagusietako edo Probintzia Entzutegietako presidentziak ere. Iraupen berdineko agintaldietarako berriz izendatzeko aukera izanik, denboraldi baterako karguaren erregimenak biziarteko kargu izatea saihesten da, baina, aldi berean, betiko arriskua ekar dezake: fiskalburuaren jarduera berriz izendatua izateko aukeraren baldintzapean egotea.

erkidegoetako teniente fiskalei eta lehenengo kategoriako fiskalburua duten Fiskaltzen fiskalburuei ere. Izan ere, lege horren zioen azalpenak argi uzten du bost urtean behin berrituko direla fiskalburu guztiak eta berariazko erantzukizuneko kargua dutenak.

5.3.2.3. Kargutik kentzea

Fiskalburuak hiru ziorengatik kendu ahal dira kargutik:

- Aurreko puntuan adierazi dugunez, bost urteko epealdia amaituta kargua utziko dute fiskalburuek (karguan berrituak direnean izan ezik).
- Fiskalburuak ziorik gabe kargutik kentzeko aukera dago
- Diziplina-espediente baten ondorioz

Gobernuak kargutik ken ditzake, EFNk proposatuta, organo bakoitzaren fiskalburuak, bigarren kategoriako fiskalburuak, lehenengo kategoriako burua duten Fiskaltzen teniente fiskalak eta autonomia-erkidegoetako Fiskaltzen teniente fiskalak. Horrek alde zuzenetik entzun beharko die Kontseilu Fiskalari, interesatuari eta, kasu berean, autonomia-erkidegoko fiskal nagusiari. Era berean, autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek ere EFNri proposatu ahal izango diote gobernuak kargutik ken ditzatela beren lurralde-eremuko organoen fiskalburuak (MFEOren 41.5 art.).

Kasu horretan ez dago ziorik fiskalburua kargutik kentzeko. Hau da, diskrezionaltasunez erabakitzen da, izendapenarekin gertatzen den moduan.

Amaitzeko, eta gorago adierazi dugunez, fiskalburuak kargutik ken daitezke diziplina-espedientea dela eta. MFEOren 66.1 artikulua azken paragrafoak adierazitakoaren arabera, kargutik kendu ahal izango da falta larri edo oso larriarengatik zigortutako fiskalburua, EFNk proposatuta eta Kontseilu Fiskala entzun ondoren.

5.3.2.4. Ahalmenak eta funtzioak

Fiskalburuek EFNren antzeko ahalmenak dituzte (MFEOren 25. eta 26. artikuluek zehaztutakoak), baina, fiskalburuen kasuan, beren funtzioak betetzen dituzten organoen fiskalen gain.

MFEOk ahalmen eta funtzio hauek esleitzen dizkie fiskalburuei –(MFEOren 22.5 art.):

- Plantillako fiskalen artean zerbitzuak eta lanak banatzea eta Adingabeen Atalaren kideen atxikitzea antolatzea, Fiskaltzaren Batzordea entzun ondoren.
- Beren eskumenaren barruan dauden baimen eta lizentziak ematea
- Diziplina-ahalmena
- Egokiak diren sariak, merituak eta ohorezko aipamenak egitea
- MFEOk edo beste xedapen batzuek esleitutako gainerako ahalmenak

Segidan landuko ditugu garrantzitsuentzat har daitezkeen funtzioak:

a) Beren Burutzaren Fiskaltza zuzentzea

Fiskalburuek dagokien Burutzaren Fiskaltzaren zuzendaritza dute, nagusi hierarkikoen eta EFNren menpe⁴⁴. Izan ere, Ataleko Fiskaltzen⁴⁵ fiskalburuak probintziako fiskalburuen menpe daude, eta haiek, aldi berean, autonomia-erkidegoko fiskal nagusien menpe. Azken horiei estatutuak esleitzen dizkie EFNri dagozkion antzeko ahalmenak, baina *beren lurralde-eremuko fiskalburuengana mugatuta, eta biak dagozkien Ministerioaren menpeko kideei dagokienez* (MFEOren 25.III art.). Menpekotasun horren adierazpena aurki dezakegu MFEOren 41.5 artikuluan: *Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek EFNri proposatzen ahal diote beren lurralde-eremuko organoen fiskalburuen gobernua kargutik kentzea ere.*

b) Fiskalen artean zerbitzuak eta lanaren banaketa antolatzea

⁴⁴ Ahalmen hori garatzen du MFEOren 22.5 artikulua.

⁴⁵ 24/2007 Legeak sortutako organo berria, MFEOren 12.1 m) artikulua aurreikusia.

Fiskalburuei dagokie beren menpekoei aginduak, instrukzioak, errekerimenduak eta oharrak (idatziak nahiz ahozkoak) ematea. Horiek izan daitezke esleitutako funtzioak betetzeari edo zerbitzuen antolaketari buruzkoak, eta orokorrak nahiz auzi jakinei buruzkoak. Ildo horretatik, EFNrentzat adierazitakoa errepikatu beharko genuke.

Kasu horretan ere, fiskalburuen menpekoek bete beharra dauzkate emandako aginduak, instrukzioak, errekerimenduak eta oharrak; horrela egin ezean, diziplina-erantzukizuna izango dute falta oso larria, larria edo arina betetzeagatik (ikus MFEOren 62.2, 63.2 eta 64.6 art.).

c) Auzi jakin baterako fiskalak aukeratzea, ordezkatzeta edo auzia bere gain hartzea

Fiskalburuek ahalmen hauek dituzte: aldez aurretik esleituta ez daukan auzi jakin baterako fiskal arduradun zehatz bat izendatzea; auzi jakin batean eskuduna den fiskala beste batek ordezkatzeta; edozein auzi bere gain hartzea (MFEOren 23. art.). Hitz gutxitan esan genezake fiskalburuek ahalmena dutela aldez aurretiko lanaren banaketa aldatzeko.

Azter ditzagun hiru ahalmenak:

- Fiskalburuek fiskala aukera dezakete auzi zehatz baterako. Kasu horretan, auzia ez du hasten Fiskaltzaren kideen arteko lan-banaketaren arabera egokitzen zitzaien fiskalak, hots, fiskala aldez aurretik hautatzen da. Erabaki arrazoituaren bitartez egingo da eta, desadostasun kasuan, nagusi hierarkiko komunak erabakiko du. Kontseilu Fiskalari jakinaraziko zaio, eta hark iritzia eman dezake.
- Bestalde, posible da, lan-banaketaren ondorioz egokia den fiskalaren jarduera hasita egonik, fiskalburuak hura ordezkatzeta. Kasu horretan ere, desadostasunaren kasuan, nagusi hierarkiko komunak erabakiko du, eta beharrezko izango dira erabaki arrazoitua eta Kontseilu Fiskalari jakinaraztea.
- Amaitzeko, fiskalburuek beren gain har ditzakete beren menpekoak ezagutzen ari diren auziak. Aurreko kasuetan bezala, desadostasunaren kasuan, nagusi hierarkiko komunak erabakiko du; eta beharrezko dira erabaki arrazoitua eta Kontseilu Fiskalari jakinaraztea. Fiskalburuak berak balioesten du ahalmen hori

zein kasutan jarriko den praktikan; izan ere, edozein auzi bere gain hartzeko ahalmena esleitzen zaio, legeak ez baitu zio tasaturik eskatzen⁴⁶.

d) Izendapenak proposatzea

Fiskalburuek izendapenak proposatzeko ahalmena dute.

Fiskalburuek Fiskaltzen Saileko fiskal-dekanoak proposatzen dituzte EFNk izendatzeko (MFEOren 36.4 art.). Legeak eskatzen du proposamen hori arrazoitua izatea. Plantilla organikoak zehaztuko du Fiskaltza bakoitzean izenda daitezkeen fiskal-dekanoen gehieneko kopurua, antolaketa-eskaerak kontuan hartuta. Plaza horiek betetzeko beharrezkoa izango da pertsonalaren fiskalen artean deialdi bat egitea, fiskalburu bakoitzak proposamena egin baino lehen. Fiskalburuaren proposamenari itsatsiko zaizkio postua eskatu duten gainerako fiskalen zerrenda eta haiek alegatutako merituak.

Era berean, Saileko Fiskaltzen fiskalburuak Probintzia Fiskaltzen fiskalburuen menpe daude. Horrela, ez-agertze, hutsik egote, edo ezintasun kasuetan, ordezkatu egingo dira Ataleko Fiskaltzaren fiskal-dekano antzinenak, eta hark ez bada, Probintzia Fiskaltzaren fiskalburuak berak edo hark eskuordetzen duenak egingo du, ordezkapenaren zioa mantentzen den bitartean –(MFEOren 22.8 art.). Beraz, egoera horietan probintziako fiskalburuak izendatzen du Saileko fiskalburuaren ordezkoa; baina, kasu horretan, (aurrekoan ez bezala) legeak ez du eskatzen inolako baldintzarik hautaketa horretarako.

Bestalde, fiskalburuei dagokie probintzia eta autonomia-erkidegoetako Fiskaltzen Atal Espezializatuen arduradunak EFNri proposatzea. Eta atal honen hasieran komentatu dugunez, Saileko Fiskaltzen burutzaren arduradunak izendatzea ere

⁴⁶ 1969ko Arauaren 109. artikulua ahalmen hori aurreikusten zuen, baina kasu batzuetarako mugatua zen: a) materia penalean bideratutako auzietara eta garrantzia nagusiko epaiketetan agertzera, kontuan hartuta zigorraren larritasuna, iritzi publikoan eragindako alarma, delituaren subjektu pasibo edo aktibo moduan agertzen diren pertsonen kalitatea, ordena publikorako garrantzia edo parte-hartzeak funtzionarioarentzat ekar lezakeen arrisku pertsonala; b) materia zibilean entzute handikoak diren auzietara, eztabaidatzen diren interesen aparteko zenbatekoarengatik, interesatutako pertsonen kopuru edo beste zirkunstantzia batzuegatik.

badagokie, ez-agertze, hutsik egote edo horren buruaren nahiz fiskal-dekano antzinenaren kasuan (MFEoren 22.8 art.).

6. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN ANTOLAKETA. ORGANO KOLEGIATUAK.

6.1. Kontseilu Fiskala. 6.1.1. Hasierako kontuak. 6.1.2. Osaera. 6.1.3. Funtzioak.
6.2. Salako Fiskalen Batzarra. 6.2.1. Osaera. 6.2.2. Funtzioak. 6.3. Autonomia-erkidegoetako Fiskal Nagusien Batzarrak.

6.1. Kontseilu Fiskala

6.1.1. Hasierako kontuak

Kontseilu Fiskala EFNren laguntza- eta aholkularitza-organo moduan arautzen da. Hala ere, karrera fiskalaren barruko gobernuarekin lotutako kontuak erabakitzeke ahalmena ere esleitzen zaio.

Kontseilu Fiskalak EFNri laguntza ematen dio irizpide orokorrak lantzeko, MFren jarduera-batasuna lortzeko helburuz. Kontsulta- eta aholkularitza-organo gisa sortu zen, baina, horretaz gain, balio du bermatzeko MFren kideen (eta batez ere EFNren jarduera EK-k zehaztutako) helburuak eta funtzioak betetzen dituztela; hots, kontrol-organotzat ere har daiteke.

Autore batzuen ustez, Kontseilu Fiskala oinarrizko elementua izan liteke MFren autonomia eta legezketasun- eta inpartzialtasun-printzipioen menpekotasuna bermatzeko, legeak EMF eta fiskalburuei esleitutako ahalmenak mugatzeko organo bihurtuz⁴⁷. Baina, horretarako, haren funtzioak indartu beharko lirateke: entzun behar zaion kasuak gehitu, kasu batzuetan haren txostenei lotesteko indarra eman, eta abar. Hitz gutxitan, 24/2007 Legearen erreforma aukera ezin hobea izan zitekeen organo horren eskumenak indartzeko eta gehitzeko⁴⁸.

⁴⁷ Ikus LANZAROTE MARTÍNEZ, P., *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal...*, op. cit., 462. or.

⁴⁸ Karrera fiskalaren elkartek eta Kontseilu Fiskala bera organo horren esleipenak indartzearen alde agertzen ziren, MFren benetako autonomia lortzeko helburuz. Halere, 24/2007 Legearen erreformak ez du ezer aldatu ildo horretatik.

6.1.2. Osaera

Ikus dezagun zein den organo horren osaera.

Kontseilu Fiskala hamabi kidek osatutako organoa da; batetik, EFNk, Auzitegi Gorenaren teniente fiskalak eta fiskal-ikuskatzaile buruak –(horiek kide natoak dira) osatzen dute eta, bestetik, edozein kategoriatako bederatzi fiskalek (hautazko kideak direnak) (MFEoren 14.1 art.). Estatuaren fiskal nagusia da buru.

Auzitegi Gorenaren teniente fiskala, fiskal-ikuskatzaile burua eta estatuaren fiskal nagusia izan ezik, Kontseilu Fiskalaren kideak lau urterako izendatzen dira. Zerbitzu aktiboan dauden MFren kideek hautatzen dituzte horiek.

Ezin dira kontseilari moduan hautatu Ikuskaritza Fiskalean, Laguntza-unitatean eta Estatuko Fiskaltza Nagusiko Idazkaritza Teknikoan zerbitzatzen duten fiskalak (MFEoren 14.2 art.).

MFEoren 14. artikulua azken paragrafoak gehitzen du Berdintasun Batzorde bat sortu beharra dagoela Kontseilu Fiskalaren barruan, karrera fiskalean berdintasun-parametroen hobekuntza aztertzeko xedez. Haren osaera zehaztuko du Kontseilu Fiskalaren eraketarako eta funtzionamendurako araudiak.

Haren funtzionamenduaren ikuspuntutik, Osoko Bilkuran edo Batzorde Iraunkor moduan jardun dezake (MFEoren 14.3 art.).

6.1.3. Funtzioak

Epigrafe honen hasieran aipatu dugunez, Kontseilu Fiskala laguntza- eta aholkularitza-organo moduan sortu zen. Dena dela, MFEori erabakitzeke ahalmen batzuk esleitzen zaizkio, eta, kasu batzuetan, jakinarazpen-ahalmenak ere bai. Funtzio edo ahalmen horietariko batzuk aurreko lerroetan aipatu ditugun arren, legeak jasotako funtzio guztiak batuko ditugu jarraian.

MFEOren 14.4 artikulua, oro har, Kontseiluaren funtzioak jasotzen ditu. Hona hemen:

- a) MFren jarduera-batasuna bermatzearen irizpide orokorrak landu, bere organoen egituraketari eta funtzionamenduari dagokionez.
- b) EFNk aurkezten dizkion gaiei buruz gomendioak eman.
- c) Hainbat kargu izendatzeko proposamen egokiei buruz informatu.
- d) Karrera fiskalaren kideen igoerarako txostenak egin.
- e) Bere eskumenekoak diren diziplina eta meritu-espeditenteak erabaki, eta aintzat hartu litezkeen estatutuek jasotako bateraezintasunak.
- f) MFren organoen fiskalburuek diziplina-espeditenteetan ebatzitakoaren aurka tarteratutako helegiteak erabaki.
- g) Funtzio fiskalaren zerbitzu eta jarduerarako komenigarriak diren erreformak sustatu.
- h) Ikuskaritza Fiskalaren urteko planak ezagutu.
- i) Fiskalen formazio- eta hautaketa-planak ezagutu eta informatu.
- j) MFren egitura eta antolaketa-funtzioak ukitzen dituzten lege edo arauzko arauen proiektuak informatu. Xede horietarako txosten egokia eman beharko du Kontseilu Fiskalak, hogeita hamar egun balioduneko epean. Bidaltze-aginduan txostenaren premia agerian uzten denean, epea hamabost egun balioduneko izango da.
- k) EFNren eskumenarekin lotutako eskaerak zuzendu.

Aholkularitzari dagokionez, Kontseilu Fiskalak txostenak eginez betetzen du batez ere funtzio hori. Txosten gehienak ez dira lotesleak; honako hauek baino ez dute izaera loteslea:

- Haiei leporatu ahal zaizkien zioak direla eta, fiskalburuarekin desadostasun larriak edo auzitegiarekin liskarrak dituztenean, fiskalak nahitaez lantokitik aldatzea agintzeko aldeko txostena. Kasu horietan beharrezkoa izango da alde zuzeneko espeditente kontraesanekoa (MFEOren 40. art.).
- Zigor moduan, Justizia Ministroak (EFNk proposatuta) zerbitzutik banandu ahal izateko aldeko txostena (MFEOren 67. art.).

Bi txosten horiei beste bat gehitzen zitzaien: Kontseilu Fiskalaren txostena, karrera fiskalaren lehenengo kategoriara igotzeko. Baina 24/2007 Legearen erreforma egin ondoren, baztertuta geratzen da hura⁴⁹.

Ahalmen erabakitzaileri dagokienez, Kontseilu Fiskalak hainbat kontu erabaki behar ditu batzuetan. Ahalmen horiek honako hauek dira:

- Barruko funtzionamendua arautu –(437/1983 EDren 3. art.).
- Gerta litezkeen bateraezintasunak eta karguan jarduteko galarazpenak aintzat hartu (MFEOren 57. eta 58. artikuluetan jasotakoak, hurrenez hurren).
- Kontseilu Fiskalaren kideak kargutik kentzeari buruz erabaki, karguaren egitekoak betetzeko ezintasunak edo ezgaitasuna, alde zuzeneko espediente kontraesanekoa (EDren 437/1983 10. art.).
- Bere eskumenekoak diren diziplina eta meritu-espedienteak erabaki (MFEOren 14.4 e) art.).
- MFren hainbat organoren fiskalburuek diziplina-espedienteetan emandako ebazpenen aurka tarteratutako helegiteak erabaki (MFEOren 14.4 f) art.).

Amaitzeko, jakinarazpen-funtzioari buruzko aipamenak azaldu beharko genituzke:

- MFEOren 23. artikulua mintzatzen da fiskalburuek fiskalak ordezkatzeko, izendatzeko eta auzi jakin bat beren gain hartzeko dituzten ahalmenei buruz. Fiskalburuek ahalmen horiek praktikan jartzen dituztenean, Kontseilu Fiskalari jakinarazi behar zaio, hark bere iritzia eman ahal izateko.
- Ikuskaritza Fiskalaren urteko planak ere jakinarazi behar zaizkio (MFEOren 14.4 h) art.).
- EFNk genero-bortxakeriari buruzko sei hilabeteko txostena helarazi behar dio – (MFEOren 20.1 e) art.).

6.2. Salako Fiskalen Batzarra.

⁴⁹ Dena dela, aipatutako txostenaren izaera loteslea alde batera utzi zen urte batzuk lehenago, 1998ko apirilaren 13ko Auzitegi Gorenaren 3. Aretoren sententziaren ondorioz.

MFEOk arautzen du Salako Fiskalen Batzarra MFren kontsultarako eta EFNren aholkularitzarako organo kolegiatu moduan. EFNri laguntza ematen dio materia doktrinal eta teknikoan interpretazioaren eta jardueraren irizpide bateratuak lortzeko helburuz. Esan genezake Salako Fiskalen Batzarrak zehazten dituela MFren jarduteko irizpide juridikoak; izan ere, eremu horretan biltzen dira bere eskumen gehienak. Esleitutako funtzioen artean ez daude funtzio erabakitzaileak.

6.2.1. Osaera

Honako kide hauek osatzen dute Salako Fiskalen Batzarra: EFNk, Auzitegi Gorenaren teniente fiskalak eta Salako fiskalek. EFN Salako Fiskalen Batzarraren buru ere bada eta Idazkaritza Teknikoaren fiskalburuak jarduten du idazkari moduan – (MFEOren 15 art.).

Horiekin batera gehitu beharko genituzke Salako fiskal ordezkariak (ikus MFEOren 35.1 k) eta 15. art.). Hauek aurreikusten dira beste materia batzuetarako: emakumearen aurkako bortxakeria, lurralde-antolamendu eta ondare historikoaren babes, ingurune eta baso-suteei buruzko delitu, adingabeen babes, eta beste materia batzuetarako gobernuak beharrezko ikusten badu plaza horiek sortzea, Justizia Ministroak proposatuta eta Kontseilu Fiskalak aldez aurreko txostena emanda.

Gainera, organo horien barruan daude aurrekoetatik bereizten diren lehenengo kategoriako fiskalak. Honako hauek dira: fiskalburu ikuskatzailea, Laguntza-unitatearen fiskalburua, Entzutegi Nazionalako fiskalburua, Fiskaltza Berezien fiskalburua, Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzaren fiskalburua, Kontu Auzitegiaren fiskalburua eta Fiskaltza Togadunaren Salako fiskala (MFEOren 35.1 b), d), e), f), g), h), eta j) art.).

6.2.2. Funtzioak

a) EFNri laguntza ematea materia doktrinalean eta teknikoan

Fiskalen Batzarra da materia doktrinal eta teknikoan EFNri laguntzeko organoa. Hari esleitzen zaizkio honako funtzio hauek (MFEOren 15.II art.):

- Interpretazio eta legezko jardueraren irizpide bateratuak lantzea
- Kontsultak erabakitzea
- Memoriak eta zirkularrak egitea
- Gobernuari helarazi behar zaizkion proiektu eta txostenak prestatzea
- Antzekoak diren beste edozein, EFNk egokitzen jotzen badu horren ezagutza eta ikasketaren menpe jartzea
- Iritzia ematea EFNk menpekoei instrukzioak ematen dizkienean gobernuaren edozein kide ukinez gero –(MFEOren 25.I art.).

Salako Fiskalen Batzarra oinarrizko organoa da MFren kideek erabili behar dituzten interpretazio juridikoaren irizpideak lantzeko eta onartzeko. Horrela lortzen da MFren batasun-jarduera, MFren legearen aplikazio uniformearekin.

Dakigunez, EFNk interpretazio juridikoaren irizpide lotesleak ematen ditu instrukzio eta zirkularren bitartez. Irizpide horiek Idazkaritza Teknikoak egiten ditu materialki (MFEOren 13.3 art.). Dena dela, onartu eta argitaratu aurretik, Salako Fiskalen Batzarren txostena eman beharko du. Baina, egia esan, haren iritzia ez du izaera erabakitzaileko. Beraz, ondorio moduan esan liteke Salako Fiskalen Batzarra kontsulta- eta aholkularitza-organoa baino ez dela, aipatutako irizpide horiek zehazten laguntzeko (EFNk baitu azken hitza).

b) Aholkularitza- eta kontsulta-funtzioak

Salako Fiskalen Batzordeari esleitzen zaizkio EFNri aholkatzeko eta kontsultatuzko funtzioak, berak eman beharreko erabakien legezotasuna eta inpartzialtasuna errespetatzen direla bermatzearen. Horren adierazpenak aurki ditzakegu MFEOren hainbat manutan:

- Gobernuak Salako Fiskalen Batzarra entzunda izan beharko du EFNri *eskatzen* dionean auzitegien aurrean jarduera egokiak sustatzeko, interes publikoa defendatzearren (MFEOn 8.2 II art.). Baina, kasu horretan, kontuan hartu behar da Salako Fiskalen Batzarra Auzitegi Goreneko Salako fiskalek bakarrik osatuko dutela (hots, MFEOn 35.1 a) eta i) artikuluan jasoak); horregatik, ez leudeke hemen sartuta MFEOn 35.1 b), c), d), e, f), g), h), j), k) artikulua Salako fiskalak.
- Fiskal bat ados ez dagoenean EFNk emandako agindu edo instrukzio batekin (legez kontraktat edo desegokizat hartzen duelako), EFNk erabakiko du Salako Fiskalen Batzarra entzun ondoren (MFEOn 27.1 in fine art.).
- EFNk emandako instrukzioa gobernuaren edozein kide ukitzen duen auzi bati buruzkoa izanez gero, aldezturik Salako Fiskalen Batzarrari entzun beharko zaio (MFEOn 25.I art.).

c) Ahalmen erabakitzaileak

28.II artikuluan dago jasota MFEOk Salako Fiskalen Batzarrari esleitzen dion ahalmen erabakitzaile bakarra. Artikulu horrek aurreikusten du organo hori izango dela arduraduna EFNren abstentzioari buruz erabakitzeko⁵⁰. Kasu horretan, Auzitegi Gorenaren teniente fiskala izango da Salako Fiskalen Batzarraren buru.

Ikus daitekeenez, Salako Fiskalen Batzarrak oso mugatuta dauka erabakiak hartzeko ahalmena edo, hobe esanda, ia ez dauka ahalmenik. Gainera, Salako fiskalak izendatzeko sistema kontuan hartzen bada, ez da harritzekoa Salako Fiskalen Batzarrak dituen irizpideak honen buruarenak bezalakoak izatea.

6.3. Autonomia-erkidegoetako Fiskal Nagusien Batzarra

Autonomia-erkidegoetako Fiskal Nagusien Batzarra da MFren organo berria, 2007ko erreformak sortua (MFEOn 12.1 d) eta 16 art.).

⁵⁰ Erreforma burutu aurretik Justizia Ministroari zegokion. Ahalmen hori MFren organo bati esleitzea MFren autonomia bermatzeko bidetzat har liteke.

Batzar horren buru da EFN eta Auzitegi Gorenaren teniente fiskalak, autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek eta Idazkaritza Teknikoaren fiskalburuak osatzen dute; azken horrek idazkari moduan jardungo du.

Haren funtzioa da estatu osoan Fiskaltzen jardueraren batasuna eta koordinazioa segurtatzea, Kontseilu Fiskalak esleitutako eskumenei kalterik egin gabe.

Aztertu beharreko kontuak aintzat hartuta, MFren edozein kideri dei diezaioke Batzarrera.

7. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN ANTOLAKETA. FISKALTZAK.

7.1. Auzitegi Gorenaren Fiskaltza. 7.2. Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltza, Kontu Auzitegiaren Fiskaltza eta Entzutegi Nazionalaren Fiskaltza. 7.3. Fiskaltza Bereziak. 7.3.1. Drogen Aurkako Fiskaltza Berezia. 7.3.2. Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltza Berezia. 7.4. Fiskaltza Juridiko Militarra. 7.6. Saileko Fiskaltzak. 7.7. Fiskaltzen Batzarrak.

7.1. Auzitegi Gorenaren Fiskaltza

Auzitegi Gorenaren Fiskaltza estatuaren fiskal nagusiaren burutzaren menpe dago. Gainera, teniente fiskal batek, Salako fiskalek eta plantillan zehaztutako Auzitegi Gorenaren fiskalek osatzen dute, eta azken horiek bigarren kategoriakoak izan behar dira (MFEOren 17 art.).

Auzitegi Gorenaren teniente fiskalari honako funtzio hauek esleitzen zaizkio, estatutuak edo hura garatzen duen arauak emandakoez edo EFNk eskuordetu diezazkiokeen funtzioez gain:

- EFN ordezkatzea, ez-agertze, ezintasun edo hutsik egotearen kasuetan.
- EFNren ordezkaritzaz, Auzitegi Gorenaren Fiskaltzaren ohiko jarduera zuzentzea eta koordinatzea.

Auzitegi Goreneko fiskalek organo horren eremuan gauzatuko dituzte beren funtzioak.

7.2. Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltza, Kontu Auzitegiaren Fiskaltza, eta Entzutegi Nazionalaren Fiskaltza

Konstituzio Auzitegian aurreko Fiskaltza, Kontu Auzitegiaren Fiskaltza eta Entzutegi Nazionalaren Fiskaltza osatzen dute estatuaren fiskal nagusiaren (eta horiekin

batera Fiskaltza Bereziak) Salako fiskal batek, teniente fiskal batek eta plantillak zehazten dituen fiskalek, bigarren kategoriakoak izango direnak –(MFEOren 18.1 art.).

a) Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltza

Konstituzio Auzitegiak jurisdikzio espezifikoa du, eta horren aurrean MFk legitimazioa dauka babes eskeko helegitea tarteratzeko (EKren 162 b) art.). Baina hemen azpimarratu beharko genuke MFEOren 12.1 f) artikulua organo horren aurreko Fiskaltza aipatzen duela, eta ez Konstituzio Auzitegiaren Fiskaltza. Horrek esan nahi du Konstituzio Auzitegiaren aurrean jarduteko organoa dela, baina ez dagoela horren barruan integratuta.

b) Kontu Auzitegiaren Fiskaltza

Kontu Auzitegia estatuaren kontuen eta kudeaketa ekonomikoaren gorenko organoa da (EKren 136. art.).

MFEOren 18.1 II artikulua adierazten du Fiskaltza hau eraenduko dela Kontu Auzitegiaren Legeak zehaztutakoaren arabera. Kontuan hartu behar da, 1981. urtean, MFEO onartu zenean, artean ez zegoela auzitegi hori arautzen zuen legerik. Lege hori maiatzaren 12ko 21/1982 LO izan zen, apirilaren 5eko 7/1988 Legeak osatua.

c) Entzutegi Nazionalaren Fiskaltza

Entzutegi Nazionalaren Fiskaltzak jurisdikzio-organo horri dagozkion auziak ezagutzeko eskumena izango du, beste Fiskaltza berezi bati esleitzen zaizkionak izan ezik. Beraz, kontuan hartu beharko da BJLOren 65. artikulua esaten duena.

Konstituzio Auzitegiaren eta Kontu Auzitegiaren Fiskaltzen funtzioei buruz, lan honen 6. kapituluari aritu gara.

7.3. Fiskaltza Bereziak

MFEOk bi Fiskaltza Berezi aurreikusten ditu: Drogen Aurkako Fiskaltza eta Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltza.

7.3.1. Drogen Aurkako Fiskaltza Berezia

Martxoaren 5eko 5/1988 Legeak sortua, legez kontrako droga-trafikoaren prebentzio eta errepresiorako Fiskaltza Berezi moduan. Gaur egun, MFEOk emandako izendapena da Drogen Aurkako Fiskaltza Berezia (MFEOren 19.3 art.).

7.3.2. Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltza Berezia

Apirilaren 24ko 10/1995 Legeak sortua, ustelkeriarekin lotutako delitu ekonomikoen errepresiorako Fiskaltza Berezi moduan. Gaur egun, MFEOk emandako izendapena da Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltza Berezia (MFEOren 19.4 art.).

Bi organo horien osaera Konstituzio Auzitegi, Kontu Auzitegi eta Entzutegi Nazionalarena bezalakoa da. Hau da, Salako fiskal batek, teniente fiskal batek eta plantillak zehazten dituen fiskalek osatzen dute.

Dena dela, prozeduren kopuruak horrela gomendatzen duenean, EFNk izendatu ahal izango ditu edozein Fiskaltzatan Fiskaltza Berezien fiskal ordezkari bat edo batzuk. Izendapena egingo da Kontseilu Fiskalari entzun ondoren eta aldez aurreko Fiskaltza Bereziaren eta egokia den lurralde-fiskaltzaren fiskalburuek txostena eman ondoren, horrela eskatzen duten azken horretako plantillaren fiskalen artean. Horiek beren espezializazioa egiaztatu beharko dute materian. Lurraldeko Fiskaltzan atal espezializatu bat dagoenean, horren jarduera-eremua erabat edo partzialki bat badator Fiskaltza Bereziak eskumena duen materiarekin, fiskal ordezkaria aipatutako atalean integratuko da.

Fiskaltza Bereziaren fiskalburuak MFren gainerako organoen fiskalburuei dagozkien moduko ahalmen eta betebeharrak izango ditu, horrela izendatutako fiskalei dagokienez eta haien eskumenaren eremu berezian bakarrik (MFEOren 19.5 art.).

Fiskaltza berezi horiek lege zehaztutako delitu zehatz batzuekin lotutako eskumen propioak dituzte. Baina dagozkien eskumenak egikaritzean, MFEOk 4. eta 5. artikuluek eta gainerako lege prozesalek aurreikusitako ahalmenak izango dituzte, eta baita esklusiboki dagozkien beste batzuk ere.

7.4. Fiskaltza Juridiko Militarra

Fiskaltza Togadunak, Auzitegi Militar Zentraleko Fiskaltzak eta Lurralde Auzitegi Militarrek osatzen dute Fiskaltza Juridiko Militarra.

Fiskaltza Togaduna fiskal togadunak zuzenduko du, eta gutxienez *general auditor* batek eta karrera fiskaleko Salako fiskal batek osatuko dute. Azken hori MFEOren 13. artikulua arabera hautatuko da.

Auzitegi Militar Zentralaren Fiskaltza eta Lurralde Auzitegi Militarren Fiskaltzak eratu eta antolatuko dira Jurisdikzio Militarren Eskumen eta Antolaketari buruzko Lege Organikoaren arabera (MFEOren 18.2 art.)

7.5. Autonomia-erkidegoetako Fiskaltzak, Probintzia Fiskaltzak eta Atal espezializatuak.

Autonomia-erkidegoetako Fiskaltzak eta Probintzia Fiskaltzak beren fiskalburuaren zuzendaritzaren menpe daude, eta teniente fiskal batek, fiskal-dekanoek (Fiskaltzen tamainaren eta lan-kargaren arabera funtzionamendu egokirako beharrezko denak) eta plantillan zehazten dituen gainerako fiskalek osatzen dute (MFEOren 18.3 art.).

Gainera Justiziako eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetan aukera dago funtzionarioak integratzeko laguntza-lanetarako; hala nola, estatistika, informatika, eta

atzerriko hizkuntzak itzultzeko materietan. Autonomia-erkidegoaren fiskal nagusiari dagokio gobernuari jakinaraztea eremu horretako Fiskaltzen funtzionamendu eta antolatzeari buruzko beharrak.

Autonomia-erkidegoetako Fiskaltzek eta Probintzia Fiskaltzek atal espezializatuak izan ditzakete lege edo arauaren bitartez zehaztutako materietan, edo antolaketa berezia eskatzen dutenean beren berezitasun nahiz sortzen duten jarduera kopurua dela eta. Beharrezkotzat hartuz gero, atal horiek sortu ahal izango dira beren funtzionamendu egokirako tamainaren arabera, fiskal-dekanoaren zuzendaritzaren menpe; eta horri atxikita izango dira Fiskaltzaren pertsonala osatzen duten fiskal bat edo gehiago. Horretarako lehenetsuna izango dute materia batean espezializatu badira, lehenago betetako funtzioak, egindako kurtsoak edo antzeko inguruabarrak direla eta. Hala eta guztiz ere, zerbitzuak horrela eskatuz gero, beste eremu edo materia batzuetan jardun ahal izango dute (MFEOren 18.3 II art.). Atalek fiskalburu bakoitzak esleitutako funtzioak izango dituzte, egokitzen zaien materiaren eremuan.

Edozein kasutan, Probintzia Fiskaltzetan egongo dira Adingabeen Atala, Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruzko Atala, Bideko Segurtasun eta Lan-ezbehar kopuruari buruzko Atala eta Ingurumen Atala⁵¹. Atal horiek autonomia-erkidegoetako Fiskaltzetan eratzen ahalko dira, haien eskumenek, lan kopuruak, antolaketa hobeak eta zerbitzuak betetzeak horrela gomendatzen dutenean –(MFEOren 18.3 IV, V eta VI art.).

7.6. Saileko Fiskaltzak

EFNk, Kontseilu Fiskalari eta autonomia-erkidegoko fiskal nagusiari entzun ondoren, Saileko Fiskaltzak sortzea proposatzen ahalko dio Justizia Ministroari, auzien edo probintzia baten barruan dauden organoen kopuruak, edo hiriburua ez den egoitzan Probintzia Entzutegiaren Atal baten sorrerak gomendatzen duenean. Fiskalburu batek zuzenduko ditu Saileko Fiskaltzak, eta plantillak zehazten dituen fiskalek osatuko dute. Ataleko Fiskaltzak sortu zituen arauak arduratuko dira zehaztutako eremuaren barruko

⁵¹ Lurraldearen ordenazio, ondare historiko, baliabide natural, flora, fauna, etxabere, eta baso-suteei buruzko delituetan espezializatua.

auziez; barruti judizial bat edo gehiago egon daitezke eremu horren barruan (MFEOren 18.4 I art.).

Baldintza horiek betetzen ez badira, baina organo judizialen sakabanatze geografikoak edo zerbitzuak hobeto betetzeak hala behartzen badu, EFNk, Kontseilu Fiskalari entzun ondoren, Justizia Ministroari eskatu ahalko dio Probintzia Fiskaltzaren Lurralde Atalak sortzeko; eta hori arduratuko da probintzia bereko barruti judizial baten edo gehiagoren organo judizialez. Atal horiek plantillak zehazten dituen fiskalek eratzten dituzte eta fiskalburuen zuzendaritzaren menpe daude (MFEOren 18.4 II art.).

Era berean, autonomia-erkidegoaren fiskal nagusiak, egokiak diren probintziako fiskalburuak entzun ondoren, EFNri proposatzen ahalko dio Saileko Fiskaltzak eta Lurraldeko Atalak bere eremu barruan sortzea.

7.7. Fiskaltzen Batzarrak

Fiskaltza bakoitzak bere kide guztien aldizkako batzarrak egingo ditu irizpideen batasuna, garrantzia edo konplexutasun bereziko auziak aztertzeko edo bere funtzioaren gaien jarrerak zehazteko. Fiskal ordezkariak ere deitzen ahalko zaie Fiskaltza Berezien Batzarretara (MFEOren 24.1 art.).

Gehiengoaren erabakiek txostenaren izaera izango dute, eta fiskalburuaren irizpideak izango du lehentasuna eztabaida askearen ondoren. Halere, iritzi hori gehiengoak adierazitakoaren kontrakoa izanez gero, biak jarri beharko ditu bere nagusi hierarkikoaren menpe. Hark erabaki arte, fiskalburuaren iritzia betearazlea izango da beharrezkoak diren puntuetan, eztabaidatutako gaiak horrela eskatzen badu (MFEOren 24.2 art.).

Fiskalen Batzarrak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke. Ohikoak sei hilean behin egin beharko dira gutxienez. Fiskalburuak zehaztuko du gai-zerrenda; halere, zerrenda horretan sartuko dira gutxienez Fiskaltzetan bidalitako fiskalen idatzizko txostenak eta batzarra hasi baino lehen proposatutako beste kontu edo gai batzuk. Dena dela, gai-zerrendatik kanpo ere eztabaidatu daiteke batzarrera bertaratutako edonork

proposatutako edozein gairi buruz, fiskalburuak hala erabakitzen badu (MFEOren 24.4 I art.).

Ezohiko Batzarrak egingo dira beharrezko ikusten denean, eztabaidatzeko gaien premia edo konplexutasuna kontuan hartuta. Deialdia (non gai-zerrenda adieraziko baita) fiskalburuak egin beharko du, berak aurrea hartuta edo Fiskaltzan bidalitako fiskalen herenak izenpetutako mozioa dela eta (MFEOren 24.4 II art.).

Batzarretan agertzea beharrezkoa da fiskal guztientzat, ez-agertzea arrazoituta dagoenean izan ezik, hori aintzat hartuko baitu fiskalburuak. Ordezko fiskalak batzarretan agertuko dira; hitza izango dute, baina botorik ez (MFEOren 24.4 III art.).

Artikulu berak Ataleko Batzarrak ere aurreikusten ditu. Auzitegi Gorenako Fiskaltza osatzen duten Atalei atxikitako fiskalek egingo dituzte Ataleko Batzarrak, eta fiskalburu bakoitza izango da buru. Fiskalburuaren irizpidea Batzarreko kide gehienen iritziaurre aurkakoa izanez gero, EFNk erabakiko du, Kontseilu Fiskala edo Salako Fiskalen Batzarra entzun ondoren (MFEOren 24.2 I art.).

Auzitegi Gorenako Fiskaltzaren Atalaren burutza Salako fiskal batek baino gehiagok osatzen badute, beste batzar batzuk egin ahal izango dituzte: atal bakoitza osatzen duten unitate antolatzaileetan banatuta dauden fiskalak biltzen dituzten batzarrak, hain zuzen. Dena dela, Ataleko Batzarrean eztabaidatu beharra daude garrantzi edo konplexutasun bereziko kontuak eta irizpide-batasuna ukitzen dutenak (MFEOren 24.2 II art.).

Auzitegi Gorenaren Fiskalen Batzarra ere aurreikusten da. Batzar hori egiten da hainbat atalen jarduera estatistikoa jakinarazteko eta zerbitzu orokorren antolaketa uki lezaketen kontuak aztertzeke. EFN izango da buru, eta Auzitegi Gorenaren teniente fiskalak ordezkatzen ahal izango du (MFEOren 24.2 III art.).

Horretaz gain, MFEOren 24.3 artikulua xedatzen du probintziako fiskalburuek 22.10⁵² artikuluaen Koordinazio Batzarrak egin ditzaketela. Horien helburua da hainbat

⁵² MFEOren 22.10 art.: *Probintzia Fiskaltzaren Koordinazio Batzarra osatzen dute Probintzia Fiskaltzaren teniente fiskalak, Saileko fiskalburuek eta fiskal-dekanoek, zeina aldizka deitua eta*

zerbitzuren zuzendaritza eta koordinazioari buruzko gaiak aztertzea, baina ezein kasutan ere ezin izango dute Batzar Orokorra ordezkatu beren funtzioetan.

Era berean, irizpide-batasunari eutsi edo beren funtzioaren gaiei buruzko iritziak zehaztearren, autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek, nagusi hierarkiko moduan, Fiskalen Batzarra deitzen ahal izango dute; hain zuzen ere, lurralde-eremu bakoitzean Probintzia Fiskaltzen burutzan aritzen direnak biltzen dituen(MFEOren 24.3 II art.).

Amaitzeko, ondorio moduan esan liteke Fiskaltzen Batzarrei buruz ikusitako araudia MF eraentzen duen hierarkia-printzipioaren adierazpena baino ez dela. Adierazi dugunez, Batzarren xedea da irizpideak batzea eta Fiskaltzaren funtzioen gaiei buruzko jarrerak zehaztea. Hasieran garrantzizko gaiak erabakitzeko unean MFren kideek parte hartzeko organoa dela dirudi; baina ez da horrela, azkenean fiskalburuaren irizpideari ematen baitzaio lehentasuna, gehiengoaren iritziaren aurrean. Batzuetan, azken erabakia hartzen duena ez da Batzarra bera, Batzarraren burua baizik.

8. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN EGITEKOAK, FUNTZIOAK ETA AHALMENAK.

8.1. MFren egitekoak. 8.1.1. Legezkotasunaren babesa. 8.1.2. Herritarren eskubideen babesa. 8.1.3. Legeak zaindutako interes publikoaren babesa. 8.1.4. Auzitegien independentzia begiratzea. 8.2. MFren funtzio generikoak. 8.3. MFren ahalmenak. 8.4. Prozesu penalaren aurreko MFren ahalmenak. 8.5. MFren organo batzuen funtzio bereziak. 8.5.1. Fiskaltza Berezien funtzioak. 8.5.1.1. Drogen Aurkako Fiskaltza Bereziaren funtzioak. 8.5.1.2. Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltza Bereziaren funtzioak. 8.5.2. Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren fiskal berezien funtzioak. 8.5.2.1. Emakumearen aurkako indarkeriaren fiskalaren funtzioak. 8.5.2.2. Lurralde-antolamendu eta ondare historiko, ingurumen eta baso-sute delituen aurkako fiskalaren funtzioak. 8.5.2.3. Salako fiskal espezialisten funtzioak. 8.5.3. Botere Judizialaren antolakuntzatik kanpo dauden organoen Fiskaltzen funtzioak. 8.5.3.1. Konstituzio Auzitegiaren Fiskaltzaren funtzioak. 8.5.3.2. Kontu Auzitegiaren Fiskaltzaren funtzioak.

8.1. Ministerio Fiskalaren egitekoak

Ministerio Fiskalaren funtzioetara lehenengo hurbilketa egiteko, kontuan hartu behar dugu EKren 124.1 artikulua: *Ministerio Fiskalak, beste organo batzuei emandako eginkizunak deusetan galarazi gabe, Justiziaren ekintza sustatu behar du, legezkotasun, herritarren eskubide eta legeak babestutako interes publikoaren babesean, bai ofizioz bai interesatuek eskaturik; orobat, auzitegien independentzia begiratu behar du eta haien aurrean gizartearen interesa asetzen saiatu.*

Ildo horretatik, BJLOren 541. eta MFEOren 1. artikulua ditugu. Aipatutako bi manuek Konstituzioak esandakoa jasotzen dute berriz hitzez hitz.

Artikulu horietan Ministerio Fiskalaren *egitekoaz* hitz egiten da. Baina zertan datza hori, konkretuki? Esan genezake, oro har, Ministerio Fiskalari justiziaren ekintza sustatzea dagokiola, honako eremu hauek babestearren:

- Legezkotasuna
- Hiritarren eskubideak
- Legeak babesturiko interes publikoa
- Auzitegien independentzia
- Auzitegien aurrean gizartea asetzea

Dena dela, ez dugu ahaztu behar horiek Ministerio Fiskalaren betebeharr generikoak baino ez direla. Izan ere, betebeharr horiek garatzen ditu MFEOren 3. artikulua. Gainera, MFEOren 4. artikulua esleitzen dizkio aurreko artikuluan zehaztutako funtzioak bete ahal izateko ahalmenak.

Ministerio Fiskalari gizartearen interesa babestea dagokio, baina ez zuzenean, baizik eta auzitegien aurrean egokiak diren auziak egikaritzuz. Beraz, Ministerio Fiskalak eskatu egiten du, eta ez ebatzi (hori auzitegiei eta epaitegiei dagokie).

Baina MFren funtzio zehatzak ikasi baino lehen, azter ditzagun legeriak esleitutako egitekoak.

8.1.1. Legezkotasunaren babesa

Legezkotasunaren babesa da MFren funtziorik garrantzitsuena.

Legezkotasuna botere publiko guztien betebeharra⁵³ eta MFren jarduerak printzipioetariko bat izateaz gain, esan nahi du MFk bere esku dagoen guztia egin beharko duela legekoa dena gailen dadin. Hau da, MFk zaindu behar ditu legezkotasunaren oinarrian dauden balioak, eta horrek berekin darama Konstituzio eta ordenamendu juridikoaren babesa. Legezkotasunak babestu egin behar du, baina Justiziaren ekintzaren sustatze moduan.

MFk auzitegien aurrean jarduten du legezkotasunaren babesean. Beraz, auzitegiak mugatzen da MFren jarduteko eremua. Badaude legezkotasuna zaintzea dagokien beste

⁵³ EKren 9.1 artikulua jasota.

organo batzuk, baina jarduteko eremuak desberdinak dira. Ildo horretatik, aipatu beharra dago herriaren defendatzailearen egitekoa.

Herriaren defendatzaileari dagokio (eremu horretan MFk dituen funtzioei kalterik egin gabe) EKren I. tituluaren oinarrizko eskubide eta askatasunak zaintzea⁵⁴, baina Konstituzioa idaztean herri-defendatzaileari eskumen zabalagoa emateko aukera balioetsi zen. Konstituzioaren arabera, egikaritze hori babes-helegitea tarteratzeko aukerara mugatzen da⁵⁵; baina Konstituzioaren aurreproiektuan aipatutako eskubide eta askatasun horien bidez, akzioak egikaritzeko ahalmena esleitzen zitzaion. Gaur egun, MFri dagokio EKren 53.2 artikulua akzioak egikaritzeko ahalmena, baina ez herriaren defendatzaileari.

MFren egitekoak aurreikustean, EKren 124.1 artikulua berak kontuan hartzen du legezketasunaren babesa beste organo batzuei ere badagokiela⁵⁶, eta ulertu behar dugu hor dagoela sartuta herriaren defendatzailea.

Dena dela, ukazina da nahastea sortzen dela herriaren defendatzaile eta MFren funtzioen artean. Batetik, herriaren defendatzaileari dagokio EKren I. tituluaren eskubideak babestea eta, bestetik, MFk justiziaren ekintza sustatu behar du herritarren eskubideen babesean. Baina, gero, Konstituzioak ez du kontuari buruzko gauza handirik esaten bakoitzaren funtzioak argitzeko; eta gainera, MFEOk ez du ezer esaten MFk herriaren defendatzailearekin duen harremanari buruz eta, batez ere, biek jardun behar duten kasuetan. Bere aldetik, HDLO bi artikulutan baino ez da kontuari buruz mintzatzen⁵⁷.

⁵⁴ Ikus EKren 54. artikulua herriaren defendatzaileari buruzko aurreikuspena.

⁵⁵ Ikus EKren 162.1 b) art. babes-helegitea tarteratzeko legitimazioari buruz. Horrek dioenaren arabera legitimatuta daude *bidezko interesa alegatzen duen edozein pertsona natural edo juridiko, baita herriaren defendatzailea eta Ministerio Fiskala ere*.

⁵⁶ EKren 124.1 art.: *Ministerio Fiskalak, beste organo batzuei emandako eginkizunak deusetan galarazi gabe, legezketasuna du egitekoa [...]*.

⁵⁷ Ikus HDLOren 13. eta 25. art. Horiek fiskala aipatzen dute. Lehengo kasuan, MFri jakinarazi beharko dizkio, Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruzko keak jasotzen dituzten. Bigarren kasuan, EFNri jakinaraziko dio herriaren defendatzaileak ustezko delituzko egitate baten berri izanez gero bere funtzioak jardutean; aldizka informatu beharko du EFN ikerketaren egoerari buruz. Gainera, EFNk herriaren defendatzaileari jakinaraziko dizkio ezagutzen dituen irregulartasun administratibo posible guztiak, funtzioetan jardutean.

MFri legezketasuna babestea dagokion arren, Konstituzioak ez dio organo horri legitimaziorik esleitzen Konstituzio Auzitegiaren aurrean Konstituzio-kontrakotasunaren helegitea tarteratzeko⁵⁸.

8.1.2. Herritarren eskubideen babesa

Hemen nabarmendu beharko genuke EK-k *herritar* terminoa erabiltzen duela. Beraz, ez da kontuan hartzen nazionalitate espainiarra MF pertsonaren eskubideen babesean jarduteko.

MFk legitimazioa izango du Konstituzio Auzitegiaren aurrean babes-helegitea⁵⁹ tarteratzeko. Kasu horretan, MFk (herriaren defendatzaileak bezala) jarduten du eskubide edo askatasunaren tituludunaren izenean.

Argi utzi behar da MFri esleitutakoa ez dela legitimazio hutsa, beharra baizik. Hau da, oinarrizko eskubide baten urraketaren aurrean, MF ez dago legitimatuta babes-helegitea tarteratzeko edo ez tarteratzeko, baizik eta beharrezkoa da bere parte-hartzea prozesu mota horietan. Eta horrela adierazten du KALoren 47.2 artikulua⁶⁰.

Baina babes-helegitea ez da bide bakarra oinarrizko eskubideak babesteko. Esan beharra dago MFri dagokiola oinarrizko eskubideen babes arrunta ere. MFk akzio egokiak egikaritu ditu auzitegien aurrean oinarrizko eskubideak babestearren. Horrela, MFk bultzatu edo parte hartuko du oinarrizko eskubideak urratu diren prozesuetan. MFk gizartearen eta herritarren interesak babesten ditu egokiak diren akzioak egikaritzuz, hau da, prozesuak bultzatuz eta horietan parte hartuz.

⁵⁸ EKren 162.1. a) artikulua aurreikusten du legitimatuta egongo direla konstituzio-kontrakotasun helegitea tarteratzen: *Gobernuaren presidentea, herriaren defendatzailea, berrogeita hamar diputatu, berrogeita hamar senatari, autonomia-erkidegoetako organo kolegiatu exekutiboak eta, bere kasuan, haien Legebiltzarrak*. Ikus daitekeenez, herriaren defendatzailea dago legitimatuen artean, baina ez MF.

⁵⁹ EKren 161.1 art.: *Konstituzio Auzitegia [...] eskuduna da ebazteko: [...] b) Babes-helegitea [...] 53.2 artikuluan aipatutako eskubide eta askatasunak urratzeagatik, legeak zehaztutako kasu eta eran*. Horrek esan nahi du babes-helegitea egokia izango dela EKren 14. eta 29. bitarteko artikuluen eskubide eta askatasunak urratzearen kasuan (eskubide horiei gehitzen zaie 30. artikuluen kontzientzia-objektzioa).

⁶⁰ Valoren 47.2 art.: *Ministerio Fiskalak babes-eskeko prozesu guztietan parte hartuko du, legezketasun, herritarren eskubide eta legeak zaindutako interes publikoaren babesean*.

8.1.3. Legeak zaindutako interes publikoaren babesa

Egiteko hori EKren 124.1 artikuluaen amaieran jasotzen den beste batekin lotu beharko genuke: gizartearen interesa asetzea.

Adierazi dugunez, EKren 124 artikuluaen 1. atalak bi kontzeptu bereizten ditu: batetik, legeak zaindutako interes publikoaren babesa eta, bestetik, gizartearen interesa asetzea. Biak elementu bakarra dira edo bi interes desberdinez mintzatzen ari gara? Hasiera batean sinonimotzat har daitezkeela dirudien arren, ez dugu ahaztu behar Konstituzioak berak bereizi egiten dituela bi kontzeptuak.

Baina zein izan daiteke aldea interes publikoaren eta gizartearen interesaren artean? Autore gehienek ustez, gizartearen interesa asetzeak eskatzen du EKren I. tituluaen III. kapituluaren politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarien babesa. Printzipio gidari horien helburua da gizartearen hutsuneak konpontzea. Horien barruan sartzen dira bidezkoagoa den errenta pertsonalaren banaketa, osasuna babesteko eskubideak, kultura eskura izateko eskubidea, besteak beste. Interes publikoa, aitzitik, interes orokorra izango litzateke eta horrek ekarriko luke MFk guztien ona bilatzea.

Bi kontzeptuen desberdintasuna alde batera utzirik, benetako garrantzia du kasu bakoitzean interes publikoa zein den zehazten duena argitzeak. EKren 97. artikulua kontuan harturik, gobernuak da interes publikoa zehazten duena, baina argi dago gobernuak ezin duela kasuz kasu erabaki zein den interes publikoa; horregatik sortzen da MF. MFk zehazten du, EFNren bitartez, zein kasutan gauden interes publikoaren egoeran. Horretarako, legezotasuna hartuko du kontuan.

8.1.4. Auzitegien independentzia begiratzea

Independentzia judiziala da estatu demokratikoaren oinarrietariko bat, MFk zaindu behar duena.

MFren egiteko hori izan da organo horren konstituzio-konfigurazioan gehien eztabaidatu zen alderdietariko bat. Izan ere, batzuen ustez funtzio hori ez dagokio MFri, Botere Judizialaren gobernu-organuari baizik, BJKNri, hain zuzen ere.

Baina argitu beharra dugu MFk ez duela ikuskatzearen funtzioa zuzenean gauzatzen, baizik eta auzitegien independentzia begiratzen du bere funtzioak betetzen dituen bitartean, epaiketetan agertzeagatik. Egiteko hori betetzen du, alde batetik, jurisdikzio-ezagatik intzidenteetan, eskumen-gatazketan eta eskumen-arazoetan, eta, beste aldetik, Gobernu Salen jardueran parte hartzen duenean (epaile eta magistratuen diziplina-erantzukizunaren prozeduretan, banantze, lekualdatze edo etengabeko ezgaitasunagatik erretiroen prozeduretan, besteak beste).

BJKNk dauka epaitegi eta auzitegi guztien goreneko ikuskaritza, hark kontrolatzen du Justizia Administrazioaren funtzionamendu egokia; baina MFren jarduerarekin osatzen da.

8.2. Ministerio Fiskalaren funtzio generikoak

Konstituzioak esleitzen dizkion egitekoak landu ondoren, azter dezagun orain zein diren horiek betetzeko dituen funtzioak.

Auzitegiarena da gorago aipatu ditugun egitekoak burutzearen eremua, hots, MFk epaitegi eta auzitegien aurrean jarduten du egitekoak betetzeko. Funtzio zehatzak betetzen ditu horien aurrean, MFEoren 3. artikulua zehaztutakoak, hain zuzen ere.

MFEoren 3. artikulua garatzen ditu EKren 124.1 artikulua aurreikusitako MFren egitekoak. Manu horretan jasotzen dira MFk bete behar dituen funtzioak epaitegi eta auzitegien aurrean, Konstituzioak esleitutako egitekoak betetzeko bide moduan. Funtzio guztiak zehazki adierazten dira, baina kasu batzuetan beste arau batzuetara igorpenak egiten dira, haietan araututakoarekin osatzeko.

Hauexek dira MFEoren 3. artikulua jasotzen dituen funtzioak:

1. Funtzio jurisdikzionala modu eraginkorrean betetzen dela zaintzea legeen arabera eta haietan finkatutako epe eta baldintzetan, bere kasuan, egokiak diren akzioak, helegiteak eta jarduerak egikaritzuz.
2. Legeak esleitzen dizkion funtzio guztiak gauzatzea, epaile eta auzitegien independentziaren babesean.
3. Konstituzio-instituzio, oinarrizko eskubide eta askatasun publikoen errespetua begiratzea, horien defentsa eskatzen duten jarduerak gauzatzuz.
4. Delitu eta faltekin ekarritako akzio penalak eta zibilak egikaritzea, edo beste batzuekin egikaritutakoen aurka egitea, egokia denean.
5. Prozesu penalean parte hartzea, egokiak diren erresalbuzko neurriak hartzea eta egitateak argitzearen eginbideak gauzatzea, autoritate judiziala premiatuz edo prozedura zuzenen instrukzioa gauzatzuz Adingabeen Erantzukizun Penalaren arautzen duen Lege Organikoaren eremuan; bidezkotzat hartzen dituen eginbideak agin diezazkioke Polizia Judizialari.
6. Egoera zibil eta legeak ezartzen dituen gainerako prozesuetan parte hartzea, legezketasun eta interes publiko nahiz sozialaren babesean.
7. Legeak zehazten dituen prozesu zibiletan parte hartzea interes soziala tartean sartuta dagoenean, edo pertsona adingabeak, ezgaituak nahiz babesgabeak uki ditzaketenean, ordezkartza-mekanismoz hornitzen diren bitartean.
8. Jurisdikzioaren eta epaile eta auzitegien eskumenaren zuzentasuna mantentzea, jurisdikzio-gatazkek eta, bere kasuan, egokiak diren eskumen-arazoak bultzatuz, eta beste batzuekin sustatutakoetan parte hartuz.
9. Interes publiko eta soziala ukitzen duten ebazpen judizialak betetzea zaintzea.
10. Biktimen babes prozesala eta lekuko eta perituen babesa zaintzea, laguntza eta asistentzia eraginkorra jasotzeko aurreikusitako mekanismoak bultzatuz.
11. Babes-eskeko prozesu judizialean parte hartzea, baita konstituzio-kontrakotasun arazoetan ere, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoak aurreikusitako kasuetan eta eran.
12. Konstituzio Auzitegiaren aurreko babes-helegitea tarteratzea, baita Konstituzio Auzitegiak legezketasunaren babesean ezagutzen dituen prozesuetan parte hartzea ere, legeek ezartzen duten moduan.
13. Adingabeen erantzukizun penalaren materialian, legeria espezifikokoak haren esku uzten dituen funtzioak egikaritzea, adingabearen interes nagusietara jo behar duelarik.

14. Legeak aurreikusitako eran parte hartzea Kontu Auzitegiaren aurreko prozeduretan. Era berean, legezketasuna defendatzea haren parte-hartzea aurreikusten duten administrazioarekiko auzi-prozesuetan eta lan-arlokoetan.
15. Legeetan, Itunetan eta Nazioarteko Hitzarmenetan aurreikusitako nazioarteko laguntza judiziala bultzatzea (edo, bere kasuan, ematea).
16. Eta amaitzeko, estatuko ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako funtzioetan jardutea. Oro har, fiskalak idatziz edo prozesuetan agertuz parte hartu ahal izango du. Baliabide teknologikoen bitartez ere egin ahal izango da, baldin eta haien funtzioen egikaritze egokia segurtatu badute eta ekintzaren balizkotasunerako beharrezko bermeak badituzte. Penalak ez diren prozesuetan fiskala izango da parte hartzen azkena, legeak beste gauza bat xedatzen duenean edo auzi-jartzaile gisa jarduten duenean izan ezik.

8.3. Ministerio Fiskalaren ahalmenak

Aurreko funtzioak modu egokian bete ahal izateko, hainbat ahalmen esleitzen zaizkio MFri. MFEOren 4. artikulua jasotzen ditu horiek. MFk ahal izango du:

1. Edozein notifikazio judizialen eta prozeduren egoerari buruzko informazioa eskatu; horiek ikustea eska dezake egoera edozein izanik, edo edozein jardueraren kopia helaraztea, legeak, epeak eta baldintzak doi bete daitezen zaintzeko (bere kasuan, beharrezko zuzenketak bultzatuz). Halaber, informazioa eskatzen ahal izango du prozedura baterako bidea ematen duten egitateei buruz, edozein motatakoa izanda ere, haren ezagutza beste organo baten eskumena izan daitekeela uste izateko zio arrazoituak daudenean. Erregistro ofizialen informaziora ere zuzeneko sarbidea izango du, baldin eta kontrol judizialera mugatuta ez badago.
2. Edozein unetan bisita egin bakoitzaren lurraldeko atxiloketa, espetxeko nahiz edozein motatako sartze-zentro nahiz establezimenduetan, barnekoen espedienteak aztertu, eta beharrezkotzat jotako informazioa eskuratu.
3. Edozein motatako autoritate eta agenteen laguntza errekeritu.
4. Kasu bakoitzean egokiak diren aginduak eta instrukzioak eman Polizia Judiziala osatzen duten funtzionarioei.

5. Iritzi publikoa informatu gauzatzen diren gertaerei buruz, betiere bere eskumen-eremuaren barruan eta sumarioaren sekretuari errespetua izanik eta, oro har, karguari atxikitutako erreserba eta isiltasunaren beharrei eta ukituen eskubideei. Halaber, erantzun beharko diote eskaerari, legezko mugen barruan, MFk artikulua horretan eta hurrengoan zerrendatutako ahalmenen egikaritzan errekeritutako autoritateek, funtzionarioek nahiz organismoek edo partikularrek. Halaber, eta muga berekin, fiskalak xedatzen duenean fiskalaren aurrean agertu beharko dute.
6. Probintzietako Fiskaltzen egoitzetan eta beharrezkotzat hartzen direnetan, dagokion mugapearen barruan egindako arau-hauste kriminalen biktima eta kaltetuentzako harreman-zentroak eratzea dago, arau-hauste horientatik epaitegi eta auzitegietan prozesu penalik abian badago. Helburua da jasandako kalte-galerak ezagutzea eta, horien izaera eta gorabeherak egiaztatzeko, beren esku dauden dokumentu eta gainontzeko frogak eranstea.

8.4. Prozesu penalaren aurreko Ministerio Fiskalaren ahalmenak

MFEoren 5. artikulua MFri dagozkion ahalmenak aurreikusten ditu prozesu penala hasi aurretik. Hark prozesuaren aurreko ikerketak egiteko ahalmena izango du, jasotzen dituen salaketak garbitzearen eta haietatik ondoriozta daitezkeen akzio penalak egikaritu baino lehen.

Horretarako, fiskalak salaketak jaso ahal izango ditu. Salaketa jaso ondoren, autoritate judizialari bidaliko dio edo artxibatzea aginduko du akziorik egikaritzeko oinarriak aurkitzen ez duenean; azken kasu horretan, salatzaileari jakinaraziko dio erabakia.

Era berean, eta salatutako edo ezagututako atestatueta agertzen diren egitateak argitzeko, PKLren arabera legitimatuta dauden eginbideak gauzatu edo agin ditzake; horiek ezin izango dute ekarri erresalbuak neurriak edo eskubideak mugatzen dituztenik. Hala eta guztiz ere, prebentziozko atxiloketa agin dezake fiskalak.

Benetakotasun-presuntzioa⁶¹ izango dute MFk gauzatutako edo haren zuzendaritzapean gauzatutako eginbide guztiek.

Kontradikzio-, proportzionaltasun- eta defentsa-printzipioek eraenduko dute eginbide horiek gauzatzea.

Fiskalak deklarazioa jasoko dio susmagarriari. Hark letratuak lagunduta egon beharko du eta gauzatutako eginbideak ezagutzen ahal izango ditu. Eginbide horien iraupenak proportzionatua izan beharko du ikertutako egitatearen izaerarekin; dena den, inoiz ezin izango da sei hilabete baino gehiagokoa izan, EFNren dekretu arrazoituaren bitartez erabakitako luzapena dagoenean izan ezik.

Baina Estatutuaren 19.4 artikuluan aipatutako delituekin lotutako ikerketa-eginbideei dagokienez, horien iraupena hamabi hilabetekoa izango da gehienez, kasu horretan ere, EFNren dekretu arrazoituaren bitartez erabakitako luzapenaren kasuan izan ezik.

Egokia den epea amaitu ondoren, argi badago garrantzi penaleko egitateak direla, eginbideen egoera edozein izanda ere, autoritate judizialari helaraziko zaio; horretarako, bidezko salaketa edo kereila aurkeztuko da, artxiboa egokia denean izan ezik.

Amaitzeko, fiskalak hasten ahal izango ditu ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako funtzioak betetzera zuzenduta dauden prozesuaren aurreko eginbideak.

Orain arte puntu honetan aztertutakoa MFEOren 5. artikuluaurreikuspena da. Horrek jasotzen ditu prozesu penal guztietara aplikatu beharreko arauak (hots, prozedura arruntera, prozedura laburtura eta faltengatiko prozedurara). Baina horretaz gain, MFri dagokionez, aztertu beharra dugu PKLren 773. artikulua jasotzen duena prozedura laburturako.

⁶¹ Kontu horri dagokionez, estatuaren fiskaltza nagusiaren 1/1989 Zirkularrak adierazten du *iuris tantum* presuntzioa izango dela eta eginbideek benetakotasun formalaren presuntzioa baino ez dutela. Azken horrek esan nahi du eginbidea benetan egin zela eta fedea ematen du emaitza horretan jasotzen dela, baina ez dute benetakotasun materialaren izaerarik; horregatik, epaileak balioestearen menpe dago horren balio frogagarria.

Prozedura laburtuan aipatu behar ditugu MFk betetzen dituen funtzioak. PKLren 303. artikulua ondoz, instrukzioko epaileari dagokio instrukzioa gauzatzeko eskumena, hau da, instrukzioa judiziala da; hala eta guztiz ere, legeak fiskalaren eskumenak indartu nahi izan ditu fase horretan –(PKL 773. art.). Instrukzioko fasean ikertzeko eginkizunen bat aintzatetsi zaio MFri, batez ere prozedura laburtuan. Izan ere, gorago aipatu dugunez (eta horrela adierazten da MFEOren 5. artikuluan), prozesu-aurreko eta berariazko ikerketa eman zaio prozedura horren aurretiazko eginbideetan.

Abenduaren 28ko 7/1988 LOK (gaur egun PKLren 785. bis artikulua bitartez) partaidetza mugatua eman zion Ministerio Fiskalari prozesu penaleko instrukzioan. Gero, urriaren 24ko 38/2002 Legeak MFren parte-hartzea mantendu zuen PKLren 773. artikuluan. Ikus dezagun artikulua horrek MFren funtzioei buruz dioena.

MFk bere gain hartzen du legearekin bat jardueretan akzio penal eta zibilak egikaritzea. Gainera, inputatuaren berme prozesalen errespetua, delituaren biktima eta kaltetuen eskubideak zainduko ditu –(PKLren 773.1 I art.).

MFri dagokio, bereziki, prozedura laburtuan izapideak bultzatzea eta erraztea, alderdien defentsa-eskubideari eta horren kontradikzio-izaerari kalterik egin gabe. Horretarako, instrukzio orokorrak edo bereziak emango dizkio polizia judizialari, jardueretan parte hartuko du, izan ditzakeen datuak eta frogabideak erantsiko ditu, eta frogabideak gauzatzeko eskatuko dio instrukzioko epaileari; baita erresalbuazko neurriak hartzea nahiz altxatzea ere. Bestalde, ikerketaren amaiera edo atariko prozedura ixtea eskatuko du, bere iritziz akzio penala egikaritzeko nahikoa eginbide burutu denean – (PKLren 773.1 II art.).

EFNk egokitzen hartzen dituen aginduak eta instrukzioak emango ditu, prozedura horretan fiskalaren jarduerari dagokionez eta, bereziki, PKLren 780. artikulua 1. atalak⁶² xedatutakoren aplikazioari dagokionez.

⁶² PKLren 780.1 art.: *Instrukzioko epaileak erabakitzen badu Kapitulu honetan ezarritako izapideari jarraitu behar zaiola, aurretiazko eginbide originalak edo kopiak Ministerio Fiskalari eta agertutako alderdiei helaraztea aginduko du, hamar eguneko epe komunean, ahozko epailetaren hasiera eskatzeko akusazio-idazkia edo auziaren largespena adieraziz, edo salbuespenez, eginbide osagarriak gauzatzeko [...].*

MFk delitua osa dezaketen egitateen berri duenean, zuzenean edo jasotako salaketa nahiz atestatuaren ondorioz, berak (edo polizia judizialaren bitartez) gauzatu ditzake egokitzat hartzen dituen eginbideak, egitateak eta balizko erantzuleak egiaztatzeko. MFk atxiloketa agin dezake, baina ezin izango du gauzatu epailearen eskumena den eginbiderik –(bizilekuan sartzea eta hura miatzea, kasu). Gainera, edozein pertsona zitzatu dezake deklarazioa hartzeko. Deklarazioan kontuan hartuko dira epailearen aurrean deklaratzeko legeak aurreikusten dituen gisako bermeak (PKLren 773.2 II art.).

Eginbideak gauzatu eta gero, egitateek delituzko izaerarik izan ezean, MFk artxibatu egingo ditu haiek, kaltetu eta mindu moduan alegatu dutenei jakinarazita. Dena den, haiek eskubidea izango dute instrukzioko epailearen aurrean beren salaketa berriz jartzeko. Kontrako kasuan, hau da, egitateak delituzkoak izanik, instrukzioko epaileari helaraziko dizkio egokia den prozedura hasteko agiri guztiak –(PKLren 773.2 I art.).

MFk eginbideak gauzatzeari utziko dio egitateei buruzko prozesu judizialaren existentziaren berri izan bezain pronto –(PKLren 773.2 III art.).

Ikus daitekeenez, ezin dituzte fiskalak eta instrukzioko epaileak, biek batera, eginbideak gauzatu; prozesua hasita egonez gero, MFk ezin izango du eginbideak gauzatzen jarraitu. Beraz, eta ondorio moduan, esan genezake MFk gauzatutako prozesu-aurreko eginbide horiek balio dutela instrukzioko epaileak prozedura has dezan premiatzeko.

8.5. MFren organo batzuen funtzio bereziak

MFren barruan badaude eskumen bereziak dituzten organoak. Haietariko batzuek Botere Judiziala (antolakuntza moduan ulertuta) osatzen duten epaitegi eta auzitegieta jarduten dute; beste batzuek, aldiz, hartatik kanpo dauden organoetan betetzen dituzte beren funtzioak.

Lehenengo multzoan aipatuko ditugu MFEOk aurreikusitako Fiskaltza Berezien eta estatuaren fiskal nagusiaren fiskal berezi edo espezializatuen funtzioak; hau da, Drogen

Aurkako Fiskaltza eta Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltza Berezien funtzioak, emakumearen aurkako indarkeriaren fiskala, lurralde-antolamendu eta ondare-historikoaren babesarekin lotutako delituen aurkako fiskala eta fiskal espezializatuak. Bigarrenean landuko ditugu Botere Judizialean integratuta ez dauden organoen, hots, Konstituzio Auzitegi eta Kontu Auzitegiaren Fiskaltzen funtzioak.

8.5.1. Fiskaltza Berezien funtzioak

MFEoren 9. artikuluan 2. atalak adierazten du Fiskaltza Bereziak direla *Drogen Aurkako Fiskaltza eta Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltza*. Artikulu beraren 3. eta 4. atalek zehazten dituzte bi Fiskaltza Berezi horien funtzioak, hurrenez hurren.

8.5.1.1. Drogen Aurkako Fiskaltza Bereziaren funtzioak.

MFEoren 19.3 artikuluan arabera, honako funtzio hauek dagozkio Drogen Aurkako Fiskaltza Bereziari:

- a) BJLOren 65. eta 88. artikuluen arabera, zuzenean parte hartzea Entzutegi Nazionalaren eta Instrukzioko Epaitegi Zentralen eskumena diren droga, estupefaziante eta substantzia psikotropikoen trafikoa edo aipaturiko trafikoarekin lotutako kapitalak zuritzeari buruzko prozeduretan.
- b) Aurreko atalean aipaturiko delituek osatzen ahal duten egitateak ikertzea, Estatutuaren 5. artikuluan baldintzetan.
- c) Legez kontrako droga-trafikoa eta horrekin lotutako kapitalak zuritzea, prebentzio eta errepresiorako hainbat Fiskaltzaren jarduerak koordinatuz. Auzitegi Militarren Fiskaltzak elkarlanean arituko dira Drogen Aurkako Fiskaltzarekin zentro, establezimendu eta unitate militarretan gauzatutako egitateei dagokienez.
- d) Autoritate judizialarekin elkarlanean aritzea baldintzapeko kentzea aplikatu zaien drogazaleen tratamenduaren kontrolean, aipaturiko tratamenduan parte hartzen duten akreditutako zentroyen beharrezko datuak jasoz.

8.5.1.2. Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltza Bereziaren funtzioak

Ustelkeria eta Kriminalitate Antolatuaren Aurkako Fiskaltzak, MFEOren 5. artikuluan aurreikusitako funtzioak gauzatuko ditu eta zuzenean parte hartuko du prozesu penaletan, baldin eta garrantzi bereziko prozesuak badira (EFNk balioetsita), honako delitu hauekin lotuak:

- a) Herri Ogasun eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak eta kontrabandoarenak
- b) Prebarikazio-delituak
- c) Lehen eskuko informazioa bidegabeki edo gehiegi erabiltzearen delituak
- d) Ondasun publikoak bidegabeki eralgitzea
- e) Iruzurrak eta legez kontrako ordainarazpenak
- f) Eragimen-trafikoaren delituak
- g) Funtzionario-eroskeriaren delituak
- h) Funtzionarioek debekatuta dituzten negoziazioak
- i) Iruzur egiteak
- j) Zigor daitezkeen kaudimen-gabeziak
- k) Jendaurreko konkurtso edo enkanteetan prezioak aldatzea
- l) Jabetza intelektual eta industrial, merkatu eta kontsumitzaileei buruzko delituak
- m) Delitu sozietarioak
- n) Kapitalak zuritze eta errezibitzearen antzeko jokaerak, droga-trafiko edo terrorismo-delituekin beren lotura dela eta, beste Fiskaltza Bereziei ezagutzea dagokienean izan ezik
- o) Usteltze-delituak, nazioarteko merkataritza-tratuetan
- p) Usteltze-delituak sektore pribatuan
- q) Aurrekoekin lotutako delituak
- r) Mota guztietako negozio juridiko, transakzio edo ondasun, balio nahiz kapitalen mugimendu, fluxu ekonomiko nahiz ondare-aktiboen fluxuak ikertzea, zeinak, antza, delituzko talde antolatuen jarduerarekin edo delituzko jardueren aprobetxamendu ekonomikoarekin lotuta baitaude; baita lotutako delituen edo aipatutako jardueren erabakigarriak izan diren delituak ikertzea ere, droga-trafiko edo terrorismo-delituekin beren lotura dela eta, Drogen Aurkako

Fiskaltzari edo Entzutegi Nazionaleko Fiskaltzari ezagutzea dagokionean izan ezik.

EFNk eman ditzakeen izaera orokorreko instrukzioei kalterik egin gabe, izendapenaren Dekretuak zehaztuko ditu fiskal ordezkarien funtzioak eta jardueraremaa, Fiskaltza Bereziaren eskumen diren auzietarako dedikazio-maila espezifikatuz. Nolanahi ere, fiskal ordezkariak gisa horretan ezagutzen dituzten auziei buruz informatu beharko dituzte funtzioak burutzen dituzten organoaren fiskalburuak.

Beren funtzionamendu egokirako Fiskaltza Bereziei atxikitzen ahal izango dira Polizia Judizialaren unitateak, beharrezkoak diren beste profesional eta adituei laguntzeko modu iraunkorrean edo noizbehinka.

8.5.2. Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren fiskal berezien funtzioak

8.5.2.1. Emakumearen aurkako indarkeriaren fiskalaren funtzioak

Estatuaren Fiskaltza Nagusian emakumearen aurkako indarkeriaren fiskala egongo da. Hark Salako fiskalaren kategoria dauka eta legeak funtzio bereziak esleitzen dizkio; honela labur daitezke (MFEOren 20. art.):

- MFEOren 5. artikulua eginbideak gauzatzea, eta BJLOren 87 ter 1. artikulua genero-bortxakeriari buruzko egintzengatik zuzenean parte hartzea garrantzi bereziko prozesu penaletan. EFNk balioetsiko du kasuaren garrantzia.
- Era berean, eta aurrekoaren harira, BJLOren 87 ter 2. artikulua prozesu zibiletan, EFNren ordezkartasun parte hartzea.
- Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Atalak ikuskatzea, koordinatzea, eta horien txostenak eskuratzea.
- Genero-bortxakeriaren material, hainbat Fiskaltzak jarduteko irizpideak koordinatzea. Horretarako, EFNri proposatu ahal izango dio beharrezko instrukzioak emateko.

- Sei hilabetero txostena egitea materia horretan jarraitutako prozedurei eta egindako jardueri buruz. EFNri aurkeztuko zaio, hark Auzitegi Gorenaren Salako Fiskalen Batzarrari helarazteko.

8.5.2.2. Lurrande-antolamendu eta ondare historiko, ingurumen eta baso-sute delituen aurkako fiskalaren funtzioak

Estatuaren Fiskaltza Nagusian lurralde-antolamendu eta ondare-historiaren babesarekin lotutako delituen aurkako fiskal bat dago, eta Salako kategoria du. Fiskal horrek ere, aurreko epigrafeetan adierazitako ahalmenez gain, aipatutako delituekin zerkusia duten funtzio bereziak izango ditu. Honako hauek dira (MFEOren 20.2 art.):

- MFEOren 5. artikularen eginbideak gauzatzea eta garrantzi bereziko prozesu penaletan zuzenean, edo ordezkarien bitartez, parte hartzea lurralde-antolamendu eta ondare historikoaren babes, baliabide natural eta ingurumen, flora, fauna eta etxabereen babes, eta baso-sutei buruzko delituengatik. EFNk balioetsiko du kasuaren garrantzia.
- Akzio publikoa edozein prozedura motatan egikaritzea, zuzenean edo ordezkariari zuzendutako instrukzioen bitartez, hura ingurumenari buruzko lege eta arauetan aurrekusita dagoenean. Kasu horretan, egokiak diren erantzukizunak eskatuko ditu fiskalak.
- Ingurumenari buruzko atalen jarduera ikuskatzea eta koordinatzea, eta egokiak diren txostenak eskuratzea.
- Ingurumen-materian Fiskaltzak koordinatzea, jarduera-irizpideak bateratuz. Horretarako, beharrezko instrukzioak proposa diezazkioke EFNri, eta atal berezia osatzen duten fiskalak biltzen ahal izango ditu.
- Urtero materia horretan jarraitutako prozedurei eta gauzatutako jardueri buruzko txostena egitea. EFNri aurkeztuko zaio eta bere urteko txostenari gehituko.

8.5.2.3. Salako fiskal espezialisten funtzioak

Estatuaren Fiskaltza Nagusian daude Salako fiskal espezialistak. Horiek arduradun dira adingabeen babes eta erreforman, eta gobernuak⁶³ beharrezkotzat hartzen dituen beste materia batzuetan, MFk duen jardueraren koordinazio eta ikuskaritzaz.

Salako fiskal espezializatuek aurreko bi kasuetan adierazitako funtzio eta ahalmen antzekoak izango dituzte, baina bere jardueraren eremura mugatuta, eta EFNk esleitzen diezazkiekeenak, hori guztia lurraldeko organoen fiskalburuen eskumenei kalterik egin gabe.

8.5.3. Botere Judizialaren antolakuntzatik kanpo dauden organoen Fiskaltzen funtzioak

Botere Judizialean (hau antolakuntza moduan ulertuta) integratuta ez dauden bi organok Fiskaltza propioa dute. Organo horiek dira Konstituzio Auzitegia eta Kontu Auzitegia. Ikus dezagun zein diren bakoitzaren funtzioak.

8.5.3.1. Konstituzio Auzitegiaren Fiskaltzaren funtzioak

Fiskaltza honek MFren funtzioak betetzen ditu Konstituzio Auzitegiaren aurrean, baina EKren 162.1 b) artikulua eta MFEOren 3.11. eta 3.12 artikuluek adierazten dutenera mugatuta. Manu horietan aipatutako funtzioak honako hauek dira:

- Babes-eskeko prozesu judizialean parte hartzea, baita konstituzio-kontrakotasun arazoetan ere, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoak aurreikusitako kasuetan eta eran (MFEOren 3.11 art.).
- Konstituzioaren babes- helegitea tarteratzea, baita Konstituzio Auzitegiak legezkotasunaren babesean ezagutzen dituen prozesuetan parte hartzea ere, legeek ezartzen duten moduan (MFEOren 3.12 eta EKren 162.1 b) art.).

⁶³ Justizia Ministroaren proposamenean, aldeztu aurretik EFN entzun ondoren, eta Kontseilu Fiskalari txostena emanda.

Bere aldetik, KALOren 47.2 artikulua MFren hainbat funtzioen aipamenak jasotzen ditu:

- Konstituzio kontraktasunaren prozedurari dagokionez, jurisdikzio-organoak alderdiei eta MFri entzungo die behin betiko erabakia hartu baino lehen, nahi izanez gero, nahi dutena alegatzeko konstituzio-kontraktasunaren egokitasunari buruz – (KALOren 35.2 art.).
- Konstituzio Auzitegiak, jarduerak jasota, onarpen-izapidean konstituzio-kontraktasun arazoa uka dezake baldintza prozesalak faltatzeagatik edo aurkeztutako arazoa begi-bistan oinarri gabekoa denean; baina, aldezturik, EFNri entzun beharko dio (KALOren 37.1 art.).
- Arazoa izapidera onartuz gero, beste instituzio batzuei emateaz gain, EFNri helaraziko dio –(KALOren 37.2 art.).

8.5.3.2. Kontu Auzitegiaren Fiskaltzaren funtzioak

Kontu Auzitegiaren funtzionamenduari buruzko apirilaren 5eko 7/1988 Legearen 16. artikulua xedatzen du, Kontu Auzitegiaren Fiskaltzaren funtzioak direla, bereziki:

- Auzitegiaren kontu orokorretan eta memorietan, mozioetan eta oharretan bere irizpena kontsignatzea, haiek ekar ditzaketen kontabilitate-erantzukizunetarako.
- Auzitegiaren fiskalizazio-prozeduretan entzuna izatea, behin betiko onarpena eman aurretik; eta egokitzat hartzen dituen eginbideak gauzatzeko eskatzea, haiek ekar ditzaketen kontabilitate-erantzukizunak garbitzearen.
- Auzitegian jarraitzen diren fiskalizazio- eta jurisdikzio-prozedura guztiak ezagutzea, haiek ekar ditzaketen balizko kontabilitate-erantzukizunak argitzearen.
- Kontabilitate-erantzukizunaren akzioa egikaritzea eta izaera horretako auziak ondorioztatzea, kontu-epaiketetan eta helmenagatiko itzultze-prozeduretan.

9. KAPITULUA. MINISTERIO FISKALAREN ESTATUTU PERTSONALA

9.1. Karrera fiskala eta hura osatzen duten fiskalen kategoriak. 9.2. Kategorien igoera. 9.3. Lantokien hornikuntza. 9.4. Karrera fiskalean sartzea. 9.5. Egoera administratiboak. 9.6. MFren kideen eskubideak eta betebeharrak. 9.6.1. Betebeharrak. 9.6.1.1. Karguari fideltasuna. 9.6.1.2. Lantoki ofizialeko herri berean bizilekua izateko betebeharra. 9.6.1.3. Isiltasun-betebeharra. 9.6.1.4. Nagusiekiko obedientzia eta informazio-betebeharra. 9.6.2. Eskubideak. 9.6.2.1. Kargurako eta karreraren promoziorako eskubidea. 9.6.2.2. Baimenak eta lizentziak. 9.6.2.3. Ordaintzeko eskubidea. 9.6.2.4. Elkartzeko eskubidea. 9.6.2.5. Immunitatea. 9.7. Bateriaezintasunak eta galarazpenak. 9.8. MFren erantzukizuna. 9.8.1. Erantzukizun zibila eta penala. 9.8.1.1. Erantzukizun penala. 9.8.1.2. Erantzukizun zibila. 9.8.2. Diziplina-erantzukizuna. 9.8.2.1. Falta motak. 9.8.2.2. Zigorrak. 9.8.2.3. Falten preskripzioa. 9.8.2.4. Diziplina-erantzukizuna ebazteko organo eskudunak. 9.8.2.5. Helegiteak. 9.8.2.6. Zigortzeko prozedura. 9.8.2.7. Indargabetzea eta birgaitzea.

9.1. Karrera fiskala eta hura osatzen duten fiskalen kategoriak

Karrera fiskalak osatzen du hierarkikoki antolatuta dagoen kidego bakarra (MFEOren 32. art.). Horren barruan fiskalen hiru kategoria bereizten dira –(MFEOren 34. art.):

- Auzitegi Gorenaren Salako fiskalak, Auzitegi Gorenaren magistratuen parekatuak. Auzitegi Gorenaren teniente fiskala hartuko da Salako presidentetzat.
- Fiskalak, magistratuen parekatuak.
- Abokatu-fiskalak, epaileen parekatuak.

Karrera fiskala karrera judizialarekin parekatuta dago, eta horren adierazpena da MFEOren 33. artikulua. Manu horren arabera, ohore, kategoria eta ordainsariei dagokienez, karrera fiskalaren kideak parekatuta daude karrera judizialarenarekin. Eta ekintza ofizialean izango dute autoritate judizialaren berehalako hurrengo posizioa, non MFren kideak agertzen baitira (MFEOren 33.1 eta 2. art.).

Amaitzeko, epaitegi eta auzitegien gobernuko bilerara agertu behar dutenean, horiek buru direneko posizio bera izango dute (MFEOren 33.3 II art.).

9.2. Kategorien igoera

Hainbat kategoria aurreikusteak promozio pertsonala izateko aukera dakar, hau da, igotzeko aukera eta ordainsariak gehitzea⁶⁴. Baina, horretaz gain, kategoria zehatza izateak MFn goi mailako edo erantzukizuneko karguak izatea baldintzatzen du. Oraintxe ikusiko dugunez, beharrezkoa da kategoria zehatz batean egotea, postu edo kargu batzuetara heltzeko.

Karrera fiskalean MFEOk aurreikusitako igoera-sistemaren irizpideak bi dira: antzintasuna eta eskumeneko erabakia.

a) Eskumeneko erabakia

Hautatze librea da baldintza batzuk betetzen dituzten fiskalak lehenengo kategoriara igotzeko sistema.

Bigarren kategoriatik lehenengora igotzea gobernuak erabakitzen du, estatuaren fiskal nagusiaren txostena kontuan hartuta. *Lehenengo kategoriako hutsuneak igoeren bitartez beteko dira, gutxienez karreran zerbitzuko hogeitun urte izan eta bigarren kategorian daudenen artean.*

Aipatutako manua MFEOren beste artikulua batzuek diotenarekin osatu behar dugu. Hasteko, 13.1 artikulua II. paragrafoaren arabera, EFNri dagokio hainbat kargutarako igoerak eta izendapenak gobernuari proposatzea, Kontseilu Fiskalak alde aurreko txostena emanda⁶⁵, eta autonomia-erkidegoaren fiskal nagusia entzun ondoren, bere lurralde-eremuko karguak izanez gero.

⁶⁴ Promozio pertsonala da funtzionario-eskalafoi ororen ezaugarria.

⁶⁵ Izan ere, MFEOren 14.4 artikulua Kontseilu Fiskalaren funtzioak zerrendatzen dituenean, d) atalean karrera fiskalaren kideen igoerentzako txostenak egitea aipatzen du haien artean.

Bestalde, MFEOren 36.1 artikulua adierazten du gobernuak hautatuko dituela lehenengo kategoriaren lantokiak, EFNk proposatuta. Gainera, artikulua horrek igorpen bat egiten du 13. artikulura.

Beraz, gobernuak erabakitzen du bigarren kategoriatik lehenengora igotzea, baina EFNk proposatuta. Hala eta guztiz ere, proposamena egingo da karrera fiskalean, gutxienez zerbitzuko hogeit hamar urte izan eta bigarren kategorian daudenen artean.

b) Antzinasuna

Hirugarren kategoriatik bigarrenera igotzeko, antzinasuna baino ez da kontuan hartzen. Honela adierazten du MFEOren 37.1 artikulua: *Bigarren kategorian gauzatutako hutsik egoteak hirugarren kategorian daudenen artean beteko dira, antzinasun-ordenaren arabera* (MFEOren 37.2 art.).

Lehenengo kategorien fiskalen izendapena Errege Dekretuaren bitartez egingo da; gainerakoak, aldiz, Justizia Ministroaren aginduaren bitartez (MFEOren 38.1 art.).

Fiskalen egoera administratiboaren deklarazioa egingo da, kategoria edozein izanda ere, Justizia Ministroaren aginduaren bitartez (MFEOren 38.2 art.).

9.3. Lantokien hornikuntza

Karrera fiskalaren lantokiak hornitzeko, aurreikusten dira antzinasunean oinarritutako sistema arautua eta eskumeneko izendapena. Dena dela, nabarmentzekoa da gobernuaren erabakiaren menpe geratzen direla karrera fiskalaren erantzukizuneko postuak.

Ikus dezagun zehatzago MFEOk nola garatzen dituen arau orokor horiek hainbat manuren bitartez.

Lehen esan dugunez, kargu batzuetara heltzeko kategoria zehatz batean egotea eskatzen da. MFEOren 35.1 artikulua dioenaren arabera, beharrezkoa izango da lehenengo kategorian egotea honako lantoki hauetan zerbitzatzeko:

- a) Auzitegi Gorenaren teniente fiskala, gainera hiru urteko antzintasuna izan beharko duena aipatutako kategorian.
- b) Fiskalburu ikuskatzailea
- c) Idazkaritza Teknikoaren fiskalburua
- d) Laguntza-unitatearen fiskalburua
- e) Entzutegi Nazionalaren fiskalburua
- f) Fiskaltza Berezien fiskalburua
- g) Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzaren fiskalburua
- h) Kontu Auzitegiaren fiskalburua
- i) Auzitegi Gorenaren Salako fiskala
- j) Fiskaltza Togadunaren Salako fiskala
- k) Pertsonalean zehazten diren fiskalen Salako gainerako postuak, MFEOren xedapenen arabera

Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek eta Probintzia Fiskaltzen fiskalburuek izango dute Justizia Auzitegi Nagusien presidenteen eta Probintzia Entzutegien presidenteen pareko kategoria⁶⁶, hurrenez hurren (MFEOren 35.2 art.).

Bigarren kategorian egotea beharrezkoa izango da Auzitegi Gorenaren Fiskaltzetan, Konstituzio Auzitegiaren aurrean, Entzutegi Nazionalaren Fiskaltzan, Fiskaltza Berezietan, Kontu Auzitegian, Ikuskatzeen Fiskaltzan, Laguntza-unitatean eta Idazkaritza Teknikoan gainerako postuetan zerbitzatzeko. Fiskalburu eta teniente fiskalaren karguan zerbitzatzeko ere beharrezkoa izango da bigarren kategorian egotea (MFEOren 35.3 art.).

Pertsonal organikoak zehaztuko du beharrezko kategoria, bigarren eta hirugarren kategorien barruko gainerako lantoki fisikaletan zerbitzatzeko (MFEOren 35.4 art.).

⁶⁶ Hemen ere lehen aipatutako karrera judicial eta fiskalaren arteko parekotasuna ikusten da.

Azter ditzagun lantokiak hornitzeko lehen aipatutako bi irizpideen zehaztasunak.

a) Izendapen askeak

Gobernuak hornituko ditu lehenengo kategoriaren lantokiak, Auzitegi Goreneko fiskalenak, autonomia-erkidegoen fiskal nagusienak eta fiskalburuenak, , EFNk proposatuta eta 13. artikulua araberak. Modu berean izendatuko dira autonomia-erkidegoetako Fiskaltzen teniente fiskalak eta lehenengo kategoriako fiskalburua duten organoen pertsonala osatzen duten fiskalak. Autonomia Estatutuek autonomia-erkidegoaren Justizia Kontseilua aurreikusten dute, hura halaberrez entzun ondoren, autonomia-erkidegoaren fiskal nagusia izendatu baino lehen (MFEOren 36.1 art.).

Dena dela, gutxieneko antzinatasuna eskatzen da kargu horietako batzuetarako. Horrela (MFEOren 36.1 art.):

- Bi baldintza izango dira beharrezkoak Auzitegi Gorenaren, autonomia-erkidegoen fiskal nagusiaren, Konstituzio Auzitegiaren aurreko fiskalaren, Kontu Auzitegiaren fiskalaren eta fiskal ikuskatzailearen karguetarako: karreran gutxienez zerbitzuko hamabost urte izatea, eta bigarren kategorian egotea.
- Entzutegi Nazionalaren eta Probintzia Fiskaltzaren fiskalburuaren karguetarako beharrezkoa izango da karreran gutxienez zerbitzuko hamar urte izatea eta bigarren kategorian egotea. Antzinatasun bera eskatuko zaie Fiskaltza Berezien fiskalei eta Idazkaritza Teknikoaren teniente fiskalari.
- Estatuko Fiskaltza Nagusian integratzen diren Salako fiskalei atxikitako fiskalen karguetarako beharrezko izango dira: karreran gutxienez zerbitzuko hamar urte izatea, bigarren kategorian egotea eta gutxieneko espezializazioa izatea (atxikita dauden materialen egiaztagarria).
- Saileko fiskalburuaren kargura heltzeko beharrezkoa izango da bigarren kategorian egotea.

Bestalde, EFNk hautatzen ditu beste kargu batzuk. Horrela gertatzen da honako kargu hauetan (MFEOren 36.3 eta 4. art.):

- Idazkaritza Teknikoaren fiskalburua, teniente fiskala eta fiskalak, Laguntza-unitatearen fiskalak eta Estatuaren Fiskaltza Nagusian integratutako Salako fiskalei atxikitako fiskalak. Horiek EFNk berak izendatzen eta kargutik kentzen ditu.
- Fiskaltzen Atalean dauden fiskal-dekanoak EFNk izendatu eta kargutik kenduko ditu, fiskalburu bakoitzaren proposamen arrazoituan. Plazak betetzeko proposamena egin baino lehen, deialdia egingo da pertsonalaren fiskalen artean. Proposamenarekin batera aurkeztuko dira postua eskatu duten gainerako fiskalen zerrenda eta alegatutako merituak.

b) Lehiaketa antzinasunean oinarrituta

Gainerako lantokiak antzinasunean oinarritutako lehiaketaren bitartez betetzen dira (MFEOren 36.5 art.). Horrek esan nahi du lehiaketaren bitartez hornituko direla beharrezko kategoria duten funtzionarioen artean, eskalafoian posturik onena kontuan harturik.

Lantoki berria eskatzeko, aurrekoan bi urtez egon beharko dute gutxienez, baldin eta horretara eskaera propioaren bitartez heldu bazen, lehenengo lantokian izan ezik. Azken kasu horretan, urtebetekoa izango da lehenengo lantokirako epea, hautatze-prozesua gaindituta karrera fiskalean sartu ondoren.

Bete gabe geratzen diren lantokiak beharrezko kategoriara igotzen diren fiskalekin beteko dira (MFEOren 36.5 art.).

Amaitzeko, autonomia-erkidegoak hizkuntza koofiziala izanez gero, meritu erabakitzailea izango da hizkuntza egiaztatzea erkidego horietan egoitza duten Fiskaltzen plazen hornikuntzarako. Eta, era berean, lehentasunezko meritu moduan balioetsiko da erkidegoaren zuzenbide propioa jakitea(MFEOren 36.6 art.).

9.4. Karrera fiskalean sartzea

Oposizio askea da karrera fiskalean sartzeko sistema bakarra, BJLOk zehaztutako baldintzetan –(MFEOren 42. art.). Abenduaren 27ko 9/2000 LOk oposizio bakarra ezarri zuen karrera judizial eta fiskalean sartzeko⁶⁷. Beraz, oposizioa gainditzen dutenek ateratako puntuazioaren arabera erabakiko dute bi karreraren artean.

Karrera fiskalean sartzea oposizio askearen bitartez egingo da, legeak eskatutako gaitasunaren baldintzak biltzen dituztenen aurrean.

Oposizioan parte hartzeko legeak eskatzen dituen baldintzak honako hauek dira – (MFEOren 43. art.):

- Espainiarra izatea
- Adin nagusikoa
- Zuzenbidean lizentziatua edo doktoratua
- Legeak aurreikusitako ezgaitasunen ziopean ez egotea

Karrera fiskalean sartzeko legeak aurreikusten dituen ezgaitasun-zioak honako hauek dira –(MFEOren 44. art.):

- Beharrezko gaitasun fisiko edo intelektuala ez izatea
- Doluzko delituagatik kondenatuak (birgaitzea lortzen ez duten bitartean). Ezarritako zigorra sei hilabete baino gehiagokoa ez bada, hiru urte arteko gabetzearen zigorrarekin ordezkara daitezke fiskalaren maila galtzea, EFNk era arrazoituan gauzatutako delituaren garrantzia kontuan harturik.
- Birgaitu ez diren konkurtsopekoak
- Nazionalitate espainiarra galtzea

MFren kidearen maila lortzen da, izendapena egin ondoren, zin edo promesa edo edukitza hartzeagatik –(MFEOren 45.1 art.).

MFren kideek, beren lehen lantokiaren edukitza hartu baino lehen, zin egingo dute Konstituzio eta legeak zaindu eta zainarazteko eta Erregearekiko leialtasunarekin

⁶⁷ Beste batzuetan komentatu dugunez, hemen ere karrera judizialaren eta fiskalaren arteko parekotasuna ikusten da.

funtzio fiskalak fidelki betetzeko. Lantokiaren Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salaren aurrean egingo da zin. Horren presidentearen ondoan, autonomia-erkidegoaren presidentea eta autonomia-erkidegoaren fiskal nagusia egongo dira –(MFEOren 45.2 art.).

Era berean, Salako fiskalek beren karguari zin egingo diote, karrera fiskalaren lehenengo kategoriara heltzean. Ekitaldia Auzitegi Gorenaren Gobernu Salaren aurrean egingo da, eta kasu horretan, EFN egongo da presidentearen ondoan (MFEOren 45.2 II art.).

Autonomia-erkidegoen fiskal nagusiak karguaz jabetuko dira beren Fiskaltzek egoitza duten hirian, EFN buru den ekitaldi batean –(MFEOren 45.3 art.).

Probintzia Fiskaltzen eta Saileko Fiskaltzen fiskalburuak karguaz jabetuko dira beren Fiskaltzak egoitza duen tokian, autonomia-erkidegoaren fiskal nagusia buru den ekitaldi batean, EFN ekitaldian agertzen denean izan ezin; azken kasu horretan bera izango da buru –(MFEOren 45.3 II art.).

Gainerako fiskalak karguaz jabetuko dira lantoki izango duten Fiskaltzaren fiskalburuaren aurrean; ekitaldian EFN edo hierarkikoki maila nagusiko beste kide bat agertzen denean, hura izango da buru –(MFEOren 45.3 III art.).

Aurreikusitako kasu horietan guztietan, ekitaldiaren presidentzian dagokien lehentasunezko lekua izango dute Justizia Auzitegi Nagusiaren presidenteak eta, bere kasuan, egokia den Probintzia Entzutegiarenak –(MFEOren 45.3 IV art.).

Karguaz jabetzea izango da lantokirako izendapenaren publikazioaren hurrengo hogeit hamar egun naturalen barruan edo, epe handiagoan, funtsezko inguruabarrak daudenean; eta Fiskaltzaren buruak edo bere funtzioak egikaritzen dituenak emango du –(MFEOren 45.4 art.).

Fiskalaren maila galtzen da honako zio hauengatik (MFEOren 46. art.):

- a) Uko egitea

- b) Nazionalitate espainiarra galtzea
- c) Zerbitzutik banantzearen diziplina-zigorra
- d) Kargu publikoetarako gaitasun-gabetzearen zigor nagusia edo osagarria
- e) Ezgaitasun-zio baten pean erortzea

Zio horiei gehitu behar diogu borondatezko edo nahitaezko erretiroa, gobernua erabakiko duena epaile eta magistratuentzat BJLOk aurreikusten dituen kasu eta egoera berdinetan (MFEOren 46.2 art.).

Ildo horretatik, BJLOren 386.1 artikulua adierazten du epaile eta magistratuen adinarengatik nahitaezko erretiroa hirurogeita hamar urterekin izango dela, eta borondatezkoa hirurogeita bost urterekin. Gainera, erretiroaren zioa izango da fiskalaren ezgaitasun iraunkorra (MFEOren 387. artikuluan oinarriturik).

9.5. Egoera administratiboak

MFren kideen egoera administratiboei dagokienez, MFEOren 47. artikulua epaile eta magistratuentzat BJLOk aurreikusitakora bidaltzen du⁶⁸ eta gehitzen du arauaren bidez garatuko direla.

9.6. MFren kideen eskubideak eta betebeharrak

MFEOren III. tituluaren V. kapituluak arautzen ditu MFren kideen eskubide eta betebeharrak. Ekin diezaiozun bi multzoak aztertzeari.

9.6.1. Betebeharrak

⁶⁸ MFEOren 1. xedapen gehigarria kontuan hartu behar dugu: *Epaile eta magistratuentzat Botere Judizialeko Lege Organikoan xedatutakoa aplikazio gehigarria izango da karrera fiskalaren kidearen mailaren eskurapen eta galtzeari, haien ezgaitasunei, egoera administratiboei, betebeharrak eta eskubideei, bateraezintasun, galarazpen eta erantzukizunei dagokienez.*

Lehenik eta behin, MFren kideen betebeharrak azalduko ditugu. Gehienak Estatutuaren aipatutako V. kapituluan daude araututa, baina beste batzuk ez.

9.6.1.1. Karguari fideltasuna

MFren kideek karguan fidelki aritzeko betebeharra izango dute, horren funtzioak betetzean azkartasun eta eraginkortasunez, batasun eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera eta, edozein kasutan, legezatasun eta inpartzialtasunari lotuta (MFEoren 48. art.).

9.6.1.2. Lantoki ofizialeko herri berean bizilekua izateko betebeharra

MFren kideek lantoki ofiziala duten herrian bizi beharko dute. Nagusi hierarkikoek baimena ematen dietenean baino ezin izango dute bertatik kanpora joan.

Era berean, beharrezko denboran zehar eta Fiskaltzaren buruaren instrukzioen arabera, jardun behar duten bulegora eta auzitegietara agertu beharko dute (MFEoren 49. art.).

9.6.1.3. Isiltasun betebeharra

MFren kideek behar bezalako sekretua gordeko dute beren kargua dela eta ezagutzen dituzten erreserbatutako gaietan (MFEoren 50. art.).

9.6.1.4. Nagusiekiko obedientzia eta informazio-betebeharra

MFEoren III. tituluaren V. kapitulutik kanpo beste oinarrizko betebeharrak bat aurreikusten da, 25. artikuluan jasotakoa, hain zuzen ere. Manu horretatik ondorioztatzen da MFren kideek obedientzia eta informazio-betebeharra dutela EFNrekiko eta kasu bakoitzean egokia den nagusiarekiko.

Lan honen 4. kapituluan ikusi dugunez, EFNk agindu eta instrukzio orokor nahiz zehatzak eman diezazkieke bere menpekoei; nagusi hierarkikoen bitartez egikarituko da hori. Ahalmen bera esleitzen zaie autonomia-erkidegoen fiskal nagusiei beren lurralde-eremuko fiskalburuei dagokienez, eta horiei ere bai beren menpekoei dagokienez.

Aldi berean, MFren kideek beren egitekoari buruzko egitateak jakinaraziko dizkiote EFNri, haien garrantziaren arabera.

Esandakoa MFEOren 55. artikularekin osatu behar dugu. Horrek dioenaren arabera, autoritateen artean laguntzeko edo asistentziarako betebeharra dago; hala eta guztiz ere, ezin izango da MFren kide bakar bat ere behartu autoritate administratiboen aurrean pertsonalki agertzera, bere kargua edo funtzioa dela eta. Ez da jasoko funtzioak betetzeko haren erari buruzko agindu edo oharrik ere, nagusi hierarkikoek emandakoak direnean izan ezik. EFNren kasuan, MFEOren 8. eta hurrengo artikuluek hartuko dira kontuan.

9.6.2. Eskubideak

9.6.2.1. Kargurako eta karreraren promoziorako eskubidea

MFren kideek eskubidea izango dute kargurako eta karreraren promoziorako, lege zehaztutako baldintzetan (MFEOren 51. art.).

Kargurako eskubideak esan nahi du MFren kideak borondatez baino ezin izango direla lantokitik aldatu; beraz, lantokitik nahitaez aldatzea zio tasatuengatik izango da. MFEOren 39. eta 40. artikuluek aurreikusten dituzte lantokitik nahitaez aldatzeko zioak. Hauexek dira:

- a) Fiskalaren beraren eskaera
- b) Kategoriaren plaza (nora igo baitira, betetzeko)
- c) Legeak zehaztutako bateraezintasun erlatiboetan erortzea
- d) Haiei leporatzen ahal zaizkien zioengatik, fiskalburuarekin disidentzia larriak

e) Haiei leporatzen ahal zaizkien zioengatik auzitegiarekin aurre-emate larriak

Izendapena egin zuen organo berak erabakiko du nahitazko lekualdatzea, aldez aurretik Kontseilu Fiskalak aldeko txostena eman ondoren. Espediente kontraesanekoaren bitartez erabakiko da, kategoriaz igotzeagatik denean izan ezik.

Gobernuak kargutik kendu ditzake, EFNk proposatuta, organo bakoitzaren fiskalburuak, lehenengo kategoriako burua duten Fiskaltzen teniente fiskalak eta autonomia-erkidegoen Fiskaltzen teniente fiskalak izanez gero; aldez aurretik Kontseilu Fiskal eta interesatuari entzun beharko dio eta, bere kasuan, autonomia-erkidegoaren fiskal nagusiari. Autonomia-erkidegoen fiskal nagusiek ere EFNri proposa diezaizkete gobernuak kargutik kentzea beren lurraldeko organoen fiskalburuak (MFEoren 41.5 art.).

Horrekin batera, MFren kideek araez⁶⁹ zehazten diren ohoreak izango dituzte (MFEoren 51.2). Kontu horri dagokionez, MFEoren 34. artikulua aurreikuspena hartu behar dugu kontuan, zeinak karrera fiskalaren kideen tratamendua karrera judizialarenarekin parekatzen baitu.

Dena dela, MFEoren 23. artikulua dioena ere gehitu behar dugu; horrek dio MFren kideak autoritate direla efektu guztietarako.

9.6.2.2. Baimenak eta lizentziak

MFren kideek arau bidez zehazten diren baimenak, lizentziak eta ordainsari-erregimenak dituzte. Materia horretan kontuan hartu behar da, epaile eta magistratuekin parekotasunik eta araurik oraindik onartu ez denez, 1969. urtean araututakoa aplikatu behar dela⁷⁰.

⁶⁹ Gogoan izan behar dugu oraindik ez dela arau berririk onartu, eta 1969. urtekoak jarraitzen duela indarrean. Beraz, gainerako ohoreei dagokienez, azken hori kontuan hartu beharko da, baldin eta BJLOk eta MFEok aurreikusitakoaren kontra ez bada.

⁷⁰ Hala ere, kasu horretan ulertu behar dugu 1969. urteko araua BJLOk aldatu duela, opor, baimen eta lizentziei dagokienez, 370. eta 377. bitarteko artikuluetan jasota.

9.6.2.3. Ordaintzeko eskubidea

Ordaintze-erregimena legez eraenduko da eta ordainsarrietan parekatuta egongo da epaile eta magistratuekin. Era berean, legezko baldintzetan laguntza egokia eta Gizarte Segurantzza izango dituzte (MFEOren 53. art.).

9.6.2.4. Elkartzeko eskubidea

EKren 127.1 artikulua elkartzeko eskubidea aintzatesten die epaile, magistratu eta fiskalei, eta gehitzen du legeak zehaztuko duela horien elkartze profesionalaren sistema eta modalitatea. Baina hainbat modutan garatu da manu hori, batetik, epaile eta magistratuentzat eta, bestetik, fiskalentzat. Hasiera batean aipatutako artikulua baterako elkarteak (hots, epaile, magistratu eta fiskalenak) sortzeko eskubidea aintzatesten zuela uler daitekeen arren, praktikan ez da horrela gertatu. Karrera bakoitzak bere elkarteak ditu⁷¹.

MFEOren 54. artikulua fiskalek elkarte profesionalak sortzeko duten eskubidea aintzatesten du, askatasunez egikarrituko dutena EKren 22. artikulua eremuan, baina jarraian adierazten diren arauak errespetatuz:

- a) Fiskalen Elkarteek gaitasun osoa izango dute pertsonalitate juridikoa eta haien helburuak betetzeko. Legezko helburu moduan honako hauek izaten ahalko dituzte: haien kideen interes profesionalak alde guztietan, eta ikasketak eta ekintzak egitea, oro har, justiziaren zerbitzura zuzenduta.
- b) Elkarte horien kideak karrera fiskalarenak baino ezin dira izan. Horrek esan nahi du ez dela posible epaileak edo magistratuak elkarte horien kide izatea.
- c) Fiskalak askeak dira elkarte profesionaletan afiliatzeko edo ez. Horiek zabalik egon beharko dute karrera fiskalaren edozein kide sartzeko.
- d) Elkarte profesionalak baliozko moduan sortuta geratuko dira erregistroan inskribatzen diren unetik; Justizia Ministerioak egingo du hori. Inskripzioa

⁷¹ Fiskalen Elkarteak: *Fiskalen Elkartea (Asociación de Fiscales)* eta *Fiskalen Batasun Aurrerakoia (Unión Progresista de Fiscales)*.

edozein sustatzailek eskatuta egingo da; horri gehituko zaizkio estatutuen testua eta afiliatuen zerrenda.

e) Estatutuen beharrezko aipamenak:

- Elkartearen izena, konnotazio politikorik izango ez duena
- Helburu espezifikoak
- Elkartearen antolaketa eta ordezkaritza. Barruko egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute
- Afiliazio-erregimena
- Baliabide ekonomikoak eta kuota-erregimena
- Elkartearen zuzendaritza-karguak hautatzeko era

f) Elkarreek legez kontrako edo estatutuen mugetatik kanpoko ekintzak burutzen dituztenean, EFNk elkartea deuseztea premiatzen ahal izango du, deklaraziozko epaiketa arruntaren bitartez. Erabakia hartzeko eskumena Auzitegi Gorenaren 1. Salari dagokio; horrek erabakitzen ahalko du elkartearen badaezpadako esekipena.

9.6.2.5. Immunitatea

Aktiboan dauden MFren kideak ezin izango dira atxilotu nagusi hierarkikoaren baimenik gabe, bi kasutan izan ezik: eskuduna den autoritate judizialaren agindua dagoenean, edo delitu goriaren kasuan. Azken kasu horretan, atxilotu bezain pronto hurbilena den epailearen esku utziko da atxilotua. Kasu guztietan, nagusi hierarkikoari jakinaraziko zaio (MFEoren 56. art.).

9.7. Bateriaezintasunak eta galarazpenak

MFren kideen bateraezintasun eta galarazpenak aurreikusten dituzte 57., 58. eta 59. artikuluek. Puntu honetan ez gara luzatuko, aurreko kapituluan landu baitugu. Beraz, han esandakora joko dugu.

9.8. Ministerio Fiskalaren erantzukizuna

Epaile eta magistratuekin gertatzen den moduan, MFren kideek hiru erantzukizun mota dituzte dagozkien funtzioak betetzean gauzatutako egite edo ez-egiteengatik: penala, delitu edo falta moduan tipifikatuta daudenenean; zibila, kalte-galerak eragiten dituztenean; eta diziplinazkoa, diziplina-falta moduan araututa daudenean.

9.8.1. Erantzukizun zibila eta penala

Epaile eta magistratuentzat BJLOk aurreikusitakoaren arabera eraenduko da MFren kideen erantzukizun zibil eta penalaren eskaera eta, bere kasuan, administrazioaren aurkako errepikapena, aplikagarria izan daitekeen neurrian (MFEOren 60. art.). Horrek esan nahi du BJLOren III. tituluaren I. eta II. kapituluaren artikulua aplikatu beharko direla; zehatzago, 405. eta 410. bitarteko artikulua erantzukizun kriminalari dagokionez, eta 411. eta 413. bitarteko artikulua erantzukizun zibilari dagokionez.

9.8.1.1. Erantzukizun penala

BJLOren 405. artikulua arabera, MFren kideek erantzungo dute beren funtzioak betetzean egindako falta edo delituengatik. Ekintza horiek epaitzeko prozesua hasiko da: ofizioz, auzitegi eskudunaren erabakiaren bitartez (kaltetuaren nahiz MFren kereila dela eta), edo herri-akzioaren bitartez (BJLOren 406. art.).

BJLOren 407. eta 408. artikuluek adierazten dute, autoritate judizialek auzitegi eskudunari jakinaraziko diotela epaile eta magistratuek haien karguetan jardutean egindako delituzko ekintzaren berri izanez gero, MFri alde aurretik entzun ondoren. Aurreikuspen hori MFren kideei aplikatzen badiegu, ulertu beharko genuke entzun behar den fiskalak ez duela izan behar delitua edo falta egin duena⁷².

⁷² Izan ere, 1969ko Arauaren 148. artikulua aurreikusten du entzun behar den fiskalak delituzko ekintza gauzatu duenaren nagusi hierarkikoa izan behar duela.

Delitu eta falta horiek epaitzeko aintzat hartu behar ditugu, organo eskudunari dagokionez, BJLOren 57.1.2. eta 73.3 b) artikuluaen aurreikuspenak. Horrela, Auzitegi Gorenaren Penaleko Salak eskumena izango du EFN eta Auzitegi Gorenaren Salako fiskalak epaitzeko; eta, bere aldetik, Justizia Auzitegi Nagusia eskuduna izango da MFren kideek beren karguetan jardutean autonomia-erkidegoaren barruan egindako faltak eta delituak epaitzeko, baldin eta eskumena Auzitegi Gorenari ez badagokio.

9.8.1.2. Erantzukizun zibila

Epaile eta magistratuen moduan, MFren kideek zibilki erantzungo dute eragindako kalte eta galerengatik dagozkien funtzioak betetzean doluan edo kulpan erortzen direnean (BJLOren 411. aplikazioa).

Erantzukizun mota hori izaten ahalko da alderdi kaltetuak edo haren oinordeek eskatutakoa, egokia den epaiketaren bitartez (BJLOren 412. art.). Horrela, ez dago inongo pribilegiarik salatuaren kargua dela eta.

Erantzukizun zibileko salaketa ezin izango da tarteratu, kaltea eragin den prozesua amaiarazten duen erabakia irmo izan arte. Horrek esan nahi du posible diren errekursoak agortu behar direla salaketa tarteratu baino lehen⁷³. Gainera, kaltetuari eskatzen zaio prozesu horretan modu egokian erreklamatzeari, ahal denean (BJLOren 413. art.).

Amaitzeko, eta auzia epaitzeko eskumenari dagokionez, kontuan hartu behar dugu BJLOren 56.2 artikulua jasotzen duen foru berezia, EFN eta Auzitegi Gorenaren Salako fiskalen aurkako erantzukizun zibileko salaketa ezagutzeko eskumena esleitzen diona Auzitegi Gorenaren Zibileko Salari.

9.8.2. Diziiplina-erantzukizuna

⁷³ Ildo berekoak dira 1969ko Arauaren 139. eta 140. artikulua.

MFEOren 61. eta 70. bitarteko artikuluek arautzen dute MFren kideen diziiplina-erantzukizuna. Fiskalak diziiplina-erantzukizunean ereriko dira Estatutuak jasotako faltaren bat eginez gero.

9.8.2.1. Falta motak

MFren kideek egindako diziiplina-faltak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke (MFEOren 61. art.).

Lan honetan ez ditugu errepikatuko MFEOren 62., 63. eta 64. artikuluetan zehar zerrendatzen diren falta guztiak, baina bai haietariko batzuk aipatu. Horrela, falta oso larritzat hartzen dira, besteak beste, Konstituzioari fideltasun-betebeharra kontzienteki ez betetzea, idatziz zuzendutako agindu partikularrak eta dei pertsonalak ez betetzea (prozesuan kalteak nahiz Fiskaltzaren barruko funtzionamenduan garrantzizko aldaketak eragin direnean), alderdi politiko nahiz sindikatuetan afiliazioa, horien zerbitzupeko enplegu nahiz karguak, edo abstenitzeko betekizuna ez betetzea (legezko zioak daudela jakinda)(MFEOren 62.1, 2., 3. eta 8. art., hurrenez hurren).

Falta larriak dira, beste batzuen artean, honako hauek: nagusiekiko errespetu falta; haien presentzian, zuzentzen zaien idazkian edo publizitatean autoritatearen gehiegikeri edo abusua; errespetu falta larria herritar, instituzio, epaile eta magistratu, fiskal, idazkari, auzitegi-mediku, kudeaketa, izapide eta laguntza judizialeko kidegoen funtzionario, abokatu eta prokuradore, graduatu sozial eta polizia judizialaren funtzionario eta Justizia Administrazioaren edo bulego fiskalaren zerbitzupeko gainerako pertsonalarekiko; eta fiskalak bere funtzioan jardutean ezagututako egitateak edo datuak ezagutaraztea, falta oso larria ez denean izan ezik (MFEOren 63.1, 3., eta 5. art.).

Amaitzeko, falta arinak dira hauek: nagusiekiko errespetu falta jokaera falta larritzat hartzeko inguruabarrik ematen ez denean; menpekoekiko atentziorik eza nahiz begirunerik eza, herritarrekin, epaile eta magistratuekin, eta abarrekin (MFEOren 64.1 eta 2. art.).

9.8.2.2. Zigorrak

Fiskalei ezartzen ahal zaizkien zigorrak honako hauek dira –(MFEOren 66. art.):

- Ohartarazpena
- Hiru mila euro arteko isuna
- Nahitaezko lekualdatzea lantokia zuen Fiskaltzatik gutxienez ehun kilometro aldentuta dagoen beste batera. Kasu horretan, fiskalak ezin izango du urtebetetik hiru urtera arteko epean.
- Hiru urtera arteko karguaz gabetzea
- Banantzea

Baina zer zigor dagokio falta mota bakoitzari? Ikus dezagun:

- Falta arinei dagozkion zigorrak: ohartarazpena nahiz hirurehun euro arteko isuna.
- Falta larrien kasuan: hirurehun eta hiru mila euro arteko isuna.
- Falta oso larriak badira: karguaz gabetzea, nahitaezko lekualdatzea edo banantzea.

Zigorra edozein izanda ere, ezarpenean kontuan hartuko dira proportzionaltasun- eta graduazio-printzipioak. Horrela, zigorra arindu edo larriagotu egingo da egitatearen eta ustezko egilearen inguruabarren arabera.

9.8.2.3. Falten preskripzioa

Oso falta larriengatik ezarritako isunak bi urtetan preskribituko dira, falta larriengatik ezarritakoak urtebetean, eta falta arinengatik ezarritakoak KPk faltetarako zehaztutako preskripzio-epean. Epeak hasiko dira zenbatzen isuna ezarri zuen erabakia irmo bihurtzen den hurrengo egunetik (MFEOren 66.4 art.).

9.8.2.4. Diziplina-erantzukizuna ebazteko organo eskudunak

Egindako diziplina-faltaren arabera, desberdina izango da zigorra ezartzeko organo eskuduna. MFEOren 67. artikulua dio isuna ezartzeko eskumena organo hauei dagokiela:

- Ohartarazpenaren kasuan, egokia den fiskalburuari
- Karguaz gabetzeko zigorra izanez gero, EFNri
- Zerbitzutik banantzea ezartzeko Justizia Ministerioari, EFNk proposatuta, Kontseilu Fiskalak alde aurreko txostena eman ondoren.

9.8.2.5. Helegiteak

Baina posible da zigorra ezartzeko emandako erabakia errekurritzea? Bai, MFEOren 67.3 II artikulua ebazpen horiek errekurritzeko aukera ematen du:

- Fiskalburuen ebazpenak Kontseilu Fiskalaren aurrean errekurritu ahalko dira.
- EFNrenak Justizia Ministroaren aurrean, goragoko helegitean.
- Eta bide administratiboa agortzen duten Kontseilu Fiskal eta Justizia Ministroaren ebazpenak, Entzutegi Nazionaleko administrazioarekiko Auzi Salaren aurrean, administrazioarekiko auzi-helegitearen bidez.

9.8.2.6. Zigortzeko prozedura

Ohartarazpenaren zigorra besterik gabe ezarri ahal izango da, alde aurretik interesatuari entzun ondoren. Gainerako zigorrei dagokienez, beharrezkoa izango da kontradikzio-espedientearen instrukzioa, interesatuaren entzunaldiarekin (MFEOren 68. art.).

1969ko Arauak arautzen du espedientearen izapidea, BJLOren 423. eta 425. bitarteko artikuluek epaile eta magistratuentzat aurreikusitakoari jarraituz. Beraz, arauak aurreikusten ez dituen kontuetan aplikatuko da BJLOk ildo horretatik zehazten duena⁷⁴.

⁷⁴ Ildo horretatik, MFEOren 1. xedapen osagarria.

9.8.2.7. Indargabetzea eta birgaitzea

Diziplina-zigor irmoak idatziko dira interesatuaren espediente pertsonalean. Zigorra bete ondoren eta, ezarri zenetik sei hilabete, bi urte edo lau urte igarota –(faltaren larritasunaren arabera), epe horren barruan fiskalak zigor daitekeen egitaterik gauzatu ez badu, horiek bertan behera utziko dira, EFNren erabakiaren bitartez.

Falta arinengatik ezarritako zigorrak bertan behera utziko dira automatikoki. Gainerakoen indargabetzea espedientearen bitartez egingo da, interesatuak eskaturik eta Kontseilu Fiskalak txostena emanda.

Bertan behera uzteak aurrekaria ezabatzen du efektu guztietarako, baita berrezartzeko eta errepikatzeko ere (MFEOren 69. art.).

Amaitzeko, banandutako fiskalen birgaitzeari dagokionez, aplikagarria den neurrian, BJLOk eraenduko du epaile eta magistratuentzat aurreikusitakoa (MFEOren 70. art.). Hau da, BJLOren 389. eta 390. artikulua aplikatuko dira: horiek aurreikusten dute diziplina-banantzearekin zigortutako epaile eta magistratuak birgaituak izateko aukera. Kasu horretan EFNri legokioke birgaitzearen erabakia hartzeko eskumena, karrera fiskalean goreneko organoa baita. Birgaitzeko erabakia diskrezionala da eta oinarritzen da behin betiko amaitzean edo banantzearen zioaren ez-existentzian. Erabakia hartzeko kontuan hartuko dira mota guztietako inguruabarrak.

BIBLIOGRAFIA

- ALAMILLO CANILLAS, F., *El Ministerio Fiscal español. Su organización y funcionamiento*, Colex, Madril, 1990.
- CONDE-PUMPIDO FERREIRO, C., *El Ministerio Fiscal*, Aranzadi, Iruña, 1999.
- FLORES PRADA, I., *El Ministerio Fiscal en España*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 1999.
- GRANADOS CALERO, F., *El Ministerio Fiscal. Del presente al futuro*, Tecnos, Madril, 1989.
- HERRERO-TEJEDOR ALGAR, F., *La reforma del Ministerio Fiscal*, Colex, Madril, 2003.
- LANZAROTE MARTÍNEZ, P., *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal y la reforma de su estatuto orgánico*, La Ley, Madril, 2008.
- LOPEZ LOPEZ, A.M., *El Ministerio Fiscal español. Principios orgánicos y funcionales*, Colex, Madril, 2001.
- MARCHENA GOMEZ, M., *El Ministerio Fiscal: su pasado y su futuro*, Marcial Pons, Madril 1992.
- MARTINEZ DALMAU, R., *Aspectos constitucionales del Ministerio Fiscal*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 1999.
- MONTERO AROCA, J., GOMEZ COLOMER, J-L., MONTON REDONDO, A., BARONA VILAR, S., *Derecho Jurisdiccional I. Parte general*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2008.
- PÓRFILO TRILLO NAVARRO, J., *El fiscal en el nuevo proceso penal. Estatuto Orgánico del Ministerio Fiscal. Reforma 2007*, Comares, Granada, 2008.
- ROIG BUSTOS, L., “Por fin un Fiscal del estado de designación parlamentaria”, *Revista de Jueces para la Democracia*, 18. zk., 1993ko urtarrila.